**eraberean**

**TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA**

RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO Y NO DISCRIMINACIÓN

# Sarearen jarduerari buruzko 2016ko txostena

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

eraberean

TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA

RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO Y NO DISCRIMINACIÓN

# Sarearen jarduerari buruzko 2016ko txostena

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac

Argitaraldia:
1.a, 2017ko iraila

Ale-kopurua:
120

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enpleguko eta Gizarte Politiketako saila

Internet:
www.euskadi.eus

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Kabinetearen eta Komunikazioaren Zuzendaritza. Enpleguko eta Gizarte Politiketako saila

Inprimaketa:
Gráficas Dosbi, S.L.

L.G.:
VI 611-2017

# aurkibidea

**HITZAURREA** **5**

**1. TXOSTENA AURKEZTEA ETA TESTUINGURUAN JARTZEA** **7**
1.1. Xedeak 9
1.2. Irismena 9
1.3. Testuingurua 10
1.4. Egitura 11

**2. DISKRIMINAZIOAREN EGOERA EUROPAN, ESTATU ESPAINIARREAN ETA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAN: HURBILKETA** **13**
2.1. Europar Batasuna 16
2.2. Estatu espainiarreko legegintza 16
2.3. Gorroto-delituen gaineko datu ofizialak 19
2.4. Sententziak 21

• *Itzaletatik argietara, diskriminazioaren eta tratu-berdintasunaren arloan.* Mikel Mazkiaran eta Rosabel Argote 23
• *Lanean tratu berdina izateko eta diskriminaziorik ez jasateko eskubidearen babesa, prebentzioa eta sustapena.* Manuel Velázquez 28

**3. ERABEREAN SAREAREN JARDUNA 2016AN** **33**
3.1. Barrura begirako lana 35
3.2. Kanpora begirako lana 37
3.3. Jarduera osagarriak 66

• Eraberean Sareak artatutako pertsonei eta sareko profesionalei egindako elkarrizketak. 70

**4. ESPERIENTZIA POSITIBOAK, TRATU-BERDINTASUNAREN ETA DISKRIMINAZIORIK EZAREN ARLOAN** **81**
Jardunbide Egokiak TBDEren arloan 83

• *Bizipen inklusiboak eraikitzen haurtzaroan eta nerabezaroan.* Rafael Mendia 91
• *Ilargiaren beste aldea.* Julio Flor 97

**5. ONDORIOAK ETA ERRONKAK** **101**

**6. ERANSKINAK** **109**

# hitzaurrea

**Ernesto Sainz Lanchares**
Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaria
Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila
Eusko Jaurlaritza

Lan honen helburua Eraberean Sareak 2016. urtean garatutako jardueraren berri ematea da, ez besterik.

Pertsonak Gobernu honen jarduera-ardatza diren uste sendoa izanik, eta kontuan hartuz hark pertsona ororen arteko tratu-berdintasuna bermatzeko konpromisoa hartua duela, zeinahi ere den haien sexua, sexu-orientazioa, erlijioa, etnia, arraza edo nazionalitatea, bigarren urte honek balio izan du Tratu Berdintasuna eta Diskriminaziorik Eza (TBDE) printzipioaren alde borrokatzeko tresna eraginkor gisa finkatzeko Eraberean Sarea, jokabide edo jarrera arrazista, xenofobo, homofobo edo sexu-orientazioak eta genero-identitateak eragindako diskriminazio oro errefusatzean oinarritzen dena.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza harro dago Eraberean Sarea bezalako tresna bat izateaz, ibilbide laburra baldin badu ere, sareak TBDEren aldeko jarduera on gisa duen balioa nabarmendu baita, eta hark harrera ona izan baitu Euskaditik kanpo aurkeztu den toki guztietan. Sarean lan egiteko tresna bat da, zuzendaritza honek bultzatutakoa, baina ez luke inolako zentzurik izango *"antenen"* ezin eskertuzko ekarpenik gabe, hirugarren sektore sozialeko erakunde horiek luze baitaramate immigrazioaren, ijito herriaren eta LGTBI kolektiboen alde lan eskerga egiten; haiek dira sarearen benetako motorrak. Doakiela nire eskerrik onena egiten duten lanagatik.

Etorkizunari begira, ikuspegi gehiago hartu eta sarea finkatzeko erronkarekin geratzen naiz, xede laudagarri hau betetzeko asmoz: informazio-, aholkularitza- eta orientazio-mekanismoak eta -tresnak jartzea diskriminazio-tratu batek haien eskubideak urratu dituen pertsonen zerbitzura, bereziki, diskriminazio anizkoitzik edo gorroto-deliturik gauzatu izan den kasuetan. Eraberean sareak bete-betean asmatu zuen hiru ikuspegi bateratzean (immigrazioa, ijito herria eta LGTBI), baina ez dizkie suerta litezkeen beste diskriminazio-mota batzuei ateak itxi behar (desgaitasuna, erlijio-sinesmenak, eta abar), eta horiek hartzeko prest egon behar du.

Franz Kafkak honela deskribatu zuen nola sentitzen den diskriminatutako pertsona bat: "*... Eta soilik diskriminazioa jasan duen pertsona batek daki zer adierazten duen horrek, eta zeinen sakon egiten duen min. Zauria desberdina da pertsona bakoitzean, eta pertsona bakoitzean arrasto desberdin bat uzten du".* (Franz Kafka, Praga 1883-1924). Zauri hori saihestea da Eraberean sarearen funtsa eta izateko arrazoia.

# 1

## aurkezpena

# 1. txostena aurkeztea eta testuinguruan jartzea

## 1.1. Xedeak

**Eraberean sarearen urteko bigarren txosten honetan, lehen txostenean** (***Eraberean txostena 2015***) aurreratutako ezaugarriei eta xedeei eutsi nahi zaie, eta horietan sakondu nahi da. Hona hemen garrantzitsuenak:

- Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako borrokaren sustapena agenda politiko, instituzional eta sozialean kokatzea (TBDE).
- Arlo horretan erakundeetatik eta hirugarren sektoretik egiten ari den lanaren balioa azpimarratzea.
- EAEn, estatuan, Europan... TDBE sustatzeari buruz informazio garrantzitsua ematea, eta, hori egitean, jardueraren beraren kontu ematea, eta besteek egiten dutena edota beste testuinguru batzuetan egiten dena biltzen eta sistematizatzen saiatzea.
- Etenik gabeko hobekuntza erraztea: Eraberean sarearen autoebaluazioa eta kanpo ebaluazioa, berezko lan-eredu batean aurrera egiteko bide emango duena, sareak hartan eragiten duen errealitateari egokitutakoa.
- Egoera orokorrean gure alea jartzea, gure eskarmentu praktikoa, gogoeta eta proposamenak ekarriz, bai Eraberereanentzat bai eta beste eragile instituzional eta sozial batzuentzat baliagarriak izan daitezkeenak ere.
- Eraberean sarea hedatzen, haren presentzia publikoa bultzatzen, eta hura TBDEren arloan erreferentziazko bihurtzen laguntzea, bai EAEn baita EAEtik kanpo ere.

## 1.2. Irismena

Eraberean sarearen jarduera orokorrari dagokionez, esan daiteke gora egin duela nabarmen, batez ere zuzenean artatutako kasuei eta pertsonei dagokienez, baina badakigu datu horiek ez direla EAEren

errealitatearen adierazgarri, ez kuantitatiboki ezta kualitatiboki ere.

Eraberean sare gaztea da oraindik ere, hobetzen jarraitu behar du are pertsona gehiagorengana iristeko eta euskal gizartean ezagunagoa izateko. Edonola ere, aurkezten diren datuak laguntza handikoak izan daitezke EAEren argazki bat sortzeko edota beste maila batzuetatik eskainitako argazkien definizioa hobetzeko (Ertzaintza, Barne Ministerioa, fiskaltzak, eta abar). Ziur aski, horiek guztiak uztartuta errealitatearen irudi hobea lortuko genuke.

Gauza bera esan daiteke gainerako ekarpenei buruz, txostena ez baita jardueren adierazpen huts bat; hau da, hots, hemen agertzen diren arauen analisien, hirugarrenengandik bildutako datuen, esperientzien zerrenden, eta abarren xedea ez da zehaztasun erabatekoa ematea, baizik eta errealitate anitz eta dinamiko baten argazkia eskaintzea, imajina dezagun zein den eta zein izan daitekeen haren eboluzioa.

Beste era batera esanda, baliotsuena ez da egindako ahaleginaren emaitza bera, baizik eta ikertzeko, biltzeko eta lantzeko ahalegin hori denboran iraunaraztea, hobekuntzak eta aurrerabideak iradokitzeko asmoz.

## 1.3. Testuingurua

Komeni da, baita ere, 2016ko testuinguru orokorra deskribatzea, apur bat bada ere, urte horretan gertatu baitira, eta gertatu direnez baldintzatu baitituzte, txosten honetan kontatzen direnak.

Sarearen barruko aldera begira, sareak kontaktu handiagoa eta estuagoa izan du errealitatearekin, eta 2015era arte egindakoa ebaluatzeko eta sistematizatzeko ahalegina egin behar izan du urte horretako txostena egin ahal izateko. Horren ondorioz, zenbait ahulgune identifikatu ditugu, eta horiek dimentsio guztietan aztertu eta zuzendu behar izan ditugu. Era honetako gauzei buruz ari gara: sarearen aingurat-ze instituzionalean sakontzea, sarea barne-funtzionamendurako erregelamendu batez hornitzea, artat-ze-protokoloak hobetzen jarraitzea, prestakuntza-beharrak diagnostikatzea, urte bakoitzeko jarduteko modua hobetzea; 2015eko txostena bera egitea nahikoa lan izan zen ere...

Ahalegin horietako asko 2016an hasi eta aurten bukatu dira (are, zenbait berrikusteke eta onartzeke daude oraindik).

Horrek ez du esan nahi 2016a barrura begirako urte bat izan denik: sarea hedatzeko eta erreferente bihurtzeko ahalegin handiagoa egin da, artatzeen kopurua bikoiztea lortu da eta garrantzi handiko zenbait jarduera garatu dira prestakuntzaren arloan. Egia da, ordea, aldi berean hazi dela barrura begira eta kanpora begira egin den lana, eta baliteke horrek moteldu izana aurreikusita zeuden beste garapen batzuk.

Kanpora begirako jardunari dagokionez, 2016an hauteskundeak izan dira, eta zenbait aldaketa izan dira erreferentzia politiko eta instituzionaletan. Nahiz eta horrek eraginik izan ez duen pertsonak artatzeko prozesuetan, ezta aldez aurretik programatutako edo sistematizatuago dauden jarduueretan ere, baldintzatu egiten ditu beste jarduera batzuk, hala nola, gobernu barruko eta erakundearteko akordioak formalizatzearekin lotura duten jarduerak, eta Eraberean sarea beste eragile batzuekin koordinatzearekin lotura dutenak. Bi horietako lehenaren adibide gisa, Segurtasun Sailarekiko lan-esparrua nabarmendu daiteke, diskriminazioaren eta gorroto-delituen arloan prestakuntza emateko elkarlanari eutsi baitzaio eta hura indartu baita.

## 1.4. Egitura

Egiturari dagokionez, 2016ko txosteneko kapituluen banaketa 2015ekoaren antzekoa izan da, deskribatutako xedeekin bat baitator:

Txostena aurkezten eta testuinguruan jartzen den kapitulu honen hurrengo kapituluan, zenbait datu eta arau-berritasun aztertzen dira, auzia Europan, estatu espainiarrean eta EAEn egun zer egoeratan dagoen deskribatzeko. Horretaz gainera, 2016an argitaratutako zenbait albiste garrantzitsu aztertzen dira, lotura baitute diskriminazio-kasuekin eta gorroto-delituekin.

3. kapituluan, sareak bigarren seihilekoan gauzatutako jardunaren berri ematen da, bere horretan. Barne-jardun horren zenbait zertzelada azaltzen dira, horiek ebaluatu eta hobetzeko. Bi bloketan banatuta aztertzen da sarearen kanpo-jarduna: prebentzioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa, alde batetik, eta pertsonei arreta, laguntza eta aholkuak ematea, bestetik.

Arestian adierazi dugun moduan, nahiz eta artatutako kasuen kopuruak gora egin duen, kapitulu horrek ez du, oraindik, balio estatistiko handirik. Egindakoaren kontu-emate bat baino ez da, eta ikuspegi orokorrera egindako ekarpen bat, artatutako kasu horietako batzuen eta biktimen bizipenen deskribapena dakar, eta "Eraberean sarearen logikari jarraituz" gauzatutako beste jarduera osagarri batzuk ere biltzen dira, adibidez, sareko kideek gauzatutako jardueretatik sarearen helburuarekin eta edukiekin bat etorri arren sarearen berezko planifikazioaren fruitu ez direnak, beste esparru eta konpromiso batzuetakoak baizik (sailarteko hitzarmenak, Biltzenen kasuan; Europako proiektuak, SOS Arrazakeria Gipuzkoaren kasuan...).

4. kapituluan, zenbait maila eta testuingurutan garatutako esperientziak eta ekimenak bildu dira, eta bi eginkizun hauek bete nahi dira: alde batetik, erakustea diskriminazioa eta gorroto-delituak gero eta gehiagotan azaltzen direla agendan eta errealitatea mugitzen dela eta, bestetik, agenteei zenbait argibide ematea ekintza-lerroei eta -aukerei buruz.

Bada desberdintasun bat txosten honen eta 2015eko txostenaren artean, izan ere, ohitura on izateagatik esperientzia gutxi batzuk hautatu beharrean, planteamendu zabalagoa egin da, eta kantitatearen nahiz aniztasunaren garrantzia nabarmendu da.

Aurtengo txostenean ere, bada ondorioei eta erronkei buruzko kapitulu bat, 5.a. Kapitulu horrek bi alderdi ditu: alde batetik sintesia egin eta gaia ixten da, eta, bestetik, etorkizunera begira jartzen da. 2015eko txostenean gertatu bezala, kapitulu hori ez da soilik sareari buruz ari, hau da, ez ditu soilik Eraberean sarearen erronkak eta konpromisoak islatzen, baizik eta beste eragile askok horietara ekarpenak egingo dituzten eszenatoki berriak iradokitzeko eta orientazioak emateko esparru bat da txostena. 2015ean identifikatutako horiek berrikusten eta eguneratzen hasiko gara.

Azkenik, bada eranskinak biltzen dituen atal bat. Hor ikusi ahal izango ditugu Eraberean sareari buruz beste euskarri batzuetan egin diren aipamenik azpimarragarrienak eta garrantzi handiko beste dokumentu batzuk, sareak EAEn duen oihartzunaren eta eraginaren jarraipen bat egiteko asmoz.

Txostenean, tarteka, zenbait pertsonaren eta erakunderen artikuluak ageri dira, bai eta Eraberean sareko erakundeek artatutako pertsonei egindako elkarrizketak, eta erakunde horietako profesionalei egindakoak ere. Testua aberasteaz eta gizatiartzeaz gain, testua arinagoa eta irakurtzen errazagoa izan dadin  tartekatu dira artikulu eta elkarrizketa horiek, ez dadila izan jardueren bilduma huts bat. Espero dugu lortu izana.

# 2

# diskriminazioaren egoera Europan, Estatu espainiarrean eta Euskal Autonomia-Erkidegoan: hurbilketa

# 2. diskriminazioaren egoera Europan, Estatu espainiarrean eta Euskal Autonomia-Erkidegoan: hurbilketa

Birus bat da diskriminazioa, eta gaixotu egiten ditu gizarte demokratikoak. Zabaltzeari utziko baldin badio eta, azkenik, desagerraraziko baldin bada, ikerketa-lan eta ekintza etengabeak behar dira, txerto eta antibiotiko egokiak topatzeko.

Kapitulu honetan, gaixotasun horrek 2016an izan duen diagnostiko labur bat egingo dugu, estatu espainiarrean Barne Ministerioak "gorroto-delituen" gainean eman dituen datu ofizialak baliatuta. Horrez gainera, zenbait aurrerapenen eta lorpenen berri emango dugu, Eraberean sareak aztertzen dituen hiru kolektiboen diskriminazioaren aurkako txertoak prestatzeko bidean.

Legegintzako neurriak aztertuko ditugu lehendabizi, urtean zehar tratu-berdintasuna sustatzeko aurkeztu eta/edo onartu diren arau-proposamen interesgarrienen berri emateko. Horien artetik, Europar Batasuneko arauei begiratuta, direktiba-proposamen baten egoera-txosten baten berri emango dugu, eta plan batzuk aztertuko ditugu, zuzenean eta zeharka diskriminazioaren gaia aztertzen dutelako eta komunikazio europar batez arduratzeko xedea dutelako. Esparru europarretik, estatu espainiarraren araugintzara igaroko gara, eta autonomia-erkidegoek 2016an onartu dituzten legeen berri emango dugu. Gainera, ikusiko dugu estatuan zer erantzun eman zaien alderdi parlamentarioek Diputatuen Kongresuan abiatu dituzten ekimenei.

Amaitzeko, esparru juridikoan sortu diren "antibiotikoak" behatuko ditugu labur-labur. Horien artean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak emandako bi sententzia (sexu bereko pertsonen familia-berrelkartzeetan eman diren tratu diskriminatzaileei buruzkoak) eta Katalunian eman diren beste bi

sententzia aipatuko ditugu (diskoteka bateko atezainaren aurkakoa bata, larru beltzeko mutil bati sartzen ez uzteagatik, eta neonazi baten aurkakoa bestea, bi gazte marokoar erasotzeagatik).

## 2.1. Europar Batasuna

Aztertzen ari garen urtean, arau-proposamen gutxik heldu diote, Europan, diskriminazioaren gaiari. Nabarmentzekoa da honako arau-proposamen honen gaineko egoera-txostena eman zela 2016/11/22an: *Kontseiluaren Direktiba Proposamena, pertsonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzekoa, haien erlijioari edo sinesmenei, desgaitasunei, adinari edo sexu-joerari erreparatu gabe*. Proposamen hori aztertzeko debateetan izan diren desadostasunak azaltzen ditu *egoera-txosten* horrek (izenak berak adierazten duen moduan, 2008ko uztailaren 8an aurkeztu zen direktiba-proposamenaren inguruan egin ziren eztabaidak eta negoziazioak prestatzeko argitaratzen da). Estatuen eskumenen inbasioa da eztabaida piztu duen eta *txostenean* jasotzen den gaietako bat. Eztabaida eragin duen gai bat da direktiba-proposamen horrek beste arau europar batzuen artean izango duen kokapena edo haiekiko bateragarritasuna, bai baitaude proposatutako direktiba horren xedeko diren kolektiboen gaineko beste arau batzuk ere. Eztabaida horren gai zehatza da badirela, esaterako, desgaitasunak edo dibertsitate funtzionalak dituzten pertsonen irisgarritasuna arautzeko xedapenak, edo adin handiko eta beste adin talde batzuetako pertsonen babesa arautzekoak.

Nabarmentzekoak dira, *egoera-txosten* horrez gainera, diskriminazioaz eta arrazismoaz diharduten plan batzuk, nahiz eta, zuzenean arautu beharrean, zeharka arautzen dituzten gai horiek. Azken horien adibide bat da *Hirugarren herrialdeetako nazionalen integraziorako ekintza-plana*. Ekainean aurkeztu zen plan hori (377 COM 2016.06.7koa), errefuxiatuen egoerari erreparatzen dio, eta hezkuntzaren, harreraren, lan-merkatuaren, zerbitzu-eskurapenaren eta gizarteratzearen alorreko neurriak biltzen ditu. Arrazismoari eta diskriminazioari aurre egiteko ekintzak jasotzen dira azken neurri mota horretan.

Diskriminazioaren gaia lantzen du, halaber, 2016ko ekainaren 14ko Komunikazioak (379 COM), honako hau baitu helburu: *Indarkeriazko estremismora daraman erradikalizazioa prebenitzeko laguntza*. Komunikazio horrek ikastetxeetarako eta espetxeetarako prebentzio-neurriak biltzen ditu, hala nola “diskriminazioaren aurkako borroka, horren barne direla, besteak beste, erlijioan, sinesmenetan, arrazan edo etnia-jatorrian oinarritutakoak, gorrotoari eta komunitateen estigmatizazioari aurre egitea, eta gorrotoak bultzatutako delituak nahiz gorrotoaren diskurtsoaren adierazpen larriak borrokatzea” (13. or.).

## 2.2. Estatu Espainiarreko legegintza

Autonomia-erkidegoek eta estatuak berak diskriminazioaren eta gorroto-delituen alorreko zenbait lege-ekimen landu dituzte 2016. urtean.

Honako hau izan zen lehenengoa: *8/2016 Legea, maiatzaren 27koa, Murtzia Eskualdeko Autonomia Erkidegoko lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen gizarte-berdintasunari eta sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurkako politika publikoei buruzkoa*. Lege horren berritasuna da LGTBI kolektibo guztia hartzen duela; izan ere, pertsona transgeneroen egoera arautu izan dute beste arau batzuek orain arte, hala nola Eusko Jaurlaritzak 2015eko abenduaren 22an emandako Dekretuak, pertsona transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoak (2016ko urtarrilaren 12an jarri zen indarrean).

Autonomia-erkidegoen araugintzarekin jarraituta, azpimarratzekoa da Madrilen eman zen arau hau: *2/2016 Legea, martxoaren 29koa, Genero Identitate eta Adierazpenekoa, Gizarte Berdintasunerakoa eta Diskriminaziorik ezarena Madrilgo Erkidegoan*. Arau horrek eta erkidego bereko *uztailaren 22ko 3/2016 Legeak, LGTBIfobiaren eta Sexu Joeraren eta Identitatearen Arrazoiengatiko Diskriminazioaren aurka babes osoa ematekoak*, esparru horretako legedi osoena osatu dute autonomia-erkidegoen mailan.

Beste autonomia-erkidego batzuek arau bakarrean uztatu dituzte LGTBIfobia eta tratu-berdintasuna. Balear Uharteak dira horren adibide, honako arau hau eman ondoren: *8/2016 Legea, maiatzaren 30ekoa, lesbiana, gay, trans, bisexualen eta intesexualen eskubideak bermatu eta LGTBIfobia desagerraraztekoa*.

Iaz onartutako arau horien ondotik, gaur egun hamabi autonomia-erkidegok arautzen dituzte legeen bidez pertsona lesbianen, gayen, transexualen, bisexualen eta intersexualen eskubideak. Valentziako autonomia-erkidegoa izan da lege propio bat eman duen azkena: *apirilaren 7ko 8/2017 Legea, integrala, genero-identitatearen eta -adierazpenaren eskubidea aitortzekoa*.

Autonomia-erkidegoetako arauei esparru komun bat emateko helburua hartuta, honako proposamen hau aurkeztu berri du Kongresuan Unidos Podemos-En Comú Podem-En Marea parlamentu-talde konfederalak (Gorte Nagusietako Aldizkari Ofiziala, 2017ko maiatzaren 12koa): *Lege Proposamena, sexu-joera, sexu-identitate, sexu-adierazpen eta sexu-ezaugarriengatiko diskriminazioaren aurkakoa, eta lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen gizarte-berdintasunerakoa*. Proposamen horren azken xedapenetako bosgarrenak adierazten du lege hori autonomia-erkidegoek onartutakoen osagarria izango litzatekeela.

Autonomia-erkidegoetan egindako aurrerapen horiek erakusten dute arau ugari eman direla LGTBI kolektiboari begira.

Hala ere, ez da horrelako ugaritasunik ageri beste diskriminazio-modu batzuekin. Ez da ahaztu behar 2011n argitaratu zela *Tratu-berdintasunerako eta diskriminazioaren aurkako Lege Integraleko proiektua*, eta geroztik ez zela ildo horretako arau-ekimenik abiatu. Zorionez, autonomia-erkidegoek eta estatuak abiatutako zenbait ekimenekin, 2016an aldatu egin da joera hori.

Abuztuan, Kataluniako Generalitateak *Tratu-berdintasunerako eta diskriminazioaren aurkako lege-proiektu* bat aurkeztu zuen, eta informazio publikoko denbora igaro ondoren, 2017ko urtarrilaren hasieran onartu du erkidego horretako gobernuak.

Madrilgo autonomia-erkidegoan ia aldi berean aurkeztu ziren bi proposamen. Talde sozialistak egin zuen lehena: *Lege Proposamena, tratu-berdintasunerakoa, diskriminazioaren aurkakoa eta gorroto-delituen jokabideen aurka babes osoa ematekoa.* Madrilgo autonomia-erkidegoko gobernuan dagoen Alderdi Popularrak aurkeztu zuen bigarrena: *Lege Aurreproiektua, tratu-berdintasunari buruzkoa eta gorrotoa, diskriminazioa eta intolerantzia sustatzen dituzten ekintzen aurka babestekoa* Madrilgo autonomia-erkidegoan. Proposamenak egin ondoren, talde biek baztertu egin dituzte beren proposamenak, testu bakar bat adosteko. Hori adierazten du Madrilgo Biltzarreko Aldizkari Ofizialaren 2017ko otsailaren 16ko aleak.

Hori da autonomia-erkidegoek esparru horretan egindako lana; bestalde, Diputatuen Kongresuak zenbait arau-ekimen abiarazi zituen gorroto-delituen eta tratu-berdintasunaren esparruetan.

Iazko urtearen amaieran, honako hau aurkeztu zuen Talde Mistoak: *Gorroto-delituak prebenitzeko eta biktimak babesteko lege integral baterako legez besteko proposamena*. Justizia-batzordeak 2016ko abenduaren 20 bilkuran eman zion onarpena. Talde horrek legez besteko beste proposamen bat aurkeztu zuen irailean, Estatuko Fiskaltza Nagusiak gorroto-delituen talde bat gaitu dezan eta Fortuny programan[1] eremu edo lauki bat sor dezan.

Bestalde, legez besteko proposamen hau argitaratu zen Gorte Nagusien Buletin ofizialean: *Legez besteko proposamena, gorroto-delituak indarkeria mota berri moduan borrokatzekoa*. Parlamentuko talde popularrak aurkeztu zuen, eta Barne Batzordeak onartu zuen azaroaren 30eko bilkuran.

Horren harian, Talde Sozialistak legez besteko proposamen bat aurkeztu zuen 2016ko amaieran, *Gorroto Delituen aurkako Lege Integralaren Proiektua* aurkezteko, eta, orain gutxi, beste hau aurkeztu du: *Tratu-berdintasunerako eta diskriminazioaren aurkako Lege Integrala* (Gorte Nagusietako Aldizkari Ofiziala 17.0310.). Adierazi behar da 2011ko testua erreskatatzen duela *Lege Proposamen* horrek eta aipatu diren arau-proposamenen arteko osatuena dela, artikuludun testua baita (48 artikulu), eta, azaldu berri dugun moduan, 2011ko proiektuaren ia berdin-berdina (hauteskundeak aurreratu ostean, bertan behera geratu zen proiektu hura).

Herri ijitoaren atalari begiratuta, honako hau soilik topatu dugu: *Legez besteko proposamena, herritar ijitoen gizarteratze efektiboari buruzkoa eta herritar horiekiko diskriminazioaren aurka egitekoa*. Parlamentuko talde popularrak aurkeztu zuen, eta honako hau proposatzen da bertan: “ (…) Herritar Ijitoak Espainian Gizarteratzeko 2012-2020 Estrategia Nazionalaren esparruan eta Gizarteratzeko 2013-2016 Ekintza Planaren helburuak aintzat hartuta, herritar ijitoen aurka dauden aurreiritziak

[1] *Justizia Ministerioaren zigor-arloko fiskaltzaren kudeaketarako aplikazio informatikoa.*

desagerrarazteko ekintzak egitea, eta bide horretan, haien egoera ezagutarazi dadin sustatzea, tratu-berdintasuna eta kulturen arteko bizikidetza betea iristeko".

## 2.3. Gorroto-delituen gaineko datu ofizialak

Aurreko maiatzean, poliziak 2016an gorroto-delituen gainean izapidetu zituen atestatuen gaineko datuak jakinarazi zituen Barne Ministerioak. Estatu espainiarreko segurtasun-indar eta -kidegoek "gorroto-delituen" esparruko 1.272 intzidente erregistratu zituzten 2016. urtean, hau da, 2015. urtean baino -% 4,2 gutxiago. Laugarren postuan ageri da EAE, 141 intzidenterekin, eta bere aurretik ditu Andaluzia (152), Madrilgo autonomia-erkidegoa (171) eta Katalunia (282). Taula hau osatzen da probintziei eta horietan egindako delitu motei begiratuta:

| | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|---|---|---|---|
| Antisemitismoa | 0 | 0 | 0 |
| Aporofobia | 0 | 2 | 0 |
| Erlijio-sinesmen eta -praktikak | 1 | 2 | 0 |
| Desgaitasuna | 1 | 3 | 0 |
| Sexu-orientazioa eta sexu-identitatea | 5 | 21 | 4 |
| Arrazakeria eta xenofobia | 5 | 47 | 11 |
| Ideologia | 8 | 30 | 1 |
| Generoa | 0 | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | **20** | **105** | **16** |

Bizkaian izan ziren erregistratutako intzidenteen % 74, eta haren atzetik datoz Araba % 14rekin, eta Gipuzkoa, % 11rekin. Arrazismoa izan zen Gipuzkoan eta Bizkaian izandako intzidente kopuru handienen arrazoia, eta ideologia izan zen Araban gehien errepikatu zen arrazoia. Sexu-orientazioa eta -identitatea da polizia-atestatu gehien hartutako bigarren delitu taldea.

Guztira, 201 intzidente erregistratu ziren 2015ean:

| | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|---|---|---|---|
| 2015 | 23 | 126 | 52 |
| 2016 | 20 | 105 | 16 |
| Aldaketa | -3 | -21 | -36 |

Biktimizazioei erreparatuz gero, hau da, kaltetutako pertsonei begiratuz gero, “gorroto-delituen” 1.257 biktimizazio zenbatu ziren guztira 2016an, eta 180 biktima zenbatu ziren EAEn. Adierazi behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoan izan dela handiena delitu mota horregatik atxilotutako edo ikertutako pertsonen kopurua (96 guztira, eta 75 Bizkaian).

Edonola ere, zuhurtasunez aztertu behar dira datu horiek. Ez da ahaztu behar, intzidente guztien artetik, intzidente gutxi batzuk dakartzatela polizia-atestaturen bat, biktimek salaketa jarri ostean. Aintzat hartu behar da, horrez gainera, azken lau urteetan abiatu direla koordinazio-lanak polizia-kidegoen artean eta denbora hori daramatela atestatuetan delitu mota horiek barneratzeko tresnak erabiltzen; beraz, bide horretan sakontzea falta da oraindik. Azkenik, kontuan izan behar da ez dagoela jakiterik, epaitegien eta poliziaren arteko koordinazio faltaren ondorioz, zer-nolako amaiera izan duten polizia-etxeetan erregistratu diren intzidenteek.

Azken hiru urteen erreferentzia hartzen baldin badugu, EAE lehen postuetan ageri da txosten horietan. Horren gainean egin daitekeen interpretazioa da Kataluniako eta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia autonomikoak direla intzidente mota hori erregistratzeko lan sistematikoena egiten dutenak[2]. Hala ere, epaitegiei eta auzitegiei dagokie gorroto-delituaren edo ekintza diskriminatzailearen sailkapena ezartzea polizia-etxeetatik igortzen dizkieten atestatuei.

---

[2] *EAEko polizia-kidegoek TBDEren arloan duten gaitasunaz gehiago jakin nahi izanez gero, ikus: 2. kapituluan (Eraberean sarearen jarduna 2016an), Jarduera osagarriak atala.*

## 2.4. Sententziak

Giza Eskubideen Europako Auzitegian, 2016ko otsailaren 23ko sententzia nabarmendu behar dugu, Pajićvs. Kroazia auzian emandakoa (68453/13 demanda zk.). Demanda-jartzaileak 2010eko abenduan Kroazian bizitzeko egoitza-baimena eskatu zuen, D.B. bere bikotekidearekin, emakumea hura ere, berrelkartzeko. Ukatu egin zitzaion berrelkartzea. Demanda-jartzaileak gora jotzeko errekurtsoa jarri zuen erabaki horren aurka, eta alegazioetan adierazi zuen honako hau ondoriozta zitekeela: Atzerritartasun Legeak ez die familia-berrelkartzerik baimentzen sexu bereko bikotekideei, eta hori izan zen bere eskaera ezestearen arrazoia. Gora jotzeko errekurtsoa jarri zuen GEEAn, eta auzitegi horrek esan zuen bere jurisprudentzia errepikatua dela ez dagoela, 8. artikuluak arautzen duenari begiratuta, herrialde jakin batean ezartzeko eskubiderik edo bizileku-eskubiderik; hala ere, adierazi zuen estatuek atzerritarren giza eskubideak bete behar dituztela beren immigrazio-politikan, eta, bereziki, bizitza pribaturako edo familia-bizitzarako eskubidea (14. artikulua) eta diskriminaziorik ez pairatzeko eskubidea. Ondorioz, Gorteak adierazi du demanda-jartzailearen egoeran egin den tratu-desberdintasuna ez dela bateragarria Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 14. eta 8. artikuluen irakurketa konbinatuarekin.

Sexu bereko bi pertsonen familia-berrelkartzean gertatutako tratu diskriminatzailearen beste adibide bat da la 2016ko ekainaren 30ean Taddeucci eta McCall vs. Italia auzian eman zen sententzia.

Gerturago etorrita, Mataroko Zigor arloko 2. Epaitegiak, urrian, urtebeteko inhabilitazio-zigorra ezarri zion Bartzelonako El Masnou udalerrian dagoen diskoteka bateko atezain bati, ez ziolako gazte bati diskotekan sartzen utzi beltza zelako. Horrez gainera, 5.000 euroko isun bat ezarri zion, gazte horri ukabilkada bat eman eta lesioak eragin zizkiolako. Hilabete lehenago, irailean, Terrassako 1. instrukzio-epaitegiak urtebeteko espetxe-zigorra ezarri zion neonazi bati osotasun moralaren aurkako delitu bat egiteagatik; izan ere, bi gazte marokoar iraindu eta eraso zituen autobus batean, labana bat atera ondoren.

## Laburbilduz

Diagnostikoaren ikuspegitik, 2016an eta gorroto-delituen esparruan zer intzidente izan diren argitaratu du Barne Ministerioak. Nabarmendu behar da behera egin duela erregistratutako intzidenteen kopuruak; hala ere, horrek ez du esan nahi apaldu egin direnik horrelako intzidenteen atzean izaten diren jarrerak, salatu gabe uzten baitira izaera horretako ekintza gehien-gehienak.

Diskriminazioa prebenitzeko edo hari aurre egiteko bidean egindako aurrerapenak aztertzean, Diputatuen Kongresuak diskriminazioaren eta tratu-berdintasunaren alorretan egindako araugintza-lana izan daiteke 2016. urteko aurrerapen nabarmenena. Ez da alor horretako legegintza-ekimenik abiatu 2011. urteaz geroztik, eta iazko urtearen amaieran proposamen batzuk egin dituzte zenbait talde politikok: PSOEk, Talde Popularrak eta Talde Mistoak. Pentsatzekoa da proposamen horietakoren batek onartua izateko adostasuna bilduko duela 2017an.

Jurisprudentziaren alorrean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eta estatuetako auzitegiek ez dute sententzia nabarmenik eman.

# Itzaletik Argira
# diskriminazioan eta tratu-berdintasunean

**Mikel Mazkiaran**
SOS Arrazakeria Gipuzkoa
**Rosabel Argote**
CEAR Euskadi

Ez da albiste pozgarria estatu espainiarrean, 2016. urtean, "gorrotoak" bultzatutako 1.272 delitu egin zirela irakurtzea[1].

Eta ez dirudi oso poztekoa denik, ezta ere, 1.272 intzidente horietatik 141 Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu zirela ikustea; izan ere, biztanleriarekiko proportzioari begiratuta, Euskal Autonomia Erkidegoa da *gorroto-delituen* ratio handiena duen autonomia-erkidegoa[2].

Delitu horien izaera zehatzari begiratuta, arrazismokoak eta xenofobiakoak izan dira 141 intzidente horietatik 63, ideologikoak izan dira 39, eta sexu-orientazioan eta -identitatean oinarritutakoak 30. Datu horiek adierazten dute ez dela urrats handirik eman tratu-berdintasuna iristeko bidean.

Baikor izateko itxaropen urria ematen du gizartearen argazki horrek.

Txosten honen beste atal batean adierazi dugun moduan, egia da zuhurtziaz begiratu behar diegula zifra eta datu horiei, polizia-atestatuetan jaso diren intzidenteen berri ematen baitute soil-soilik. Kontuan izan behar da intzidente diskriminatzaile gehien-gehienak ez direla salatzen, eta, ondorioz, ez direla zenbatzen. Jakina da, bestela esanda, diskriminazioaren adierazle diren intzidente asko eta asko izaten direla egunero, baina "intzidente hutsaren" mailan geratzen dira, salatu gabe eta poliziak erregistratu gabe. Salaketarik ez jartzeak zaildu egiten du diskriminazioaren eta gorroto-delituen aurka egiten dugun erakundeon lana, honako arrazoi hauen ondorioz: 1) Alde batetik, estatistikek ez digute

*[1] Barne Ministerioak 2017ko maiatzean argitaratutako zifrak dira, poliziak 2016an gorroto-delituen gainean izapidetu zituen atestatuen gainekoak.*

*[2] Datu absolutuak edo guztizkoak begiratua, gorroto-delituen kopuru handiena duen 4. autonomia-erkidegoa da EAE, Kataluniaren (282), Madrilgo autonomia-erkidegoaren (171) eta Andaluziaren (152) atzetik.*

lurralde bakoitzaren egiazko egoeraren argazki fidagarri bat egiteko aukerarik ematen. 2) Bestetik, salaketa konkreturik gabe, ezin dugu jakin zein diren biktimak, eta, ondorioz, ezin ditugu biktimak babestu (ezin diegu laguntzarik eman, ezin dugu biktimari eraso egin dionarekin lan egin, eta ezin dugu erreparazio edo konponketarik bilatu).

Goian adierazitako datuetan egiten diren analisi kuantitatiboek dituzten gabezien gaineko zehaztapen hori egin ondoren, esan dezakegu beste irudi bat ematen digula errealitatearen analisi kualitatiboak: antzeko “itzalak” dituen argazkia da, eta baikor izateko tarte estua uzten du; baina argazki horrek badu “argirik” ere, bai baitago, tratu-berdintasunaren esparruan, diskriminaziorik gabeko gizartea eraikitzeko bide luzean urratsak ematen ari garela adierazten duen zantzurik.

2016an biktima diskriminatu berariazkoen gainean argitaratu diren albisteen bilduma baten gainean lan egin ondoren, giza eskubideen linterna erabilita egin dugu analisi kualitatiboa, eta analisi horrek itzal gaiztoak proiektatzen ditu, agerian uzten baitu gaur egun eta hemen badela diskriminaziorik. Baina, aldi berean, argi-izpi batzuk igortzen ditu analisiak, diskriminazioari aurre egiten ari garela erakusten baitigu.

Adibide batzuen berri emango dugu, 2016an zehar prentsan, irratian eta telebistan zabaldu diren informazioen erakusgarri.

Itzalekin hasiko gara.

## Irainak eta erasoak itzal

Abuztuan, prentsako titularretan azaldu zen Molinon futbol-zelaia, epaileak geldiarazi egin behar izan baitzuen Xixongo Sporting eta Bilboko Athletic taldeen arteko partidua haren 22. minutuan, talde asturiarraren zaletu batzuek oihu eta irain arrazistak egin zizkiotelako talde zurigorriko Iñaki Williams jokalariari. Tximinoen ahotsak imitatzen zituzten onomatopeiak ziren irainak, eta beltza izateagatik oihukatu zizkioten jokalariari. Sporting taldeak berehala gaitzetsi zituen arrazismo-ekintza lotsagarri horiek, zabalkunde publikoa izan zuen bideo baten bidez.

Hitzen bidezko irainak, baina egunerokoak, salatu zituen ekainean Secretariado Gitano fundazioak; izan ere, romafobiaren edo ijito-herriak pairatzen duen diskriminazio ohikoaren berri eman zuten urteko adierazpenetan (diskriminazio orokortua eta egunerokoa dela deritzote, eta nekez zenbatzekoa dela). Fundazio horrek berak egindako ikerlanek adierazten dute aurreiritziak eta estereotipoak zabaltzen direla komunikabideetan eta interneten, diskriminazioak pairatzen dituztela enpleguak eta alokairuko etxebizitzak eskuratzeko aukeretan, eta, horrez gainera, nabarmentzen dute ijitoen aurkako gorrotoa dagoela gure hiri eta herrietan, kontuan izan gabe legez kanpokoa dela inor diskriminatzea gutxiengo etniko bateko kide delako.

Urriko titularretan topatu genuen “itzal gaiztoen” hirugarren adibidea, Irungo Eskina Mosku tabernako kudeatzailearen ahotan. Pertsona hori, homosexuala izateagatik urtetan pairatu behar izan dituen mehatxuekin eta eraso fisikoen ahaleginekin nazkatuta, jendaurrean azaldu zuen bere egoera, inor ez dadin Euskadin ohitu “maritxua dela entzutera egunero”. Pertsona horren egoera hizpide hartuta, Euskal Herriko Lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarteak baieztatu zuen urtean zehar behera egin duela LGTBI kolektiboari egindako eraso fisikoen kopuruak, baina adierazi zuen kolektibo horrek egunero pairatzen dituela hitzezko erasoak ostalaritzaren sektorean eta beste sektore askotan, hala nola eskoletan.

Gorrotoa adierazteko eta/edo eraso egiteko diskurtsoen hiru adibide ikusi ditugu, baina gorroto-delituek adierazpen asko dituzte. Jende askok besterik uste duen arren, ‘bollerari’, ‘txorizoari’ edo ‘beltzari’ emandako jipoiak ez dira delitu mota horren adierazpen bakarrak. Bestalde, gure “itzalen inbentarioan” hauteman dugu diskurtsoak ere delitu izan daitezkeela, delitu-izaera baitute duintasunaren aurka egin eta arrazoi arrazista edo diskriminatzaileengatik gorrotora, diskriminaziora, indarkeriara edo etsaitasuna adieraztera deitzen baldin badute. Izan ere, 2015ean egin zitzaion aldaketaren ondoren, Zigor Kodearen 510. artikuluak berariaz zigortzen ditu horrelako diskurtsoak.

Edonola ere, eta itzalei begiratuta, berriro azpimarratu behar dugu egia dela, bai, eraso fisikoen kopuruak behera egin duela gorrotoaren diskurtsoen eta hitzezko ekintza diskriminatzaileen kopuruaren aldean, baina horrek ez du esan nahi desagertu egin direnik LGTBI kolektiboko pertsonei, ijito-herriari eta pertsona migratzaile edo errefuxiatuei egindako erasoak.

Esaterako, Gasteizen egitekoa den meskita bati egindako eraso baten berri eman zuten komunikabideek 2016ko martxoaren 15ean eta 16an. Tenplu musulmana hartuko duen lekua eraso zutenek txerrien odolez zikindu zituzten hormak, esbastika bat margotu zuten eta txerri-maskara bat bota zuten lurrera.

Itzala izan zen, era berean, jatorri pakistandarreko gazte bati Katalunian egin zioten polizia-kontrola, bere etnia-profilari begiratuta (hori gertatzen da poliziak norbait bere itxuragatik kontrolatzen duenean, eta ez egin duenagatik). Pertsona horrek erreklamazio bat jarri zuen Barne Ministerioan, Polizia Nazionaleko agente batek identifikazioa eskatu ziolako, agenteak berak adierazi zion arrazoi honetan oinarrituta: “Beltza zarelako eskatzen dizut dokumentazioa, eta kito”. Konstituzio Auzitegiak ez zuen onartu Auzitegi Nazionalak emandako sententziaren aurka jarritako babes-errekurtsoa, auziak ez duelako, haren iritzian, konstituzio-izaerako mailarik (Auzitegi Nazionalak ezetsi egin zuen erreklamazio-jartzaileak, aurreko auzialdian, Barne Ministerioari kalte-ordaina eskatu ondorengo ezespenari jarri zion administrazioarekiko auzi-errekurtsoa). Gaur egun Giza Eskubideen Europako Auzitegian dago auzia.

## Argiak tratu-berdintasunaren defentsan

Aurreko atalean ikusi dugunari erreparatuta, eta sarreran aurreratu dugun moduan, diskriminazioaren aurkako borroka ez dago, itxura batean, loraldi-egoeran.

Hala ere, badago albiste pozgarririk prentsako albisteen bilduman, tratu-berdintasunaren aldeko lanak erdietsi dituen lorpenen erakusgarri.

Esate baterako, aurreko atalean azaldu dugun polizia-kontrolak erakutsi duen “itzalaren” ifrentzuan, azaroan jakin genuen azal beltz edo ezaugarri fisiko magrebtarreko hamahiru gaztek polizia salatu zutela Frantzian, beren itxura fisikoarengatik geldiarazi zituztelako. Kasu horretan, ordea, Frantziako Kasazio Gorteak, ibilbide judizial luze baten ondoren, arrazoia eman zien demanda-jartzaile guztiei, eta erabaki zuen legez kontrakoak izan zirela pairatu zituzten polizia-kontrol guztiak.

Diskriminazioaren esparruan jarraituta, baina pertsona migratzaileei eta etnia- edo erlijio-gutxiengotako kide direnei erreparatuta, argi bat hauteman zen hemen, Euskal Autonomia Erkidegoan, aurreko irailean; izan ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak gomendio bat bidali zien EAEko ikastetxe guztiei, eta gomendio horrekin aholkatu zien ez eragozteko emakumezko ikasleei zapi islamdarra, hiyab deritzona, eramatea. Eraberean sareak balioetsi egin zuen erlijio- edo kultura-identitate minorizatu baten berezko jantziak eramateko giza eskubidea defendatzeko neurri hori, aurrerako urrats bat baita diskriminazio kulturalaren edo erlijiosoaren aurkako borrokan. Egia da gomendio soil bat izan zela eta ez dela derrigorrean betetzekoa ikastetxeentzat, baina ezin da ukatu jokabide adoretsua izan denik, jarrera bat hartu baita diskriminazio-eragile den gai batean. Kontuan izan behar da, gainera, gaiak polemika politiko eta sozial handia sortzen duela.

Eusko Jaurlaritzak beste jarrera instituzional publiko nabarmen bat erakutsi zuen 2016an, pertsona transexualen aurkako diskriminazioa ekiditeko gida bat argitaratu baitzuen uztailean. Transexualitatea patologien esparrutik kanporatu beharra aldarrikatu zuten Eusko Jaurlaritzako hiru saileko ordezkariek, zehazki, hezkuntzako, gizarte-politiketako eta osasun-alorreko ordezkariek, eta adierazi zuten eskola inklusiboen aldeko apustua egin behar dela, eta, besteak beste, pertsona transexualei laguntza soziala eta emozionala emateko zerbitzuak indartu behar direla. Kaleratutako gidak ez ditu, berez, pertsona transexual heldu eta adingabekoen beharrizanak asebetetzen, baina txalotu beharreko lehen urrats bat izan da.

Eremu geografiko zabalago bati begiratuta, txalotzekoa da, halaber, beste erakunde batek, Gaztela eta Leongo hezkuntza-kontseilaritzak, sei erakunde gaztelarren laguntzarekin onartu duen agindu bat. Agindu hori autonomia horretako aldizkari ofizialean argitaratu da, eta agintzen du eskola-curriculumean unitate didaktiko batzuk barneratuko direla, ijito-herriak Espainiaren eta autonomia-erkidegoen historian egin duen ekarpen handia bistaratzeko. Gaztela eta Leon da ijito-herriaren kultura curriculumean barneratu duen lehen autonomia-erkidegoa, eta neurri horrekin zor bat ordaintzen hasi da, Manuel de Fallaren “*Amor brujo*ć obraren, Velazquezen margolan ugariren eta García Lorcaren poema askoren inspirazio-iturri izan zirenekin dugun zorra, hain justu.

Amaitzeko, eta beste ćargić batzuen bila gabiltzala, gehiago zabaldu dugu argazkiaren objektiboak hartzen duen eremua, eta ikusi dugu Facebook, YouTube eta Twitter enpresek maiatzaren 30ean jokabide-kode bat izenpetu zutela Europar Batasunarekin, «gorrotoaren hizkuntza» geldiarazteko Interneten. Informazioaren teknologien sektoreko enpresa handiek beren gain hartutako erronka

handienetako bat izan da 24 ordu baino gutxiagotan aztertuko dituztela jakinarazitako alerta gehienak eta, premiazkoa baldin bada, ezabatu edo blokeatu egingo dituztela edukiak.

## Argiak eta ilunak balantzean

Laburbilduz, argiak eta ilunak, biak ageri zaizkigu argazkian. Diskriminazio-egoerak gertatu dira, baina ez dute tratu-berdintasunaren esparruan erdietsi diren gizarte-lorpenak deuseztatu; hala ere, lorpen horiek ez dute diskriminazioa egungo gizartetik epe jakin batean desagerrarazteko adina indarrik.

Erasoak egin zaizkie migratzaileen eta errefuxiatuen kolektiboei, LGTBI kolektiboari eta ijito-herriari, eta salatzeko egoerak dira horiek guztiak. Halakoak pairatu izan dituzte Iñaki Williamsek beltza izateagatik, ostalari irundarrak homosexuala izategatik, pertsona ijitoak enplegua edo bizitzeko etxebizitzak bilatzen ari zirenean, Gasteizko komunitate musulmanak, eta polizia-kontrol batean geldiarazia izan zen gazte pakistandarrak, baina ez zituzten beren gorputzaren azalarengatik, sexu-identitatearengatik, jatorriarengatik, kulturarengatik, erlijio-sinesmenengatik edo ezaugarri fisikoengatik jasan zituzten diskriminazio horiek pairatu behar.

Birus bat da diskriminazioa eta, 2016an, hura geldiarazteko ekimen batzuk abiarazi dituzte instituzioek. Bide horretan saiatu gara, baita ere, tratu-berdintasuna defendatzen eta sustatzen dugun erakundeok. Alor juridikoan, sententzia batek adierazi du legez kontrakoa dela pertsonak modu arbitrarioan atxilotzea beren fenotipo-ezaugarriengatik. Komunikazioaren eta sare sozialen esparruan, jakin dugu Facebook, Twitter eta YouTube enpresek neurriak hartu dituztela gorrotoaren diskurtsoen aurka. Hezkuntza-eremuan, hiyab zapia daramaten ikasle musulmanak ez diskriminatzeko gomendio bat eman zaie ikastetxeei, transexualen aurkako diskriminazioari aurre egiteko gida bat argitaratu da, eta kultura ijitoak tokiko kultura-ondareari egin dion ekarpena bistaratzeko arau bat eman da.

Diskriminazioaren laino beltzek gizartearen dibertsitateari eraso egiten dioten arren, azken egoera horiek eta beste batzuek ostarteak eta argi apur bat dakarzkigute.

# lanean tratu berdina izateko eta diskriminaziorik ez jasateko eskubidearen babesa, prebentzioa eta sustapena

**Manuel Velázquez**
Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskaria
Diskriminazioaren eta Jazarpen Moralaren Euskal Behatokiko kidea

## 1. Lanean tratu berdina izateko eta diskriminaziorik ez jasateko eskubidea

Tratu berdina izateko eta diskriminaziorik ez jasateko eskubidea jasota egon da beti lan-arloko legedian, Langileen Estatutuaren 4.2.c) artikuluak definitzen duen oinarrizko eskubidearen barruan, zeina zehatzago garatzen baita lege horren beraren 17. artikuluan.

Eskubide horren arauketak bultzada eta hobekuntza handia izan du Europar Batasunaren zuzentarauen ondorioz, bereziki 200/78 Zuzentarauaren ondorioz, zeinaren transposizioa 62/2003 Legearen bidez egin baitzen, eta, besteak beste, barruan jasotzen baitu arraza- edo etnia-jatorriagatik eta sexu-orientazioagatik lege horren 28. artikuluan deskribatzen den moduan diskriminatzeko debekua, diskriminazioa zuzenekoa izan, zein zeharkakoa edo jazarpenezko jokaeren bidezkoa.

*Pertsona bati, berariaz debekatuta dauden arrazoietako batengatik, antzeko egoera batean dagoen beste bati baino tratu txarragoa ematen bazaio, diskriminazioa zuzena dela ondorioztatzen da. Lan bera egiteagatik pertsona batzuei eta bestelako batzuei soldata bera ez ematea izan liteke adibide arruntenetako bat.*

*Zeharkako diskriminazioa dagoenean, ordea, klausula konbentzional edo kontratuzko batek, banako itun batek edo alde bakarreko erabaki batek, itxuraz neutroa izan arren, berekin ekar diezaioke desabantaila berezi bat pertsona bati beste batzuen aldean arraza- edo etnia-jatorriagatik, erlijioagatik edo sinesmenengatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo sexu-orientazioagatik, betiere ez badio objektiboki erantzuten bidezko xede bati, eta xede hori lortzeko bitartekoak egokiak eta beharrezkoak ez badira.*

Zeharkako diskriminazio mota ohikoenean, zereginak edo lan-araubidea kolektibo jakin batzuentzat bereizten dira, zeinen ezaugarria baita bestelako generoa, etnia-jatorria, adina edo beste edozer izatea, hori arrazoia izanik pertsona horiei tratu txarragoa emateko antzeko edo pareko eginkizuna betetzen duten gainerako pertsonei baino. Adibide arrunta litzateke tratu konparatiboki txarragoa ematea denbora partzialeko lana duten pertsonei, horiek gehienbat emakumeak izanik, edo arraza, egoera edo jatorri etniko jakin bat duten pertsonen txandari sistematikoki egokitzea lanik nekosoenak.

> *Hirugarren adierazpidea diskriminazio-xedeak dituen jazarpena da, zeina, legearen arabera, nahi izatekoa ez den jokaera oro baita, zerikusia duena pertsona baten arraza- edo -etnia-jatorriarekin, erlijio edo sinesmenekin, desgaitasunarekin, adinarekin edo sexu-orientazioarekin, helburua edo ondorioa izanik haren duintasunaren aurka egitea eta ingurune larderiazko, apalgarri edo iraingarria sortzea.*

Jokabide zehatz eta behar bezain garrantzitsu batek lege-ondorioak izan ditzake berez, hala nola duintasuna behar bezala aintzat hartua izateko eskubidearen aurka egiteak, zeina Langileen Estatutuaren 4.2.e) artikuluan jasota baitago. Jazarpenak edo esesteak, berriz, ezaugarri du pertsona baten edo koordinatuta diharduten pertsona batzuen jokabide iraingarri, jarraitu, behin eta berrizko eta larritasun txikiagoko ekintzaz osatua izatea, baina ekintza horiek, orokorrean hartuta, modu berean egitea duintasunari zor zaion begirunearen aurka.

Jasaten duten pertsonek daukaten osotasun fisikorako eskubidearen aurkako erasoa ere bada jazarpen diskriminatzailea, horrelako jokaeren ondorioz gaixotasun psikikoak izateko arrisku handiagoa dutelako (Rospenda, 1998).

Jatorri etnikoagatik edo sexu-orientazioagatik egindako jazarpen diskriminatzailearen aurkako salaketa eta demanden indizea oso txikia izan arren gero aipatuko ditugun zenbait arrazoirengatik, ikerketa batzuek frogatu dute enplegatu horien artean handiagoa dela horrelako jokabideak jasateko arriskua beste kolektibo batzuetan baino (Drydakis 2014).

## 2. Diskriminazioaren aurkako legezko erantzun erreaktiboa

Legediak botere publikoen (Administrazioaren eta auzitegien) erreakzioa aurreikusten du, legeetan berariaz aurreikusitako arrazoietako batengatik lanean diskriminaziorik ez jasateko eskubidearen urratze frogatu, egiazko eta eraginkor bat gertatzen denean.

Erreakzio hori eskubidea zuzenean, zeharka edo lehen deskribatutako moduan gertatutako jazarpenezko jokaeren bidez urratzen denean gertatzen da.

Laneko Agintaritzak jokaera horiek guztiak zigor ditzake neurri berean Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak proposatuta. Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legeak lan-arloko oso arau-hauste astuntzat jotzen ditu jokaera horiek (8.12 eta 8.13 bis artikulua), eta 6.251 eurotik 187.515 eurora bitarteko isunak jartzea eragin dezakete. Zigor-erantzukizuna ere eragin lezakete diskriminazioaren errepikapena berezia den kasuetan (Zigor Kodearen 314. artikulua), edo jazarpenezko jokaera astuna denean (Zigor Kodearen 173. artikulua).

Era berean, jokaera horien ondorioz auziak jar daitezke lan-arloko jurisdikzioan, goian deskribatutako lan-eskubideen urraketak eragindako kalteen eta galeren kalte-ordaina edo eskubideen berrezarpena lortzeko.

Lege-ondorio horiek gerta daitezen, nahitaezkoa da eragindako pertsonek gertaerak Lan Ikuskaritzan edo jurisdikzio-organoetan salatzea, eta geroago organo horiek gertatutakoak egiaztatzea, erabakitzeko zein diren urraketak eta zigorrak, zer eskubide berrezarri behar diren eta kasu bakoitzean zer kalte eta galera ordaindu behar diren.

Hori da, hain zuzen ere, jatorri etnikoagatik eta sexu-orientazioagatik berdintasunerako eskubidea urratzen duten jokaerek legedian aurreikusitako ondorioak izan ditzaten dagoen eragozpenik handiena, oraindik ere orokorra delako jokaera horiek ezkutatzea.

Europar Batasunaren esparruko inkesta nazional gehienek adierazten dute LGTB kolektiboko langileen ehuneko hamar eta hogei artean jazarpen-egoerak jasaten dituztela lanean, eta hori bereziki kezkagarria da langile horietako askok beren izaera jendaurrean ez zabaltzea aukeratzen dutelako lanean diskriminaziorik edo jazarpenik ez izateko. Horregatik, kolektibo horretako pertsonak ez dira ausartzen jasaten duten diskriminazioa salatzera, jendaurrean identifikatuak izateari dioten beldurragatik, edo konfiantza ez izateagatik agintariek eman diezaieketen babesean (Eurofound, 2016).

Antzeko zerbait esan liteke gizartean arraza- edo etnia-jatorriagatik baztertuta dauden beste kolektibo batzuei buruz, ia-ia ez baitute salaketarik edo auzirik jartzen administrazio- edo jurisdikzio-instantzietan.

Horregatik guztiagatik, badirudi printzipioz nahitaezkoa dela beste jardunbide eraginkorrago eta prebentziozko batzuk bilatzea, eta berdintasunerako eskubidearen urraketa gertatu aurretik abian jartzea.

## 3. Laneko jazarpen diskriminatzailearen prebentzioa

Adierazi den bezala, jazarpen diskriminatzailea ohikoena da kolektibo horietan, eta bereizgarri du erasoak alderdi anitz izatea, aurka egiten duelako besteak beste berdintasunerako, osotasun moralerako, intimitaterako eta osotasun fisikorako eskubideen aurka, Konstituzio Auzitegiak, sexu-jazarpena izan zen kasu batean, emandako 106/2011 epaian adierazi zuen bezala.

Osotasun fisikoaren aurka egitean, jazarpena arrisku ere bihurtzen da osasunarentzat, lanaren ondoriozko arrisku, eta enpresaren betebeharra da arrisku hori prebenitzea eta saihestea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera.

Prebentzio-betebehar horrek pertsonen osasunari kalte egin diezaioketen jokaera guztiak bildu behar ditu, eta prebentzio-jardun hori, zehazki, arrisku psiko-sozialak direlakoen kudeaketaren barruan egongo litzateke.

Diskriminazio- eta jazarpen-egoerak hautemateko erabil daitekeen teknika arrisku psiko-sozialen ebaluazioa da, zeinean ezinbestean lantokiko langileen arteko harreman sozialak aztertu behar baitira, ebaluatzaileak interakzio- eta komunikazio-teknikak erabiliz horretarako (galdetegiak eta elkarrizketak), langileek zer-nolako pertzepzioa duten jakiteko.

Enpresa baten lantaldea osatzen duten pertsona batzuekiko tratu sozial diskriminatzailea arrisku psiko-sozialen ebaluazioan azal daitekeen egoera bat da. Hala ere, kasu horretan ere da beharrezkoa eragindako pertsonek egoera horren berri ematea ebaluazio-prozesuan.

Eragindakoek egoera ezkutuan gordetzen badute, ebaluazioak ez du balio egoera hori agerian jartzeko, eta berriz ere arazoari aurreko egiteko eraginkortasun urriko kale itsu batean sartuko gara. Hortaz, arazoari heltzeko beste bide batzuetara jo beharko litzateke.

## 4. Berdintasunaren sustapena

Diskriminazioari dagokionez, beti alderdi sozial bat duelako premisa da abiapuntua. Gizarte-testuinguru batean orokortutako estereotipo eta aurreiritzietan dago diskriminazioaren jatorria, baina haiek ez diote bereziki eragiten enpresa bati, enpresa guztiei baizik, diskriminazioaren aurkako arloko Aditu Sozio-ekonomikoen Europar Sareak dioen bezala (SEN) (2010).

Horregatik guztiagatik, egokiagoa da laneko diskriminazioaren prebentzioa abian jartzea, politika sozialak bezala enpresa-arloko politikak ere ezarriz, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzen eta bermatzen saiatzeko.

Hori da 2002/73 Zuzentarauan eta Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoan jarraitutako ildoetako bat, helburu horretan aurrera egiteko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planak onartuz, 250 langile baino gehiago dituzten enpresetan nahiz negoziazio kolektiboan hala jasota daukatenetan (3/2007 Lege Organikoaren 45. eta 46. artikuluak).

Plan horien helburua berdintasuna sustatzea da, eta horren ondorio dira ekintzak egitea aurreiritziak eta estereotipoak desagerrarazteko, diskriminatutzat jotzen diren kolektiboekiko tolerantzia- eta errekonozimendu-kultura sortzea eta helburu zehatzak dituzten planak ezartzea, parekotasuna lortzeko

gizonen eta emakumeen artean lan-esparru guztietan, kontrataziotik hasi eta lanbide-prestakuntza- eta -sustapenera arte, zuzendaritza-postuetan aritzea baztertu gabe.

Badaude, halaber, lege-aurreikuspen batzuk desgaitasuna dutenen laneratzea sustatzeko; izan ere, ehuneko biko gutxieneko kontratazio-kuota bermatzen zaie 50 langile baino gehiago dituzten enpresetan (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua).

Era berean, aurreikusteko modukoa da etorkizun hurbilean adina kudeatzeko planak ezarriko direla enpresetan, pertsonen berdintasuna sustatzeko denbora-kontu hori gorabehera, Europako gizarte-mintzaideek berriki (2017ko martxoaren 8an) zahartze aktiboari eta belaunaldien arteko ikuspuntuari buruz sinatutako Esparru Akordioan jasotakoaren arabera.

Indarreko legediak xedatua gorabehera, izandako zenbait ekimen aurreko horretatik harago joaten eta “dibertsitatea” sustatzen ahalegindu dira, balio positibotzat jotzen baitute, eta erakunde guztiek partekatua izan beharko lukeela uste baitute; gainera, laneko diskriminazio mota guztien prebentzioa kontuan hartu beharko luke.

Alde horretatik, 2016an, Europar Batasuneko zenbait erakundek ekimenak izan dituzte sexu-orientazioagatik ez diskriminatzea eta tratu-berdintasuna sustatzeko, baina zenbait estatu aurka eta uzkur agertu dira, eta, horrenbestez, ezin izan da akordiorik lortu gauza zehatzak egiteko.

Alemania, Holanda, Irlanda, Grezia, Espainia eta Danimarkako sindikatuek, ugazaba-elkarteek eta beste instantzia batzuek LGTB kolektiboaren berdintasuna sustatzeko egindako kanpainak nabarmendu ditu Eurofound fundazioak.

Uste dut esparru horren barruan kokatzen direla Eraberean Sarearen eta beste elkarte batzuen jarduerak, berdintasuna sustatu nahi baitute babesa eta laguntza jasotzea merezi dutela uste duten kolektiboentzat, jokaera diskriminatzailerik jasan ez dezaten gizartean bezala lan-munduan ere.

# 3
# Eraberean sarearen jarduna 2016an

# 3. Eraberean sarearen jarduna 2016an

Txosten honen hasieran adierazi bezala, beraren helburuetako bat Eraberean sareak 2016an egin duen lanaren alderdirik esanguratsuenak jasotzea da.

Bi multzotan bana dezakegu sareak egindako lana: barrura begirako lana eta kanpora begirako lana.

## 3.1. Barrura begirako lana: egituraketa eta formalizazioa

Dimentsio edo lerro honen helburu nagusia sarearen funtzionamendua hobetzea izan da, hura osatzen duten kideen arteko koordinazioa arinduz eta optimizatuz. Hori egiteko, kide bakoitzaren errealitatea zein den kontuan izan da, eta barne-ebaluaziorako prozesu bat bultzatu. Horrela bada, bi lan-saio egin dira, 2016ko abenduan lehena eta 2017ko urtarrilean bigarrena, non sareko kide guztiek parte hartu duten.

Saio horien helburu nagusia izan da aztertzea zer egoeratan dagoen sarea bi urtez funtzionatzen egon eta gero, eta, hori egitean, zehaztea zer ahalmen eta zer muga dituen sareak, jakin ahal izateko zein diren antolakuntza- eta lan-formatu berri bat egiteko gakoak, betiere, sarea osatzen duten kideen benetako aukerak kontuan izanik.

Zenbait dimentsio hartu dira kontuan gai hau aztertzeko eta proposamenak egiteko. Horiek guztiak taula honetan bildu ditugu, labur-labur:

<table>
<tr><td rowspan="5">Egoeraren analisia</td><td rowspan="2">Funtzionamenduaren eta antolamenduaren aldetik zer ahalmen, oztopo eta behar dituen sareak.</td><td>Sarearen xedeari, ikuspegiari eta helburuei lotutakoak.</td></tr>
<tr><td>Barne-antolaketari eta zerbitzuak emateari lotutakoak.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Sarea garatzeko eta sendotzeko erronkak</td><td>Sarearen titulartasunari eta instituzio-ainguratzeari lotutakoak.</td></tr>
<tr><td>Zerbitzuak emateari lotutakoak.</td></tr>
<tr><td>Barne-antolaketari eta erakunde barruko nahiz erakunde arteko koordinazioari lotutakoak.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Ekintza-proposamenak</td><td colspan="2">Sarearen titulartasunari eta instituzio-ainguratzeari lotutakoak.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Zerbitzuak emateari lotutakoak.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Barne-antolaketari eta erakunde barruko nahiz erakunde arteko koordinazioari lotutakoak.</td></tr>
</table>

Ebaluazio-prozesu honen emaitzak ondorioei eta erronkei eskainitako kapituluan azalduko dira modu orokorrean[1].

## 3.2. Kanpora begirako lana

- **1. lan-ardatza: prebentzioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa**

  Lan-ardatz honen helburua gizartea aldatzeko prozesuak bultzatzea da, zenbait programa eta jarduera uztartuz, bai prestakuntzakoak, bai dibulgazio-materialak sortzekoak, bai eta instituzio, gizarte-erakunde eta gizarte zibilari aholkuak ematekoak ere.

- **2. lan-ardatza: arreta, laguntza eta aholkularitza**

  Lan-ardatz hau diskriminaziozko tratu edo gertakari baten biktimatzat edo arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazioak eta genero-identitateak eragindako gorroto-delitu baten biktimatzat har daitezkeen pertsonak edo taldeak zuzenean artatzeari dagokio.

Jarraian, ardatz bakoitzean zer jarduera egin diren zehazten da[2]:

## 1. lan-ardatza: prebentzioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa

Bi batzordek garatu dute lan-ardatz hau: **Informazio eta Dokumentazio Batzordeak** eta **Sentsibilizazio eta Prestakuntza Batzordeak**. Hala ere, batzorde horietako bakoitzaren lan-eremua ez da itxia, eta zenbaitetan elkartu dira proiektu edota jarduera batzuk batera egiteko.

**Informazio eta Dokumentazio Batzordearen** eginkizuna sarearentzako euskarriak sortzea da, bai barne-lanari (diskriminazio-kasuak artatzeko tresnak, adibidez), bai beste eragile batzuekin egiten duen lanari begira ere (sarearen lanaren berri ematea, besteak beste).

Batzordearen eginkizunak dira:

- Sarearen berezko lanerako eta arlo berean lanean ari diren beste eragile batzuen artean nahiz herritar ororen artean zabaltzeko interesgarria izan daitekeen TBDEren arloko informazioa eta dokumentazioa biltzeko *proposamenak egitea.*

---

*[1] 2017ko jarduera-txostenean emango dira emaitzei buruzko zehaztasun gehiago, urte horretan bukatu baitzen prozesua.*

*[2] 2015eko txostenean agertzen zen atal hau mantendu da sarearen jardueraren berri lehenengoz duten irakurle horiek orientatzeko, batzordeen funtzioak deskribatzen baitira bertan.*

- Sareak egiten duen lanari buruzko informazio-jardueren egutegia diseinatzea.

- Sarea hornitzea haren barne-funtzionamendua eta aurkezpen publikoa erraztuko dituen euskarri informatiko batez.

Sarea datu-base eguneratu batez hornitzea, non sareak jorratzen duen gaiaren gain interesa duten eta, hargatik, sarea garatzean haiekin sinergiak sor daitezkeen pertsonen eta erakundeen datuak gordeko diren.A lo largo del 2016 la **Comisión de Información y Documentación** se ha reunido en dos ocasiones, en febrero y marzo, tras las reuniones plenarias. El resto de la coordinación se ha desarrollado en la modalidad on-line.

2016. urtean bi aldiz bildu da **Informazio eta Dokumentazio Batzordea**: otsailean eta martxoan, bietan ere osoko bilkuren ondoren. Gainerako koordinazio-lanak on-line egin dira.

2016. urteko produktu eta jardueren artean, honako hauek azpimarra daitezke:

- Aplikazio informatikoa elikatzea, sarearen funtzionamenduarentzat beharrezkoak diren intereseko dokumentuekin eta informazioarekin. Aplikazio horretarako sarbidea mugatua da, eta antena bakoitzak banakako pasahitza behar du hartara sartzeko.

- Eraberean sarearen jarduerari buruzko 2015eko txostena egitea, zeregin horretarako propio sortutako beste batzorde batekin elkarlanean. Txostena egiteko prozesuan, Informazio eta Dokumentazio Batzordeko kideez gain, sarea osatzen duten hainbat profesionalek hartu dute parte.

- Eraberean sarearen jarduerari buruzko 2015eko txostena Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren web orrian txertatzea.

- Eraberean sarearen jarduerari buruzko 2015eko txostena hedatzea, interes berezia duten zenbait tokitan.

- Sareari buruzko informazio orokorra dakarren materiala hedatzea (haren xedea, hark ematen dituen zerbitzuak, eta hura osatzen duten erakundeekin harremanetan jartzeko datuak) eta sarea bera aurkeztea, interes berezia duten tokietan, hala nola jardunaldietan, jai-guneetan, azoketan, topaketa irekietan, kalean egiten diren jardueretan, ikastetxeetan, hedabideetan, argitalpen espezializatuetan, eta abarretan.

Alde horretatik, sareko erakundeek egindako zenbait jarduera nabarmenduko ditugu:

- CEAR Euskadi: irratian egindako zenbait elkarrizketatan, Eraberean sarea exisistitzen dela esan du Rosabel Argotek, eta sarearen publizitate-materiala ikusgai izan da pertsona errefuxiatuen aurkako diskriminazioari buruzko dokumentazio-gunean, Gasteizko Montehermoso kultur-unean sortutako laborategian.

- GEHITU: Eraberean sareari buruzko publizitatea sartu da Gehitu Magazine aldizkariaren zenbait zenbakitan (ikusi eranskina), eta aldizkari horretan argitaratutako zenbait artikulu-

  tan aipatu da sare*a.*

- GAO LACHO DROM: sarea aurkeztu zaie, elkarteak zer arlotan parte hartzen duen, horietan solaskide izan ohi diren eragileei (Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia, Berritzegunea).

- NEVIPEN: Eraberean sarea ezagutzera eman zen *La Bicicleta Verde* (Bizikleta berdea) filmari buruzko zineforum batean, zehazki, filma ikuskatu ondoren eztabaidatzeko izan zen tartean (ikusi erantsitako horma-irudia).

• Sareari buruzko informazioa emateko zenbait saio antolatu ziren, bai intereseko zenbait esparrutan, bai eta sarean parte hartzen duten pertsona erabiltzaile eta pertsona boluntarioen artean ere. Horretaz gainera, Arabako Gurutze Gorriak sareari buruzko informazioa zabaldu zuen haren zerbitzuetan artatutako pertsona errefuxiatuen artean eta erakundearen informazio-guneaz egunero arduratzen diren pertsona boluntarioen artean.

• 2016ko azaroan, Biltzen zerbitzuak Eraberean sarea aurkeztu zuen Valladoliden egindako prestakuntza-ikastaro batean, estatuko Gobernuaren Osasun, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Ministerioko Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren aldeko Institutuak sustatutako “Berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren kontrako prestakuntza-programa eta gizarte-erakundeetako langile teknikoei zuzendutako prestakuntza-ekintzen antolakuntza” izeneko proiektuaren baitan.

Bestalde, **Prestakuntza eta Sentsibilizazio Batzordearen** eginkizuna prestakuntza-proposamenak eta sentsibilizazio-jarduerak egitea da, horren barruan sartzen direla sarearen berezko ekimenak diseinatzea eta garatzea, eta beste erakunde eta organismo batzuen ekimenekin bat egitea.

Batzordeak, besteak beste, honako funtzio hauek ditu:

- TBDEren arloko oinarrizko prestakuntza-proposamenak egitea, honako hauei zuzenduta:

  diskriminazioaren biktima izan daitezkeen pertsonei, gai honetan lan egiten duten eragile azpimarragarriei, eta gizarte zibilari, oro har.

- Prestakuntza espezializatuaren premiak detektatzea eta aztertzea, eta, horren arabera, prestakuntza plan bat egitea, honako hauek hartzaile izango dituena: sarea osatzen duten erakundeak, erakunde eta administrazio publikoak, gizarte-erakundeak eta iritziak sortu edota ugaltzeko garrantzitsuak diren eragileak (sindikatuak, kultura-erakundeak eta komunikabideak, besteak beste).

Biltzea eta sare osoari ematea estatu espainiarreko beste lurralde batzuetan TBDEren arloan egiten diren prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzei buruzko informazioa.

2016. urtean hiru aldiz bildu da Prestakuntza eta Sentsibilizazio Batzordea. Lehen bi bilerak osoko bilkuren ondoren egin dira. Hirugarren bilera, berriz, berezia izan da, “Prestatzeko Prestakuntza” izeneko programaren baitako prestakuntza-ekintza bat planifikatzeko eta diseinatzeko. Batzorde horren gainerako koordinazio-jarduna on-line egin da.

Batzorde horren 2016an egin dituen jarduera guztietatik, honako hauek dira nabarmentzekoak:

- *Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Oinarrizko Gida* egin da. Gida horren helburu nagusia zerbitzu publikoetako langileak gai horren inguruan sentsibilizatzea izan da. Gida horrek, bidenabar, lagundu egingo die diskriminazio-kasu izan daitezkeenak detektatzen.

- Gidak, sareko zenbait erakunderen ekarpenak jaso dituenak, honako atal hauek ditu: TBDEren oinarrizko kontzeptuak, arau-esparru laburra, Eraberean sareari buruzko informazioa, jarduera-gida eta EAEko baliabide interesgarriak.

- Bestetik, 2015. urtean diseinatutako barne-prestakuntzako planari jarraituz, honako jarduera hauek gauzatu dira:

  - Prestakuntza-beharren **diagnostiko** bat.

  - **Komunikazio Ez Bortitzaren** (KEB) inguruko prestakuntza-ekintza bat, sarearen parte diren erakundeentzako etengabeko prestakuntza-programaren baitan.

  - Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren inguruko zenbait jakintza-arlo landu dituen prestakuntza-ekintza bat, “**Prestatzeko Prestakuntza**” programaren barruan egindakoa.

**Prestakuntza-beharren diagnostikoa** egiteko, inkesta bat egin zaie hiru ikuspegietako ordezkari diren profesionalei. Bi galdera-sorta egin zaizkie. Lehen sortan, ordura arte jasotako prestakuntzak balioetsi ziren. Bigarrenak, berriz, profesionalen prestakuntza-interesak identifikatzea zuen helburu, haien zereginak hobeto gauza zitzaten.

Oro har, inkestan parte hartu zutenek honako gai hauen gainean egin zituzten ekarpenak:

- Prestakuntza espezializatua. Adibidez: diskriminazioaren eta gorroto-delituen arloko prestakuntza juridiko espezifikoa, eta jarduera-eremuetan sakontzea eta prestakuntza espezifikoa ematea (etxebizitza, enplegua, ondasunak eta zerbitzuak, eta abar).

- Prestakuntza praktikoa, artatutako kasuetan zuzenean oinarritutakoa. Aldian behin egindako mintegietan emango litzateke prestakuntza hori, eta mintegi horietan sareko profesionalek aukera izango lukete bai zalantzak planteatzeko, bai ezagutzak elkar trukatzeko bai eta elkarrekin ezagutza eraikitzeko ere.

- Errealitatea eta prozedura juridikoak hobeto ezagutzeko prestakuntza, artatutako hiru kolektiboak bilduko lituzkeena, antena bakoitzaren espezialitatetik harago.




KOMUNIKAZIO EZ-BORTITZARI BURUZKO MATERIALAREN DIAPOSITIBA BAT

**Komunikazio Ez Bortitzari buruzko prestakuntzak, Bilbon 2016ko ekainean izandakoak bi helburu nagusi izan zituen. Alde batetik, sareko profesionalei ezagutzak ematea, pertsona artatzailearen eta artatuaren arteko** *laguntza-harremanean oinarritutako komunikazio-trebetasunak.*

*Eta, bestetik, antenak prestatzea, gai izan daitezen haien taldearen erreferentziazko pertsona izateagatik baldintzatuta sentitu gabe erantzuteko, eta aholkuak ematen dituen pertsonaren jarrera profesionala hartzeko.*

Prestakuntza-jarduera hori zazpi ordu eta erdiko jardunaldi batean eman da, eta 20 pertsonak hartu dute parte. Jarduera horren programa dokumentu honi erantsi diogu.

**Prestatzeko Prestakuntza** ekintza, berriz, 2016ko udazkenean izan da, bi jardunalditan: urriaren 27an eta azaroaren 3an. Ekintza horretan zenbait eduki landu dira, hasi orokorrenetatik (kontzeptu juridikoak, araudiak, jurisprudentzia) eta buka Eraberean sarearen berezko eduki zehatzetan. Ekintza horretan parte hartu duten 24 pertsonak sarearen parte diren erakunde eta instituzioetako profesionalak dira, bat izan ezik (prestakuntzako edukietan interesa duen kanpoko erakunde bateko profesional bat).

Eraberean sareko erakundeetako profesionalak arduratu dira aipatu prestakuntza hori emateaz.

Jardunaldi horren programa erantsi diogu dokumentu honi.




DISKRIMINAZIOA
ERABEREAN SAREAN
IZENEKO MATERIALAREN
DIAPOSITIBA BAT

**Prestakuntza eta Sentsibilizazio Batzordearen** jarduerari buruzko atal hau bukatzeko, aipatu beharra dago Eraberean sareko profesional batek (Biltzen taldeko profesional batek) parte hartu zuela Malaga eta Valladolid hirietan 2016ko azaroan egindako prestakuntza-ikastaro bat diseinatzeko prozesuan, estatuko Gobernuaren Osasun, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Ministerioko Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren aldeko Institutuak sustatutako "Berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren kontrako prestakuntza-programa eta gizarte-erakundeetako langile teknikoei zuzendutako prestakuntza-ekintzen antolakuntza" izeneko proiektuaren baitan. Eraberean sareak bi ekintza hauen bidez lagundu du aipatu prestakuntza hori diseinatzen:

- Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako gaietan zer prestakuntza-behar dauden diagnostikatzeko dinamika bat babestea;
- Prestakuntza-jardunaldiko programa egiten parte-hartzea.

## 2. lan-ardatza: arreta, laguntza eta aholkularitza

Laneko ardatz horren baitan uztartzen dira, alde batetik, Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordeak egindako lana, eta, bestetik, diskriminazio-kasuak izan daitezkeenak detektatzeko eta horiek artatzeko orduan antenek egindako lana.

**Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordearen** egitekoa antenei laguntza ematea da, horiek artatzen dituzten diskriminazio-kasuen kudeaketa teknikoa eta juridikoa egiteko orduan, organo juridiko espezializatua den aldetik.

Batzordeak 2016an izan dituen eginkizunen eta gauzatu dituen jardueren artean, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Kasuak aztertzea eta kasu bakoitzean zer estrategia juridikori jarraitu behar zaion proposatzea. Hori egitean, juridikoki garrantzi gehien izan duten kasuak balioetsi ditu, eta, hala egokitu baldin bada, jarraibide bereziak ezarri ditu.

- Antenek artatutako diskriminazio-kasuen artean, estrategikoak izan daitezkeen horiek detektatzea, hau da, irizpideetan, arauetan edo interpretazioetan aldaketarik eragin ditzaketen horiek, eta onuragarriak izan daitezkeenak ez soilik zuzenean erasandako pertsonarentzat edo taldearentzat, baizik eta kolektibitate oso batentzat.

- Proposamenak egitea diskriminazio-gertakarien aurrean pertsonei ematen zaien arreta edo aholkularitza juridikoa hobetzeko.

- Prestakuntza Batzordeari prestakuntza juridikoari buruzko proposamenak egitea.

- Prestatzaile bezala parte hartzea Prestakuntza Batzordeak antolatutako prestakuntza-ekintzetan.

- TBDEren arloko dokumentazio juridiko espezializatua bilatzea eta eskaintzea (jurisprudentzia, Europako araudia, nazioarteko estandarren aplikagarritasuna, eta beste batzuk).

- Euskal Herriko Unibertsitateko Klinika Juridikoaren moduko esparruetan parte hartzea. Alde horretatik, sareko bi profesionalek 2016ko azaroan antolatutako lan-jardunaldi batean parte hartu dute. Jardunaldi horretan, Eraberean sarean artatutako zenbait kasu azaldu dira, jardunaldian parte hartu duten ikasleek kontuan izan ditzaten EHUko Abokatutza masterreko programaren tesirako edo gradu amaierako lanetarako ikerketak egiteko orduan.

- Diskriminazioaren Biktimei Laguntza Emateko Protokoloa berrikustea. 2016an, batzordea protokoloa berrikusten aritu da etenik gabe. Horretaz gainera, protokoloa eguneratu eta hobetu da, batzordea osatzen duten erakunde sozialei tresna bat eskaini nahi baitzaie, koordinazioa hobetzeko lagungarri izango dena, eta jarduera-ereduak eskainiko dituena diskriminaziozko tratu edo gertakari baten edo gorroto-delitu baten biktima izan diren pertsonei edo taldeei laguntza emateko.

**Oinarrizko printzipio** hauek zuzentzen dute antenen lana diskriminaziozko tratu edo gorroto-delitu baten biktima diren pertsonak edo taldeak **zuzenean artatzeko** orduan:

- **Pertsona da arretaren ardatza.** Arreta berezia jarriko da diskriminaziozko tratu edo gertakari bat izan den kasuetan, berdin banakakoak edo taldekoak izan. Kasuak banaka aztertzen dira, jarduera-estrategia desberdin bat diseinatzen da kasu bakoitzarentzat, eta hura martxan jartzen da baldin eta kaltea hartu duen pertsonak edo taldeak hala nahi badu eta horretarako baimen informatua ematen badu betiere. Ahal dela, gatazkak elkarrizketaren bidetik konpontzea proposatuko da, baina ez da baztertuko bide judizialetik jotzeko aukera, baldin eta bide hori guztietan egokiena dela iritzi bada.

- **Konfidentzialtasuna.** Konfidentzialtasun-printzipioak babesturik egongo dira diskriminaziozkoak izan daitezkeen kasuen inguruan egiten diren kontsulta guztiak eta kasu horietan ematen diren arreta guztiak. Isilpean gorde beharreko informazio edo datutzat hartuko dira diskriminaziozko elementuren bat izan dezaketen kasuei, kontsultei edo kexei buruzko informazio eta datu guztiak, eta Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan xedatutakoari jarraituz tratatu beharko dira.

- **Inpartzialtasuna eta kontraesana.** Tartean diren pertsona guztiei inpartzialtasunez entzungo zaiela eta bidezko tratua emango zaiela bermatu behar du diskriminazio-kasuetan laguntza emateko prozedurak.

- **Objektibotasuna**. Eraberean sarearen parte diren erakunde guztiek zuzenean arreta ematen dutenean, ahal dela, gertakariak deskribatuko dituzte gertakari horietan tartean izan diren pertsonek azaldu duten bezalaxe, eta adieraziko da zer egoeratan gertatu diren, zer pertsonak hartu duten

kaltea, diskriminazioa zer arlotan gertatu den, lotutako oinarrizko eskubideetatik zein ukitu ahal izan diren, eta tartean diren elementu garrantzitsu guztiak.

- **Lankidetza eta koordinazioa.** Sarearen beraren egituragatik eta helburuengatik, ezinbestekoa da hura osatzen duten erakundeak koordinatzea eta lankidetzan jardutea.

- **Normalizazioa**. Diskriminaziozko tratu edo gertakarien edo gorroto-delituen biktimak zuzenean artatzeko orduan, lehendik dauden zerbitzu normalizatuetara jotzea eta horiek erabiltzea sustatuko da (Biktimari Laguntzeko Zerbitzua eta Orientazio Juridikoko Zerbitzua, beste batzuen artean).

Eraberean sarea osatzen duten erakundeek 2016an beren arreta-, laguntza- eta aholkularitza-zerbitzuak herritarren esku jarri baldin badituzte ere, jarraian emango ditugun datuek ez dute islatzen arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazioak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioaren EAEko errealitatea. Izan ere, datu horien analisi kuantitatiboa egitean, ezin dugu ahaztu sareak bi urte baino ez dituela eta, oraindik ere, egituratze- eta antolatze-fasean dagoela (beste lan batzuk egin dira aurkezpen-, hedatze- eta prestakuntza-arloetan, elkartearen barruan zein elkartetik kanpo, baita barne-ebaluazioko beste lan batzuk ere, beharrak eta hobekuntza-jarduerak identifikatze aldera). Era berean, nahiz eta sarearen ibilbidea lehen baino pixka bat luzeagoa izan, eta zenbaki orokorrak iazkoak baino handiagoak izan badira ere, agerikoa da sareak informazio- eta sentsibilizazio-lan handia duela

**Artatutako kasuak, guztira**



oraindik egiteke, arik eta diskriminaziozko tratu edo gorroto-delitu bateko biktima izan ahal izan diren pertsona edo talde guztiek gertatutakoa sala dezatela lortu arte.

Arestian aipatutako guztia kontuan izanik, 2016an Erabereaneko antenek **49** kasu artatu dituzte guztira.

Erakundeek erregistratu eta artatutako kasu guztien % 73 arrazakeria- edo xenofobia-kasuak izan dira, hau da, nazionalitate, jatorri edo etnia jakin batekoa izateak eragindako diskriminazio- edo gorroto-kasuak. Artatutako kasuen beste % 27a, LGTBIfobia-kasuak izan dira, hau da, sexu- eta genero-orientazio edo -identitateak eragindako diskriminazio- edo gorroto-kasuak. Arrazakeria- edota xenofobia-kasuetatik, 26k migrazioekin lotura dute, eta 10ek ijito-herriarekin (kasu guztien % 53k eta % 20k, hurrenez hurren).

EAE osatzen duten lurralde historikoei dagokienez, lehen aipatutako kasu horiek honela banatzen dira:

**Artatutako kasuak, guztira**
**Lurralde historikoaren arabera**




Ez dago alde handirik lurralde historiko batean eta bestean artatu diren kasuen kopuruen artean, baina desberdintasun handiak daude sarea n irudikatutako ikuspegien artean. Horrela bada, Gipuzkoan ez da ijitoen ikuspegiko kasurik erregistratu; Araban, LGTBI ikuspegiko kasu gutxi izan dira; eta Bizkaian, herritar immigranteen proportziorik handiena duen EAEko lurraldean, immigranteen ikuspegiko oso kasu gutxi izan dira. Antenak ez daude maila berean inplementatuta lurralde historiko guztietan eta baliteke horregatik izatea hain desberdintasun nabarmenak lurraldeen artean.

**2016ko udazkenean, Gipuzkoako udalerri batean. Eraso homofoboak taberna bateko jabeari**

Hedabideen bitartez izan genuen gertakariaren berri. Hortik aurrera, salatzailearekin harremanetan jarri ginen, telefono bidez, informazio gehiago izateko.

Gizonezko bat da, 3 urte daramatza aisialdiko lokal bat gobernatzen, eta irainak jaso ditu bere sexu-orientazioa dela-eta. Haren aurretik emakume bat zen lokal horren jabe, eta hark ere arrazoi beragatik jasotzen zituen irainak.

Gizonak dio enplegaturen batek lokalean lan egiteari utzi diola. Esaten du ez dela gay lokal bat, baizik eta pertsona orori irekitako leku bat. Auzoko kolektibo guztiekin harreman ona duela dio.

"(...) Edalontziak bota izan dizkigute ere. Zenbait bezero beren onetik ateratzen dira eta, gizabidearen kontrako jokabidea izateagatik, establezimendutik atera daitezela eta itzul ez daitezela eskatzen zaie. Hortik aurrera, eskura duten edozer gauza botatzen dizute, marikoi nazkagarri esaten dizute, puta-seme, hilko zaituztela (...) Esaten diguten lehen gauza da marikoi puta batzuk garela, auzoa hondatzen ari garela eta hiesa kutsatzen dugula. Neskei lesbiana puta esaten diete. Guri beti marikoi puta (...)."

Negozioa hartu zuenetik, jarrera horiek onartzeari utzi zion, eta sarrera ukatzeko eskubidea baliatzen du bere establezimenduan.

Irainak hor bukatu beharrean, are gordinagoak entzun behar izaten ditu lokaleko atean; heriotza-mehatxuak esaten dizkiote eta, horien aurrean, salaketak jartzen ditu behin eta berriz. Salaketek eraginik ez dutela esaten du. Udaltzainen arretarik eza eta Ertzaintzaren prozeduren moteltasuna nabarmendu ditu. Erakundeek babesik eta laguntzarik eman ez diotela sentitzen duela esan du. Gainera, kalean esandako irainek eta izandako jarrera erasokorrek zigorrik gabe geratu direla ikusi du. Goraka doan joera hori eteten saiatzeko asmoz, gertakaria zabaldu du hedabideen bitartez.

Eraberean saretik, honako jarduera hauek gauzatzea erabaki zen:

Lehenik, udaleko arduradunekin harremanetan jartzea: bilera bat egin zen eta bilera horretan udaleko ordezkariek adierazi zuten sare sozialen bitartez izan dutela gertatutakoaren berri. Esan zuten, baita ere, bazekitela aldez aurretik bazegoela zonako bizilagunak gogaitzen ari zen talde gatazkatsu bat, baino ez zutela inolako informaziorik jaso mehatxu eta eraso homofoboei buruz. Azaldu zuten udala ahalegin-

du zela, bereziki, hirigintzako hobekuntzak egiten eta segurtasun-neurriak sartzen (kamerak). Esan zuten, baita ere, haserre daudela gizarte-sareetan udalaren kontra esan direnekin. Uste dute beraien esku dagoen guztia egiten ari direla, eta lehenago ekin ez badiote izan da, hain zuzen ere, ez zekitelako egoera puntu horretan zegoela.

Bestetik, Erabereanetik azpimarratu da larrialdi-neurriak ezarri behar direla, segurtasun-berme handiagoak eskaintzeko eta kalte larriagorik eragin dadila ekiditeko. Horretaz gainera, proposatu zaie lan egiteko orduan kontuan izan dezatela tartean diren aldeek parte hartu behar dutela, elkarrizketan nahiz adostasunean oinarritutako ikuspegi batetik. Udaleko ordezkariak laguntzeko prest agertu dira.

Aipatutako ekintza horretaz gainera, gatazkatsu gisa identifikatutako taldearekin bitartekaritza-prozesu bat antolatzeko aukera planteatu da. Horretarako, talde horren komunitatetik gertu dagoen pertsona batekin harremanetan jarri gara. Ekimena ez da bideragarria, harremanetan jarri garen pertsonak ez baitu uste baliozko solaskidea izan daitekeenik era honetako egoera batean jarduteko.

Kasu honi lotutako jarduerek 2017an jarraitzen dute.

Jarrai dezagun 2016an artatutako kasuak aztertzen. Oraingoan, diskriminaziozko tratuaren edo gertakariaren berri zer bidetatik izan den aztertuko dugu:




Kasu gehienetan, kasuen % 57an, kaltea zuzenean hartu duen pertsonak salatu ditu gertakariak sareko erakundeetako batean. Horregatik, jo dezakegu antenak erreferentzia bat direla sarearen eskumenpeko arrazoiengatik eragindako diskriminaziozko tratu edo gertakarien biktima izan daitezkeen pertsonentzat.

Aurreko urtearekin alderatuta, gora egin du sareko erakunde baten ekimenez hasiera eman zaien kasuen kopuruak; % 35 izan dira, guztira. Hazi egin da, batez ere, ijitoen eta immigranteen ikuspegien aldetik.

Pertsona ijitoen kasuan, nabarmena da erakundeek abiarazitako kasuen kopurua (10etik 8). Horren arrazoia da komunitate horretako pertsonek zailtasunak dituztela diskriminazio-kasuak salatzeko, batez ere, egoera hori oso normalizatuta dagoelako pertsona horien artean; biktimek ez dituzte beren buruak halakotzat hartzen, eta, horrenbestez, ez dute uste salatzeko ezer dutenik. Horri gehitu behar zaio, baita ere, pertsona ijitoek arreta eskaintzen dieten elkarteei helarazten dieten beste alderdi bat: ez dira instituzio eta administrazio publikoekin fio salaketa jartzeko orduan. Elkarte horiek, beraz, beren gain hartu behar izaten dute era honetako kasuen kudeaketa, gai honen inguruan komunitateari berari zuzendutako oinarrizko prestakuntza- eta sentsibilizazio-eginkizunak gauzatzen dituzte, eta kalte hartu duten pertsonei orientazioa ematen diete, kasu bakoitzean zer erantzun eta zer prozedura inplementatu behar den jakin dezaten, baita juridikoki ere.

Bestetik, immigranteen ikuspegiari dagokionez, higiezinen zenbait enpresek sarri diskriminatu dituzte pertsona immigrateak etxebizitza bat alokairuan emateko orduan. Horren aurrean, CEAR Euskadi erakundeak erabaki du ezagutzen dituen kasuei sistematikoki heltzea, bi maila hauek besarkatzen dituen jarduera-estrategia baten barruan: alde batetik Eraberean sarea, eta, bestetik, pertsona immigranteek etxebizitza bat eskuratzeko arazo espezifikoaz arduratzen diren zenbait erakunderen inguruan egituratutako eta koordinatutako ekimen bat.

Kasuei hasiera emateko moduari moduarekin bukatzeko, nabarmendu beharra dago oso gutxi izan direla beste erakundeek sareko erakundeetako batera helarazitako kasuak. Etorkizunean egoera hobetzeko asmoz, beharrezkoa litzateke sarea zabaltzea eta beste entitate edota erakunde batzuekin elkarlanean aritzeko sistemak edo protokoloak ezartzea.

Bada txosten honetan nabarmendu nahi dugun beste aldagai bat: artatutako pertsonen profila. Datuak bereizteko orduan, kontuan hartu da pertsona horiek zer eremu geografikotik datozen (hurrengo grafikoan) eta zer sexutakoak diren  (beherago).

## Artatutako pertsonaren profila
## Jatorrizko eremu geografikoa



Artatutako pertsonen jatorriari dagokionez, pertsona horien erdia baino gehiago, % 52, zehatz esatera, estatu espainiarretik datoz; are, LGTBI kolektiboko eta ijito-herriko kasuen % 100 espainiarrak dira[3].

Sareko antenek artatutako pertsona guztietatik jatorriz atzerritarrak diren gehienak Afrikatik datoz (guztizkoaren % 34) eta Afrikatik datozenen artean, erdia (% 17) Afrika beltzetik dator (Kamerun, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Nigeria eta Mali) eta beste erdia (% 17) Magrebetik (Maroko, Aljeria). Ondoren Latinoamerika da (Venezuela eta Nikaragua), % 10arekin. Artatutako pertsonen % 4 Europako herrialdeetatik datoz, Ukrainako herritarrak tartean diren bi kasu izan baitira. Jatorri-herrialdeei begiratuta, artatuena Maroko izan da, banakako sei kasu erregistratu baitira eta zenbait pertsonari eragiten dieten bi kasu (lehena, gorroto-diskurtsoa hedabideetan, nazionalitate espainiarra duen pertsona batek salatutakoa; eta, bigarrena, auzo-elkarte baten protestak eta adierazpena, azken hori kexu baitzen Marokoko Kontsuletxearen menpeko bulego bat ireki behar zelako Marokoko herritarrei aholkuak emateko).

Oro har, ikus daiteke aurreko urteko joerari eusten zaiola, hau da, kasu gehien salatu dituzten pertsonak estatu espainiarrekoak (LGTBI kolektiboa eta ijito-herria) eta Afrika beltzetik zein Magrabetik etorritakoak dira.

**Bilbao, 2016ko martxoa. Eraso arrazista supermerkatu bateko sarreran.**

Gertakariak 2016ko martxoaren 21ean izan ziren, astelehenean, Bilboko supermerkatu bateko sarreran. Jatorriz nigeriarra den gazte batek laguntza eskatzen du, saltokiaren atean eserita. 40-50 urte inguruko gizonezko bat pasatzen da eta garrasika hasten zaio: “Zoaz zure herrialdera! Zer egiten duzu hemen? Hau ez da zure herrialdea (...) Hemendik alde egingo duzu bai edo bai!. Jagolea saltokitik ateratzen da eta ustezko erasotzaileari joan dadila eskatzen dio. Azken horrek garrasika jarraitzen du, eta jagoleari eraso egiten dio ere. Une horretan, saltokitik jende gehiago ateratzen da, horien tartean, kudeatzailea bera. Pertsona horiek poliziari deitzen diote, Ertzaintzako patruila bat bertaratzen da eta erasotzaileari joan dadila eskatzen diote. Patruila joaten da, baita gazte nigeriarra ere. Hortik minutu gutxi batzutara, erasotzailea bueltatzen da eta jotzen saiatzen da, baina une horretan polizia itzultzen da eta galarazten du. Azkenik, Ertzaintzak polizia-etxera eramaten du, eta gazte nigeriarraren datuak hartzen ditu.

---

*[3] Artatutako pertsonen profilari dagokionez (jatorria eta sexua), pertsonak zenbatu dira, ez kasuak. Horregatik, ijitoen ikuspegiaren kasuan, esaterako, 13 pertsona daude, eta 10 kasuak. Izan ere, kasuetako batean pertsona bat baino gehiago izan dira kaltetuak, eta erreferentziazko antenan aurkeztu dira guztiak. Bestetik, adierazten da, baita ere, komunitate osoen gain eragina izan duten lau kasu erregistratu direla (bi, ijito-komunitatean, eta, bi, magrebtar-komunitatean). Hortaz, kasuen kopurua eta artatutako pertsonen kopurua txikiagoak dira ukitutako pertsonen kopurua baino.*

Biktima Eraberean sareko antena batera joaten da, gertakari horren lekuko izandako emakumezko batek eta beste pertsona batek lagunduta; biak ere Gentes del Mundo plataformako kideak. Sare honetako abokatu bat jartzen da haren esanetara, eta salaketa bat jartzera laguntzen zaio.

Akusazio partikularreko idazkia aurkezten da, eta izapidetzeko onartzen da. Epaitegiak akordio batera irits daitezela eskatzen die aldeei. Ertzaintzaren txostenean delitua xenofobiazkoa dela idatzita dago. Erabereanek egiaztatzen du biktimak ez duela nahi akusatua kartzelara joan dadila, eta, horrenbestez, zigorra murriztea adosten da, eta akusatuak gertakariak onartzen ditu, askatasuna kentzeko zigorra eten ahal izateko. Biktimaren abokatuak (Eraberean) bi urteko urruntze-agindua eskatzen du, eta akusatuak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duenez, erantzukizun zibilagatiko kalte-ordaina 600 eurotara murriztea proposatzen da (txosten hau idazteko unean ordaindu da kopuru hori).

Pertsona erasotzailea xenofobia delitu batengatik kondenatzen da.

Kasu horri lotutako beste jarduerei dagokienez, biktimaren egoera administratiboa erregularizatzeko aukera aztertu da (gertakariak jazo zirenean ez zuen agiririk). Erabereaneko abokatuak aukera hori aztertu du, biktimek arreta integrala jaso dezatela lortu nahi baita eta, hala baldin badagokio, egoki den zerbitzu espezializatuari helarazten dio kasua.



Artatutako pertsonen profilarekin jarraituz, nabarmendu beharra dago sareko erakundeetako batera diskriminaziozko tratua edo gertakariak salatzera gerturatu diren pertsonen % 63 gizonezkoa dela, % 35 emakumezko, eta bikoa ez den pertsona bakar bat gerturatu da. Hortaz, emakumezkoen ia halako bi izan da gizonezkoen kopurua. Desberdintasun hori are nabarmenagoa da LGTBI kolektiboan (hiru emakumezko eta bederatzi gizonezko) eta ijito-komunitatean (lau emakumezko eta bederatzi gizonezko). Hortaz, gure buruari galdetzen diogu ez ote duten emakumeek gizonezkoek baino diskriminazio-egoera gutxiago salatzeko joera, eta zein izan daitekeen era askotako diskriminazioa ikusezin bihurtzearen irismena.

**Bilbao, 2015ko abendua. Eraso homofoboa taberna batean.**

Gertakariak 2015ean izan ziren, baina garapen judizial guztia 2016an izan da.

Erasotutako gizonezkoa Bilboko taberna batean dago. Halako batean, haren ondoan dagoen beste gizonezko bati zerbait erortzen zaio lurrera. Erasotutako pertsona makurtzen da, objektua lurretik hartzen du eta ematen dio, eskuaz hankan ukitutxo bat emanez, hura ohartarazteko. Une horretan, aldez aurretik ezagutzen ez duen beste pertsona horrek zera aurpegiratzen dio: "Adizu, ni ez naizela marikoia" (erasoa jasan duen pertsonak adierazten du berari ari zaiola, hori gertatu baino lehen erasotzaileak beste mutil batekin musukatzen ikusi baitu; horregatik esan dio hori). Erasotutako pertsonak homofoboa dela esaten dio, eta, horri erantzunez, beste pertsona horrek ukabilkada bat ematen dio begian. Erasoaren lekukoak badira (laguna eta zerbitzaria), baina elkarrizketaren lekukorik ez da. Hurrengo egunean, erasoa jasan duen pertsona ospitalera joaten da, eta, ondoren, salaketa jartzen du.

Erabereaneko kide batek polizia-etxera laguntzen du erasoa jasan duen pertsona, atestatua zertan den galdetzeko (zerbitzaria lokalizatzea eta erasotzailea identifikatzea) eta salaketa zabaltzen da.

Kasu honetan, horrek badu bere garrantzia, izan ere, hasiera batean lesio-delitu bat bezala izapidetu du Epaitegiak prozedura, eta egitateen narrazioan, ez zen erasoaren alderdi homofobikoari buruzko inolako aipamenik egin. Horrela, egindako errekurtsoa onartu da eta egitateak interesatzen zitzaigun bezala idatzi dira; are, fiskaltzak bat egin du horrekin, eta haren alderdi homofobikoa kontuan izan du erasoa kalifikatzeko orduan.

Diskriminazio-zantzuei dagokienez, eutsi zaio aurreko urteko joerari, grafiko honetan ikus daitekeen moduan:




Artatutako kasu guztien % 94an (46 kasutan) diskriminazio-zantzu argiak izan dira; eta % 6an (3 kasutan) diskriminazio-zantzurik ez dagoela jo da. Are, diskriminazio-kasutzat hartutako 46 kasu horiei dagozkie hemendik aurrera aurkeztuko diren datuak.

**Gasteiz, 2016ko iraila, dantzaleku batean.**

2016ko irailerako kontzertu bat antolatzen ari zela jakin genuen ("Gasteiz Calling" jaialdia) eta bertan parte hartuko zuten taldeetako baten abesti baten letrak oso LGTBIfobikoak zirela; are, LGTBI kolektiboa gorrotatzera bultzatzen zutela, argi eta garbi. Haren abestietako batek, *The day the world turned gay* (Mundua gay bihurtu zeneko eguna) abestiak, zehazki, honela dio: *ahora tenemos invertidos, bujarrones, chaperos, bolleras, transexuales y putos travestis* (orain homosexualak, atzelariak, prostitutu atzelariak, igurtzimariak, transexualak eta trabesti putak ditugu).

ALDARTEk bi gutun bidali zituen Eraberean sareko kide den aldetik, bat dantzalekura eta beste bat Gasteizko Udalera (haren ikurra agertzen baitzen horma-irudian), egoera horren berri emanez eta taldeari eduki LGTBIfobikoko abestirik ez kantatzeko eska ziezaiola eskatuz. Dantzalekuak erantzun positiboa eman zuen, taldearekin hitz egin

zutela esanez arestian aipatutakoa eskatzeko; baita Udalak ere, aipatu eskaera hori helarazi baitzion jaialdia antolatzen duen aretoari.

Sareak uste du esku-hartzea oso positiboa izan dela, eta gauzatutako emanaldia ere aski ona izan zen.

Diskriminazio-motari dagokionez, diskriminaziozkotzat hartutako kasuen % 96 (hots, 46 kasutik 44) zuzeneko diskriminazio-kasuak izan dira. Zeharkako diskriminazio-kasu bakar bat izan da, eta asoziazio bidezko beste bat.



**Gipuzkoako udalerri batean, emakume bati ez diote denda batean sartzen utzi janzkeragatik.**

Emakume bat eta haren senarra merkataritza-gune bateko denda batean sartzen dira. Emakumeak niqab bat darama soinean, gorputz osoa eta aurpegia estaltzen dizkiona. Dendara sartzean, merkataritza-guneko jagolea gerturatzen zaio eta esaten dio segurtasun-arrazoiengatik emakumeak ezin duela dendan sartu aurpegia estalita duela. Jagoleak azaldutako arrazoiak ulertuta, emakumeak eta haren senarrak proposatzen dute gela batera joatea, emakumeak aurpegia bistan utzi eta jagoleak identifika dezan. Jagoleak dendako arduradunari galdetzen dio eta azken horrek ezetz esaten du. Bikoteak, beraz, dendatik atera behar du nahitaez. Haserre, Ereaberean sareko Gipuzkoako antenetako baten bulegoetara joaten da bikotea. Hor, merkataritza-gunera itzul daitezela eta han erreklamazio-orri bat bete dezatela eskatzen diete. Horrela egiten dute. Zenbait aste igaro ondoren, emakumeak gutun bat jasotzen du erreklamazioaren erantzun gisa. Gutun horretan, dendako arduradunak barkamena eskatzen dio gertatutakoagatik.

Kasua CEAR Euskadi Araba elkartearen esku utzi da, janzkera islamikoa izateak eragindako egoeren kudeaketan espezializatzen ari baita. Txosten hau idaztean, bikote hori jatorrizko bere herrialdean dago. Bueltatzen direnean helduko zaio berriz ere kasuari.

Diskriminazioa zer arlotan gertatu den aztertuz gero, kasuen % 93 eremu pribatuan gertatu da, eta % 7, besterik ez, eremu publikoan (hiru kasu).



Eremu publikoan gertatu diren hiru kasu horietatik bik polizia-zerbitzuen jarduerekin lotura dute, eta Afrika beltzetik etorritako pertsonei erasan zaie. Horietako batean, asoziazio bidezko diskriminazio-egoera bat gertatu da; bestean, aldiz, gehiegikeriazko tratua nortasun-kontrol batean, antza denez, *etnia-profilaren araberako* kontrol-irizpide bat oinarri hartuta. Hirugarren kasuan, RTVEko telebista-kanal bat da tartean, eta ijito-komunitateari eragin zaio kaltea.

**Donostia. 2016ko apirila. Asoziazio bidezko diskriminazioa, Nigeriako pertsona bati.**

Salatutako egitateak 2016ko apirilaren 29an gertatu dira. Nigeriako herritar bat bide publikotik zirkulatzen ari da aldi baterako laneko enpresa baten bila, eta, halako batean, udaltzaingo-patruila bat gerturatu zaio. Bi agenteak autotik jaisten dira eta, azalpenik eman gabe, dokumentazioa eskatzen diote. Horietako bat ibilgailuan sartzen da eta bestea salatzailearekin geratzen da. Handik gutxira, bietan lehena autotik ateratzen da eta "arau-hausteagatiko salaketa-agiria" ematen dio, eta jakinarazten diote "modu gogaikarrian eskean aritzeagatik" jarri diotela.

Donostian badira kale-eskean ibiltzen diren Nigeriako pertsona asko. Agenteek aurreiritziz jokatu zuten egoera horretan, uste baitzuten kale-eskean ari zela salatzailea, oinezkoei aldi baterako laneko enpresa baten helbideagatik galdetzen ari zitzaienean. Hortaz, asoziazio bidezko diskriminazio kasu baten aurrean gaude.

## Eremu publikoa



**RTVE Televisión Española erakundeak telebistaz emandako erreportajea, 2016ko azaroaren 25ean, ijito-komunitatea lotzen duena auzo-gatazkekin eta indarkeriarekin.**

RTVE Radio y Telebisión Española erakundearen *Teleobjetivo* izeneko programan, *Vecinos en pie de guerra* (auzokideak borrokarako prest) izeneko erreportajea eman zen 2016ko azaroaren 25ean. Erreportaje horretan, ijito-komunitatearen irudi desitxuratu bat ematen da, bertan azaltzen denaren arabera, direnak baino gehiago baitirudite egoera gatazkatsuekin, gizabidearen kontrako egoerekin, eta indarkeriazko nahiz delinkuentziazko egoerekin lotura duten pertsonak eta familiak. Horretaz gainera, behin eta berriz erabiltzen da estereotipatutako irudiz eta konnotazio deitoragarriz betetako hizkuntza (guda, klanak, familia gatazkatsuak), horrek auzoen arteko liskarrak pizten ditu, eta ikuskizun bihurtzen da.

Gainera, narratzaileak off-eko ahotsean esaten duen hau iraingarria da eta, ondorioz, onartezina: “Euskadin, ijito-klanek izua eragiten dute kokatzen diren auzoetan”.

Orokortze hori erabat okerra da, alderdikoia, estereotiporik okerrenak elikatzen ditu, eta ez dator bat, inondik inora ere, Euskadin normaltasunez bizi eta elkarbizitzan ari diren ijito-familia gehienen errealitatearekin. Arestian aipatu dugunaren moduko baieztapenak egitean, alde batera uzten ari dira bai Espainiako Prentsa Elkarteen Federazioaren Kode Deontologikoan jasotako gomendioak bai eta RTVEren Estilo Liburuan bertan jasotakoak ere.

Eraberean sareak erabaki du lehentasuna ematea Euskadin Ijito Herriaren Sustapen Integralerako eta Parte-hartze Sozialerako Kontseiluan ordezkatutako ijito-elkarteek erantzuteari. Horrela bada, laguntza teknikoa eman zitzaien, Arartekoari, RTVEko Euskadiko lurralde-zuzendariari, eta Ikuslearen, Entzulearen eta Erabiltzailearen Defendatzaileari zuzendutako idazki bana idazteko. Kasu honi lotutako jarduketek 2017an jarraitzen dute.

Eremu pribatuan sortutako egoerak honako kategoria hauetan bana daitezke:




Kasuen % 21 etxebizitzan gertatu da, hau da, etxearen inguruan gertatu da diskriminazio-egintza edo gorroto-adierazpena (eskaileretan, eraikineko atarian, eta abarretan), eta auzokideen arteko elkarbizitzan gertatzen diren egoera gatazkatsuak izan dira, osagai arrazista edo LGTBIfobo bat daukatenak. Kategoria horren barruan sartu dira, baita ere, etxebizitza bat lortzeko orduan izandako diskriminazio-kasuak (jabeak edo bitartekariak). Higiezinen agentziak tartean diren kasuak beste grafiko batean bistaratuko dira, “merkataritzako lokala” izeneko kategorian.

**Bilbao, 2016. Irain homofoboak eta mehatxuak etxebizitza-bloke bateko administrariari.**

Pertsona kaltetuak adierazi du bere komunitatean badirela berekin oso oldarkorrak diren zenbait bizilagun (Alokabide zerbitzuak ostatu emanda). Oldarkorrak dira harekin, batetik, administraria izateagatik eta, bestetik, haren sexu-orientazioagatik.

Adierazi du iraindu, mehatxatu eta hertsatu dutela. Esan diote, adibidez: “Marikoi puta bat zara”, “Non dago marikoi hori?”, “Harrapatzen bazaitut lehertuko zaitut”, “Hartuko zaitut eta aurpegi osoa lehertuko dizut”, “Burua zeharo nahastuta daukazu, txo. Nazka ematen duzu”.

Esaten du 2016ko urtarrilaren 10eko grabazio bat duela, eta grabazio horretan jasota daudela azken irain eta mehatxu horiek. Esaten du, baita ere, badaudela maiatzaren 27an jazotako beste gertaera baten lekukoak.

Adierazten du apirilaren 26an pertsona horiek udaltzaingoei ere irain egin zietela, eta desobedientziaren pean erori zirela (bada egoera horri buruzko polizia-txosten bat) eta egun horretatik aurrera nabarmen hazi dela bai bizilagunek bai berak jasaten duten jazarpena, eta ikus daitekeela nahita egiten dutela, argi eta garbi.

Ekainaren 8an izandako beste gertaera bat aipatzen du. Egun horretan, Ertzaintzari deitu behar izan zion ahozko indarkeria-egoera larri bat salatzeko, bizilagun horiek beraien seme-alabei eragindakoa. Mendeku hartu nahian, bizilagun horiek egitate faltsuetan oinarritutako salaketa bat jarri zioten ekainaren 12an.

Nabarmentzen du, baita ere, komunitatearen kexak jaso ondoren, Alokabide harremanetan jarri dela arazoak sortzen dituzten bizilagun horiekin, eta komunitateko kideek uste dute horregatik jarri zutela gertakari faltsuetan oinarritutako salaketa, argudioak behar baitituzte Alokabideko beren alokairuarekin arazorik ez izateko.

2016ko uztailaren 6an, komunitateak baterako salaketa bat jarri du bizilagun horien kontra.

Kasua jaso eta erregistratzeaz gain, Erabereanek ez du beste jarduketarik egin. Hala ere, txosten honetan kasu hori jasotzea interesgarria izan daitekeela uste da, agertzen baitu zer eratako jazarpen-egoerak bizi dituzten LGTBI kolektiboko pertsonek haien auzoetan edo haien bizilagunen artean, eta nabarmentzekoa da, baita ere, egoera horiek maiztasun handiz gertatzen direla.

Kasuen % 12 enpleguaren eremuan gertatzen da, eta, gehien bat, pertsona immigranteei eragiten die. Pertsona horiek gehiegikeriazko egoeren biktima dira lantokian eta, horrez gain, mehatxu edota irain arrazistak eta xenofoboak jasaten dituzte. Etxeko langileak (etxeko zerbitzua eta zaintza) eta ostalaritzan aritzen diren pertsonak dira, bereziki, kalte gehien hartzen dutenak. Beste bi kasu erregistratu dira, bata LGTBI kolektiboko pertsona bati eragiten diona, eta bestea pertsona ijito bati eragiten diona. Lehenak homofobia zantzuak dituen jazarpena jasan du lantokian. Bigarrenak, aldiz, merkataritzaren sektorean lan egiten du eta, arrazoi arrazisten eraginez, ezin izan du normaltasunez lanean aritu.

Komunikazioaren eta Interneten eremuko kasuei dagokienez, horien % 7an etnia, jatorri edota erlijio jakin bateko zenbait pertsonaren kontra gorroto-mezuak eta informazioak argitaratu dira zenbait euskarritan (egunkari digitaletan eta sare sozialetan). Magrebeko pertsonek pairatu dute, batez ere, gisa horretako diskriminazioa, indarkeria terroristarekin lotzen baitzaie.

Gorroto-adierazpen gehienak inguru digitalean eta hedabideetan gertatzen baldin badira ere, deigarria da guztira lau kasu baino ez direla salatu sarearen aurrean. Horregatik, pentsa genezake era honetako egoerak normaltzat hartzen ari direla, edo horien kontra ezer edo ezer gutxi egin daitekeela uste dela.

Gainerako kasuen % 60 beste eremu batzuetan gertatu da. Grafiko honetan ematen dira horri buruzko zehaztapen gehiago:



Eremu pribatuan gertatutako kasuen % 20 baino gehiago “Zerbitzuak / Merkataritzako lokala” eta “Zerbitzuak / Aisialdiko lokala” kategorietan izan dira, % 23 eta % 21 hurrenez hurren.

“Zerbitzuak / Merkataritzako lokala” kategoriako kasu gehienak higiezinen agentzietan gertatutako diskriminazio-egoerak izan dira, agentzia horiek edo etxebizitzen jabeek ez baitiete etxebizitza alokatu nahi jatorriz atzerritarrak diren pertsonei edo pertsona ijitoei.

**Gasteiz. Higiezinen agentzia batek ez dio Kongoko emakume bati zerbitzua eman nahi “beltza delako”.**

Bi neska, bi lagun, Gasteizko Jesús Obrero ikastetxetik gertu dagoen higiezinen agentzia batera joan dira pisu-bila, eta agentzia horretan esaten diete ez dietela zerbitzurik emango beltzak direlako.

Erabereanek, jarduera-estrategia gisa, gertatutakoa salatu du irrati batean; kaltetua elkarrizketa bat egitera joaten da sareko profesional batek lagunduta. Badago elkarrizketa horren grabazio bat.

Ez gara higiezinen agentziarekin harremanetan jarri.

Bigarren kasuari dagokionez, aisialdiko lokaletan, sarritan izaten dira diskriminaziozko egoerak edo baztertze-egoera usu bortitzak, gehien bat LGTBI kolektiboko pertsonen kontra, baina pertsona ijitoen kontrakoak ere izaten dira.

**Bilbao. 2016ko abendua. Zenbait gazte ijitori taberna batean sartzea galarazten saiatu dira, “ijitoak direlako”.**

Sareko erakunde bateko bazkide eta erabiltzaile den gizonezko batek bera bizi den auzoan dagoen taberna batean izandako gertakari batengatik gaizki sentitzen dela dio.

Haren semea eta beste gazte batzuk taberna horretara joan ohi dira futbol partidak ikustera.

Egun batean, tabernako arduradunak eskatu zien ahalik eta zarata gutxien ateratzeko, ijitoak direnez bezeroak “uxatzen” dizkiotelako. Eskatzen die, baita ere, bila dezatela aurrerantzean partidak ikusteko beste taberna bat. Arduradunak dio ijitoak direnez, berak nahi ez duen itxura bat hartzen ari dela taberna, eta horrek kalte ekonomikoa eragiten diola bere negozioari.

Gazteak bertan geratzen dira partida bukatu arte eta, ondoren, gertatutakoaren berri ematen diete gurasoei.

Erakundeak zenbait neurri har ditzatela proposatzen die familiei eta azaltzen die zer bide dituzten kexak aurkezteko edo epaitegian kasua salatzeko.

Gazteen gurasoek tabernako jabearekin hitz egitera joan eta gertatutakoari buruzko azalpenak eskatzea erabakitzen dute.

Erakundea tabernako arduradunarekin harremanetan jartzen da eta bitartekaritza-saio bat antolatzen du. Horrela, aldeak lokalean bertan biltzen dira baina jendeari harrera egiteko ordutegitik kanpo.

Azkenean, jabeak atzera egiten du, barkamena eskatzen die gurasoei, eta berriz ere baimena ematen die seme-alabei tabernara nahi dutenean joateko.

Merkataritzako eta aisialdiko lokalen ondotik, bide publikoa da jokaera homofobo edo arrazista gehien gertatzen diren tokia (kasuen % 11). Kaleetan, parkeetan eta garraiobide publikoetan izaten dira beren sexu-orientazioa adierazten duten pertsonen aurkako jarrera intoleranteak, edo etnia jakin batekoak diren pertsona immigranteen aurkako arbuio-jarrerak. Are, intolerantzia edo arbuio-jarrera horiek eraso fisiko izatera ere irits daitezke.

Azkenik, badira beste eremu batzuetan eman diren bi kasu. Batean, partikular batek ez dio pertsona bati ibilgailua saldu nahi izan ijitoa delako. Bestean, erreparazio-eskaera egin zen, arrazoi arrazistak tarteko zirela bizitzeko eskubidearen kontra gauzatutako gorroto-delitu batengatik.

Azkenik, bada sareko antenek artatutako diskriminazio-kasuak kuantitatiboki aztertzean kontuan izan den beste aldagai bat: urratutako eskubideak.




Oinarrizko eskubide guztietatik urratuena intimitaterako eskubidea izan da, era horretako kasuak izan baitira sareko erakundeetako batean artatutako kasuen % 41, eta hiru kolektiboei eragin die. Eskubide hori beste eskubide batzuk urratzen diren aldi berean urratzen da maiz. Eskubide urratuenetan bigarrena etxebizitzarako eskubidea da (kasuen % 28) eta pertsona immigranteei nahiz ijito-komunitateko pertsonei eragiten die. Pertsona horien bizilagunek edo gertuko pertsonek (pisukideek edo auzokideek, esaterako) arbuio-jarrerak dituzte haiekiko, eta etxebizitzarako eskubidea urratu zaie, kasu gehienetan, higiezinen agentzien eta jabeen ezezkoa jaso dutelako, arestian ikusi dugun moduan. Merezi du Eraberean sareak gertakari hori ardura bereziaz artatzea, eta baliteke lan-lerro espezifiko bat eskaini behar izatea hiru jarduera-dimentsioetatik (sentsibilizazioa, prestakuntza eta artatzea), ohitura bihurtzen ari baita eta, hein batean, ez da zigortzen ari.

Eskubide urratuenetan hirugarrena osotasun fisikorako eskubidea da. LGTBI kolektiboko pertsonak dira kaltetuenak, izan ere, arestian aipatu dugun moduan, kolektibo hori arrisku berezian da aisialdiko lokaletan edo bide publikoan intolerantzia eta arbuiatze-jarrera bortitzak jasateko. Immigrante-herriko pertsonen aurkako eraso fisikoen kasuak ere erregistratu dira. Kasu horietan, biktimak ezaugarri fenotipikoak izateagatik atzerritartzat edo jatorriz atzerritartzat identifikatu ziren, eta horrek erakusten du aipatu erasoak arrazistak izan zirela, argi eta garbi.

**Bilbao. 2015eko abendua. Erasoa eta irain arrazistak Metroan.**

Egitateak 2015ean gertatu ziren, baina prozedura judiziala 2016an eta 2017an garatu da.

2015eko abenduan, emakume magrebtar bat metroa hartzera doa lanera joateko. Gabonak direnez, jende asko dago nasan. Metroa iristen denean, neska eta mutil talde batek bultza egiten dio metrora sartzeko. Berak bultza egin ez diezaiotela eskatzen die. Une horretan, taldekoak konturatu egiten dira atzerritarra dela. Trenera sartu eta esertzen denean, taldekoek emakumea inguratzen dute, irainka hasten zaizkio eta neskek iletik tiraka egiten diote. Metrotik jaisteko asmoz zirkulu horretatik ateratzea lortzen duenean, mutiletako batek bultza egiten dio eta lurrera erortzen da. Une horretan, metroko eta segurtasuneko langileak joaten dira eta anbulantziari deitzen diote, arta dezan.

Ondoren, biktimak salaketa bat jartzen du. Salatuak zitatuta daude, ikertu gisa deklaratzeko. Eraberean sareak bere gain hartu du abokatu-laguntza ematea eta, jarduerei dagokienez, laguntza juridikoa eman du adostutako izapide judizialetan. Izapideak egin ondoren, eta salaketa gurutzatuak zeudenez, Epaitegiak bitartekaritza judiziala baliatzea eskatu die aldeei, baina ez da akordioa lortu. Azken berri daukaguna da 2017ko ekainaren 5ean ikustaldia egin dela, 74/2017 Epaia eman duela Getxoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3. epaitegiak eta, horren bidez, egileetako bakoitza kondenatu duela Zigor Kodeko 147.2. artikuluan aurreikusi eta zigortutako lesio-delitu arin baten arduradun gisa, eta jo du lege-testu horren beraren 22.4. artikuluan aurreikusitako astungarria gertatu dela.

Ikusi ditugu, baita ere, askatasunerako eskubidea urratu den zenbait kasu. Horietako gehienak pertsona ijitoei lotutakoak dira: merkataritzako edo aisialdiko lokaletan egoteko eskubidea ukatu zaie, merkataritza-transakzioak egiteko eskubidea, eta abar. Horrek guztiak pertsona horien hautatzeko eta mugitzeko askatasuna mugatzen du.

Kasu guztien % 11 baino ez daude loturik lanerako eskubidea urratzearekin (5 kasu)[4]. Datu hori deigarria da, jakin baitakigu eskubide hori maiz urratzen dela pertsona ijitoen eta pertsona immigranteen kasuan, batez ere, etxeko zerbitzuetan eta zaintzaren arloan aritzen diren emakume immigranteen kasuan. Egoera horrek begien bistan jartzen du are lan handiagoa egin behar dela sarea zabaltzeko, non eta kontratazioak baldintza prekarioetan egiten diren sektore horietan, eta kontratatutako pertsonak era guztietako gehiegikeriak eta diskriminazioak jasateko arriskuan diren sektore horietan.

---

[4] *"Lanerako eskubidetzat" hartzen da, lan ordaindu bat izateko eskubideaz gain, bidezko lan-baldintzak eta lan-baldintza onak, hots, pertsonen duintasuna errespetatzen duten lan-baldintzak izateko eskubidea, langabeziaren aurkako babesa izateko eskubidea, diskriminaziorik gabe, soldata-berdintasunez, ordainsari duin batez, gizarte-babesarekin, eta abar.*

Osotasun moralerako eskubidea lau kasutan urratu da (kasu guztien % 9) eta, intimitaterako eskubidearekin gertatu bezala, beste eskubide batzuk urratzen diren aldi berean urratu ohi da hura ere.

Azkenik, bada bizitzeko eskubidea urratu den kasu bat. 2013an izandako gertakari bat da. Jatorriz Nigeriakoa zen emakume bat bahitu, bortxatu eta hil zuen "Shaolin faltsua" izenekoak. 2016an, espediente espezifiko bat irekitzea eskatu zuen hildakoaren familiak, gorroto-delitutzat katalogatu baitzen hilketa. Biktimaren anaiak lan- eta bizileku-baimena eman diezaiola eskatu dio estatu espainiarrari, haren arrebak Nigeriako sendia mantentzen zuela arrazoituta, noizean behin dirua bidaltzen baitzuen eta horri esker lortzen zuten bizirik irautea. Haren arreba hiltzean, diru-sarrera hori desagertu da. Hildakoaren anaiak salbuespenezko bisa eskatzen du arrebaren tokia betetzera etorri nahi baitu, mailarik altueneko diskriminazio-kasu batengatiko erreparazio gisa.

## 3.3. Jarduera osagarriak

Eraberean sarearen jarduerari buruzko atal hau ixteko, adierazi beharra dago, sare osoarentzako planifikatu eta sareko kide guztiek partekatutako jarduerez gain, sareko zenbait kidek beste era batzuetako ekimenak gauzatu dituztela: sailarteko lankidetza-hitzarmenak ezartzea dibertsitatearen aldeko eta diskriminazioaren aurkako politikak zeharkakoak izan daitezen (Biltzen), Europako programetan parte hartzea (SOS Arrazakeria Gipuzkoa), tokian tokiko edo komunitate-mailako sare-estrategiak (CEAR), eta beste batzuk.

Jarrian, jarduera garrantzitsuenetako batzuk deskribatzen dira.

### Biltzen - Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuaren jarduera

Eraberean sarearen logikaren baitan Biltzenek gauzatutako bi jarduera aztertuko ditugu: lehena Biltzenek berak bakarrik gauzatu du, zerbitzu horretan tratu-berdintasunaren alde eta diskriminazioaren aurka egiten den lanaren baitan; bigarrena, berriz, SOS Arrazakeria Gipuzkoa erakundearekin elkarlanean egin da.

### Biltzenek berak bakarrik gauzatutako jarduera

- *Biltzen zerbitz*uaren prestakuntza-eskaintzaren baitan, Aniztasunaren Polizia Kudeaketari buruzko modulu bat ematen da 2005etik, Poliziako eta Larrialdietako Euskal Akademiako promozioei zuzenduta (Arkaute). 2015etik aurrera, tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako

arloaren gai espezifikoak sartu dira aipatutako modulu horretan, eta Ertzaintzako promozio berri guztien curriculumean izango da.

2016an, guztira 280 ikasleri eman zaie aipatu modulu hori (horietatik 253 Ertzaintzako agente izateko ikasten ari dira, eta 27 udaltzaingo izateko). Zortzi saio egin dira, bakoitza 6 ordukoa.

- Bestetik, gizarte-erakunde, instituzio eta elkarteei zuzendutako prestakuntza-ekintza zabalagoei dagokienez, tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako arloari buruzko modulu espezifiko bat eman da (Biltzenen prestakuntza-katalogoaren barruan sartuta). Horren onura hartu duten erakundeak Caritas Pasaia eta Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroen Euskal Elkartea (ALDEE) izan dira. Lehenengoan 17 pertsonak hartu dute parte, profesionalak eta boluntarioak batuta. Bigarrenean, berriz, 16 profesionalek hartu dute parte.

- 2016an, Gironako Unibertsitateak estatu espainiarrean izandako gorroto-delituei buruzko ikerketa batean elkarrizketatu gisa parte hartu dute Biltzen zerbitzuko bi profesionalek.




PRESTAKUNTZA-SAIOETAN ERABILITAKO MATERIALAREN DIAPOSITIBA BAT




MINTEGIAN ERABILITAKO MATERIALAREN DIAPOSITIBA BAT

## Biltzenek eta SOS Arrazakeria Gipuzkoak elkarlanean egindako jarduera

Biltzenek eta SOS Arrazakeria Gipuzkoak 2015ean Europako *Together!* proiektuaren baitan hasitako lankidetzarekin jarraitu dute 2016an. Gizarte zibilaren eta polizia-indarren arteko lankidetzarako proiektu bat da *Together*, gorroto-delituak ikusaraztea eta salatzea xede duena.

Era berean, jarduera hauek egin dira:

- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin biltzea, akademiak eskainitako prestakuntza-moduluetan gorroto-delituei buruz ematen diren eduki kurrikularrak koordinatzeko.

- Lankidetza horren emaitzetako bat izan da, adibidez, gorroto-delituak poliziaren ikuspuntutik tratatzeari buruzko mintegi bat, jardunean dauden Ertzaintzako eta Udaltzaingoko langileei zuzendutakoa. Mintegia 2016ko azaroan izan zen, eta hartan 25 profesionalek hartu zuten parte (gizonezkoak eta emakumezkoak batuta).

- Lan-dinamika baten proba bezala planteatu zen ekintza hori, gai honi buruzko derrigorrezko modulu bat txertatu nahi baitzen bi polizia-kidego horietako agente lehen kategoriara igotzeko ikastaroetan. Curriculumeko berrikuntza horren inplementazioa 2017rako programatu da.

- Prestakuntza-moduluko edukiak diseinatzeko orduan, kontuan izan da profesionalek nabari dutela gorroto-delituen adibideak izan eta horiek modu integralean aztertzeko beharra (hau da, gai horri buruzko legeak, ikerkuntza, biktima bihurtutako pertsonak artatzea), bai eta honako hauek izateko

beharra ere: ikerketa-protokoloak eta metodologiak, era horretako krimenak identifikatzeko polarizazio-adierazleak, eta gorroto-delitu izan litezkeen kasuetan polizia-atestatua egiteko jarraibide praktikoak.

- Ertzaintzako zenbait arduradun eta Biltzeneko nahiz SOS Arrazakeria Gipuzkoa erakundeko zenbait ordezkari izan ziren Milanen, 2016an, *Together* proiektuaren amaierako nazioarteko biltzarrean. Biltzar horretan aurkeztu da, ohitura ona baita, Euskadin Eraberean sarearen baitan hiru aldetatik heltzen zaiela gorroto-delituei: Poliziaren aldetik, Eusko Jaurlaritzaren aldetik eta gizarte zibileko zenbait erakunderen aldetik.

## SOS Arrazakeria Gipuzkoa erakundearen jarduera

- SOS Arrazakeria Gipuzkoa erakundeak antolatutako jardunaldia: “Adierazpen-askatasuna, gorrotoaren diskurtsoa eta delituak: komunikabideak, gizarte zibila eta poliziaren arteko elkarrizketa”.

  2016ko urriaren 11n izan zen, Donostian, eta bertan izan dira Ertzaintzako eta Kazetarien Europako Federazioko zenbait ordezkari, eta erakunde antolatzaileko zenbait profesional.

- Diskriminazioari eta polizia-identifikazioei buruzko prestakuntza, SOS Arrazakeria Gipuzkoak antolatutakoa eta Donostiako udaltzainei zuzendutakoa.

  2016ko abenduaren 15ean izan zen, eta honako bi hauek eman zuten: Fuenlabradako Udaltzaingoko bigarren buru eta Unijepol elkarteko idazkari nagusi Miguel Ángel García García jaunak, eta RAIS fundazioko garapen estrategikoko teknikari Cristina Hernández Martín andreak.

  Jardunaldi horretan Donostiako Udaltzaingoko 23 agente eta buru, eta Hernaniko Udaltzaingoko buru bat izan ziren.

  Prestakuntza hori izan da, hain zuzen ere, SOS Arrazakeria Gipuzkoak antolatu eta 2016ko urria eta abendua bitartean egin diren lantegietako bat. Lantegi horietan, Donostian herritar immigranteneen inguruan dauden estereotipoekin eta zurrumurruekin lotura duten zenbait gai landu dira.

## CEAR Euskadiren jarduera

Arestian aipatu den moduan, Gasteizen etxebizitzak alokatzeko prozesuan izaten den diskriminazioaren kontrako plataforma baten parte da CEAR Euskadi. Plataforma horretatik, etxebizitza bat alokairuan hartzeko orduan pertsona immigranteek eta errefuxiatuek jasaten duten diskriminazioa salatzen du CEAR Euskadik, eta horietan laguntza ematen du, Arabako hiriburuan dauden esku-hartze sozialeko zenbait erakunderekin batera eta horiekin koordinatuta.

## Eraberean Sareak artatutako pertsonei eta sareko profesionalei egindako elkarrizketak

### Eraso xenofoboaren biktima izan den pertsona bati egindako elkarrizketa

Gazte nigeriarra da F. eta eraso xenofobo bat pairatu zuen Bilboko supermerkatu baten sarreran 2016ko martxoan ––irain arrazistak egin zizkioten eta haren aurkako eraso fisiko bat egiten saiatu ziren––. Eraberean sareak laguntza eman zion, erasotzailea salatzeko prozesuan.

# «Beldur nintzen, baina segurtasun handia eman zidaten; guztiaz arduratu ziren eta epaitegira lagundu ninduten»

Ertzaintzara jo zuen F-k gertakariak salatzera, eta, harekin batera, Mayra Colado joan zen, Eraberean sareak Bizkaian duen kide bateko, CITE-CCOO Bizkaia zentroko, profesionala. Prozesu osoan abokatu-laguntza eman zion profesional horrek. Horrez gainera, beste abokatu baten, Paloma Merinoren, laguntza izan zuen. Xenofobia-delitu bat egin izanagatik zigortu zuten erasotzailea[1].

Elkarrizketa hau egiteko garaian, zentro horretako letratuak F-ren egoera administratiboa erregularizatzeko aukera aztertzen ari dira, dokumentaziorik gabe baitzegoen intzidentea gertatu zen unean.

Galdetu diogu F-ri nola izan duen Eraberean sarearen eta erasoa izan osteko laguntza jasotzeko aukeraren berri, eta erantzun du gertatu zena ikusi zuen pertsona bati esker izan zela. Mayrak, Eraberean sareko abokatuak, gaineratu du *Gentes del Mundo* fundazioko emakume kolonbiar batek eman ziola aukera horren berri. Hark eskaini zion, federazio horretako beste kide batekin batera, CITE-CCOO Bizkaia zentrora laguntzeko aukera, baina orduan hirurek ez zekiten zentro hori berariaz diskriminazioaren aurka lan egiten duen sare bateko kide zenik. Ondorioz, Eraberean ezagutarazteko ere balio izan zuen topaketa hark.

Honako hau adierazten du F.-k egin zioten harreraren eta eman zioten laguntzaren gainean: “Beldur nintzen, baina segurtasun handia eman zidaten; denaz arduratu ziren eta epaitegira lagundu ninduten”.

Mayrak argitu du intzidente horretan eman duela Eraberean sareak, lehen aldiz, hasieratik amaiera bitarteko abokatu-laguntza. “Lehen, kasuak hartzen genituen eta doako justiziaren zerbitzuetara bideratzen genituen. Kasu honetan ikusi dugu gu akusazio partikularra izatea zela aukera onena. Ikusi

---

[1] *Ikusi auzi horren azalpen xehea Eraberean sarearen 2016ko jarduera aztertzen duen atalean.*

genuen ez zela bitartekaritzarako tarterik; barkamen-eskaera formal batekin amaitu nahi zuen auzia erasotzaileak, baina eraso xenofoboa izan zela aitortzea nahi genuen, eta horrela izan da".

Ideia horren harian, profesionalek laguntza osoa eman ziotela nabarmentzen du F-k: "Nire alde egiten dutela eta egiten ari direla sentitzen dut, ni laguntzeko borondatea dutela, nire egoera administratiboa erregularizatzeko; beti dute gogoan lan bat lortzeko nagoela Euskadin eta horretan laguntzen saiatzen dira".

Beste zerbait falta ote duen galdetuta, ezetz dio F-k: "Denean laguntzen saiatu ziren: apenas hitz egiten dut gaztelaniaz, baina ni ahalik eta hobekien ulertzen saiatu ziren. Gainera, lagundu, entzun eta animatu egin ninduten. Alderdi psikologikoan, askoz ere hobeto sentitzen naiz orain.". Mayrak adierazi du, horren gainean, laguntza psikologikoa emateko zerbitzu bat erabiltzeko aukera eskaini ziotela, oso atsekabetuta eta autoestimu oso txikiarekin iritsi baitzen, batik bat egoera administratibo irregularrean egoteak sortzen zion ahuleziarengatik eta etsipenarengatik: "Etengabe errepikatzen zuen *Zer egin dezaket? Ez naiz-eta inor…" .* Animatu egin behar izan genuen, behin eta berriz esan genion beste edonork merezi duen errespetua zor zaiola eta horrek ez duela zerikusirik bizileku-txartel bat izatearekin… Orain asko hobeto dago".

Kasu hau sare baten bidez landu da, eta ez erakunde bakar moduan, eta, horren gainean galdetuta, Mayrak nabarmendu du oso baliagarria dela Eraberean sareko gainerako legelariekin batera lan egitea: "Zigor-zuzenbidea ez da nire espezialitatea, eta horregatik oso garrantzitsua izan da nire lankideen laguntza. Taldean lan egiten saiatzen gara beti". Horrez gain, adierazi du oso onuragarria dela sarean profil profesional ugari izatea: "Asko gara eta gai asko landu ditzakegu. Konpromiso eta borondate handiz dihardugu".

Galdetu zaionean zer behar den, bere iritzian, erakundeek egiten duten sare-lana hobetzeko, erantzun du biktimei erantzun bat emateko denbora laburtzea komeni dela, sare-logikaren bidez arintzeko funtzionamendua: "F-rekin gauzak arinago egin ziren zuzenean iritsi zitzaigulako erakundera…". Bere ustez, argiago zehaztu behar da zer eskumen dituzten prozesu horietan biktimak laguntzen dituzten abokatuek, eta gaineratu du egokia litzatekeela *Eraberean* izena agertzea Eraberean sareak parte hartu duen prozesuetako sententzietan, baldin eta haren esku izan baldin bada defentsa juridikoa.

Elkarrizketa amaitzeko, Mayrak berriro gogoratu du arrazismoko eta xenofobiako egoeren trataera oso edo integrala egin behar dela, ez baitira, horren premia dagoenean, atzerritartasunaren esparrutik bereizita landu behar egoera horiek; izan ere, diskriminazioen aurka egiteko, pertsonen eskubideen alde egin behar da.

F-k, berriz, jaso zuen laguntza eskertu nahi du: Mayrari irribarrez begiratuta, "eskerrik asko, eskerrik asko, eskerrik asko", errepikatzen du, eta hark bueltatu egin dio irribarrea.

**Elkarrizketaren egilea: Biltzen**

## Ijito-elkarte baten ordezkariari egindako elkarrizketa

Ikerketa askok ƌhorietako batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan egindakoakć agerian uzten dute herritar gehienek ijitoen kontrako jarrera dutela. Batzuetan, keinu txikiak baino ez dira; beste batzuetan, ordea, ekintza diskriminatzaile nabarmenak.

Hori guztia arazo larria da, kontuan hartuta gizarte kohesionatua dugula helburu: izan ere, ijitoek jasaten duten diskriminazioak galarazi egiten die haien eskubideak baliatzea eta, gainera, desberdintasun sozialak areagotzen ditu.

**Auzi honi buruz galdetu diogu Pascual Borjari, Gao Lacho Drom elkarteak Eraberean sarean duen ordezkariari.**

# «Sentsibilizazioa landu behar da, baina justizia ere bai»

**Ijitoen aurkako diskriminazio-kasuei dagokienez, Eraberean Sareak jasotako datuek ondo adierazten dute errealitatea?**

Ez. Ijitoak gara diskriminazioaren ondorioak gehien jasaten dituzten kolektiboetako bat.

Nik zuzenean jasan ditut zenbait egoeratan bazterketa eta diskriminazioa. Zorionez, bizi naizen auzoan pertsona gehien-gehienak ijitoak dira, eta guztiek inoiz edo behin sentitu ahal izan dute ijitoa izatearen ondorioz kalte egin zaiela dauzkaten eskubideetako batzuetan. Eta, zehazki hala izan ez bada, beti daude begirada deserosoak, isilean epaitzea, itxuraren edo larruazalaren kolorearen ondorioz.

Nahikoa da prentsa hartzea eta ikustea nola ematen diren albisteak gertaerarekin zerikusia duten pertsonak ijitoak badira. Gertaerei daukaten garrantzia baino askoz handiagoa ematen zaie, albistea ez da ongi egiaztatzen, askotan ez dago erantzuteko aukerarik... epaiketa publikoak dira. Estereotipoak elikatu egiten dira, lanbide-etika alde batera utzita.

Baina tratu bera ematen zaigu, adibidez, pertsona bat autobuseko aulkitik altxatzen denean aldamenean eseri zarelako...

**Zure ikuspuntuaren arabera, nola azaldu horrelakoak?**

Benetan uste dut ijito asko fenomeno horrekin bizi direla ia-ia zentzua dutenez geroztik. Jende askok oso sustraitua du hirugarren mailako herritarra delako diskurtsoa. Ez dute guztiz onartzen, baina, nolabait, ohitu egiten dira...; bai, etsipena nahiko handia da.

Kanpainak egin behar dira berriz ere ijitoen artean. Immobilismoa ez da irtenbidea. Lagundu egin behar zaie prozesu horretan. Gasteizen zenbait ahalegin egin genituen duela hamar urte baino gehiago. Saio batzuk egin genituen egoera horietako asko salatzeko, baina, egia esateko, ez genuen ezer asko lortu. Azkenean, informaziorik ezak eta, batez ere, diskriminazioaren aurkako borroka horretan emaitzarik ez lortzeak eraginda, horrelako prozesuekiko fedea galdu egiten da.

**Zer bilakaera izan du arazoak azken urte hauetan?**

Urteak eta belaunaldiak igaro ahala, ijitoek bizi-baldintza hobeak lortu dituzte pixkanaka. Baldintzak hobetzearen ondorioz, batzuek sarrera handiagoa izan dute gizarteko beste esparru batzuetan, edo sarrera izateko gogo handiagoa.

Esan genezake fenomeno hori ijitoak sartuz joan diren esparruetara aldatu dela: lan-esparrura, etxebizitza librera, prestakuntza-arlora. Bai eta aisialdi-lekuetan edo gune publikoetan, auzo-etxeetan eta abar.

**Uste duzu nahikoa izan dela ijitoei emandako laguntza egoera horri aurre egiteko?**

Historikoki, ez. Lehendabizi, ekimen osoaren zama ijitoek berek (batez ere ijito-elkarteek) hartu behar izan dutelako beren gain zeuzkaten bitartekoekin. Eta, bigarrenik, norbait akusatuen aulkian esertzea lortu dugunean ez delako ezer lortu. Ez bakarrik zigorren ikuspuntutik, ikuspuntu administratibotik ere ez.

Hala ere, elkarteen alde esan behar da oso saio interesgarriak egin direla, batez ere sentsibilizazioaren ikuspuntutik. Oso kanpaina egokiak egin dira. Bai eta pedagogia ere, eta balioetan heztea; besteak beste, tolerantzia, desberdintasunak errespetatzea. Ikastetxeetan eta abar.

Egungo lege-esparruak, salatzeko, hobeto jardutea ahalbidetuko luke. Iruditzen zaigu Eraberean ekimen ona dela, baina oraindik bide laburra egin du; uste dut denok denongandik ikasten ari garela.

**Zure ustez, zer neurri hartu beharko lirateke horrelako egoeretan?**

Uste dut sentsibilizazioa landu behar dela, baina justizia ere bai.

Justiziari eginkizun pedagogikoa dagokiola pentsatzen da, eta bete egin behar du. Epaien bidez, ereduak ezar ditzaten, eta guztiei azaldu zer dagoen onartuta eta zer ez.

Bestalde, sentsibilizazioa ere erabili behar da, ijitoen artean, eta ijito ez direnen artean ere bai. Sentsibilizazio-programak sustatu behar dira ikastetxeetan, eta abar.

Eskumen-esparrua ere garrantzitsua dela iruditzen zait. Beharbada, bereizketa bat egin beharko litzateke. Nire ustez, behatoki eta sare horiek auzitan jarduteko asmo argia izan beharko lukete, eskumen argia duten eragileek zuzendu beharko lituzkete, eta eragile horiek berak atxikita izan, batez ere justiziaren esparruan. Behintzat, esku hartzeko ardatz horiek behin betiko lotuko dituen bilbea lortu behar da. Soziala eta judiziala.

Irudipena dut azkenean kontu horiek guztiak esparru sozialaren barruan geratzen direla, baina ez dira hori bakarrik.

**Zer aholku emango zenioke diskriminazio-egoera batean dagoen pertsonari?**

Lehenik eta behin, animatu egingo nuke: jende askok amorru-, ezintasun-, haserre-sentimenduak dauzka. Eta, ondoren, prozesuan gida dezaten uzteko esango nioke. Uste dut garrantzitsua dela diskriminazio-ekintzaren bat jasan duten pertsonek konfiantza izatea gaur egun eskura dituzten tresnetan. Baina, era berean, pertsonen barren-barrenean sufritzen den zerbait izan arren, ulertu behar dute beren salaketa lagungarria izan daitekeela etorkizunean beste batzuek jasan ez dezaten egoera bera. Zerbait atera behar zaie esparru pertsonaletik kolektibora, anima daitezen gogorra eta luzea izan daitekeen auzi edo bitartekotza-prozesu batean parte hartzera. Baina mereziko du. Emaitza gorabehera, nork bere burua defendatzea erabili beharreko eskubidea da.

**Elkarrizketaren egilea: Biltzen**

## Sexu-orientazioagatiko jazarpenaren biktima izan den pertsona bati egindako elkarrizketa

Jarraian argitaratutako elkarrizketa txosten honetako 4. kapituluan -Eraberean sarearen jarduera- jasotako kasuetatik lehenengoari dagokio, eta hizpide hartzen du Gipuzkoako herri bateko establezimendu baten jabeak jasandako jazarpen homofoboa. Gertaerak oihartzun handia izan zuen komunikabideetan eta gizartean. Horregatik, eta inplikatutakoen ezaugarriengatik, erabaki dugu elkarrizketa hau egitea.

# Salaketak egitea eta gizartearen babesa garrantzizkoak dira

**Zer-nolako oroitzapena duzu iazko gertaerez?**

*Txarra; esperientzia txarra izan zen. Egia esan, txunditzen ninduten horrelakoek. Beldurra ematen zidaten, eta nazka; oso gauza txarra izan zen. Okerrena da gorrotoaren bide horretan sartzen zaituztela, eta, gogoz kontra izanda ere, azkenean gorrotatzen hasten zara.*

**Uste duzu zurea kasu bakana izan zela?**

*Ez, uste dut orokorragoa dela. Harremana dut Madrilgo elkarte batekin, eta baditut datu batzuek, inola ere bat ez datozenak komunikabideetan agertzen diren kopuru barregarriekin. Ez, ez dira kasu bakanak; eta ez naiz ari Iruni buruz, estatuko eta munduko gainerako lekuei buruz baizik. Benetan, beldurgarria da.*

**Zure ikuspuntuaren arabera, nola azaldu horrelakoak?**

*Nire ustez, pertsonak ez dira txarrak, egoerak baizik. Batzuetan, nahi gabe egiten dira gauzak, haserreagatik, barrukoa askatzeko, edo ezjakintasunagatik. Gorrotoaren zati bat kanporatzeko modua ere badira. Gorrotoaren ondorio dira, nire ustez.*

**Nola aldatu da egoera igarotako denboran?**

*Oso ondo; ez dago harremanik erasotzaileekin, eta ez dira berriz sartu. Egia da arazoak izaten ari direla beste taberna batzuetan. Zehazki, hemen lan egin zuen eta orain beste lokal batean ari den neska bat ezagutzen dut, eta haren bidez jakin dut arazoak izan direla; adibidez, pintxoak lapurtzea barran. Horrelakoetan, iraindu egiten dute, baina gertaera anekdotikoa balitz bezala azaltzen du, aurrez izandako eztabaida baten ondorioa balitz bezala. Horrela, besterik gabe... pintxoa lapurtzeak gehiago molestatzen duela uste dut.*

**Garai hartan, lagundua, babestua sentitu zinen?**

*Ez, batere ez. Nire kontura jokatu nuen sare sozialen bidez; eta nire babesa bilatu nuen. Berehala komunikabideak iritsi ziren; jakina, interesatu egiten zitzaien. Instituzionalki, ez zen inolako harremanik izan Udalarekin gertaerak izan ondoren, eta ez zuen ezer egin. Esan behar dut harreman batzuk izan nituela: Gehitu, Shangay (aldizkari digitala), Megustas.com…*

**Nola sentitzen zara gaur egun?**

*Gaiari dagokionez, besterik gabe... Egia esateko, ez dut askorik pentsatzen horretaz, eta txar guztia ahanzten ahalegintzen naiz. Ondo eta eroso sentitzen naiz auzoan.*

*Esan beharra daukat ez dudala egokitzat jotzen Udaltzaingoak orduan izandako jokabidea (bai, ordea, Ertzaintzarena). Uste dut ez zutela bitartekorik, eta arazoak zeudenean zuten jokabideak ez zuen batere laguntzen arazoa konpontzen; alderantziz, aldeen arteko borrokak gogortzen laguntzen zuen. Izan ere, geroago, batzuetan, beraiek nahi zuten gu zuzenean harremanetan jartzea Ertzaintzarekin.*

**Uste duzu nahikoa izan dela jaso duzuen laguntza?**

*Instituzionalki, beharbada, ez; baina, gizartearen aldetik, bai: "nahikoa eta sobra". Jende asko eta asko jarri da harremanetan nirekin, eta leku asko eta askotatik idatzi didate, bai eta beste herrialde batzuetatik ere: Panama, Argentina...*

**Zure ustez, zer neurri hartu beharko lirateke horrelako egoeretan?**

*Begira, ez dizut erantzungo; ez naiz politikaria, zerbitzaria baizik. Esan diezazuket nola prestatzen den konbinatu bat, izotz gehiago, gutxiago izan behar duen... Horrelakoak edo antzekoak esan ditzaket.*

*Baina zure galderari erantzuteko prestatuta dauden sailak daude, horretaz dakiten pertsonak. Badakit zaila dela, oso zaila, baina horri buruz iritzia ematea ez dagokidan lekuan sartzea iruditzen zait.*

**Zer esango zenioke egoera berean dagoen pertsona bati?**

*Lehenik eta behin, eta arlo burokratikoari dagokionez, salaketa jartzeko, eta paper guztiak gordetzeko. Gainera, esango nioke harremanetan jartzeko lagun diezaioketen erakundeekin (Gehitu, Eraberean...), eta borroka soziala hasteko. Beharrezkoa da erasotzaileak ikustea babesa dugula, konturatzea ez gaudela bakarrik, ez dugula beldurrik.*

**Nola eragin dizu gertatutakoak? Zerbaitetan aldatu zaituela sentitzen duzu?**

*Egia esateko, ez dago aldatuko nauen ezer. Duela gutxi, osasun-arazo bat izan dut, baina, zorionez, gaindituta dago. Horrelakoen ondorioz, tolesgabetasuna galtzen duzu. Konturatzen zara ez zarela super heroi bat, eta esperientzia txarretatik ikasten duzu tolesgabetasuna lapurtzen dizutela.*

*Ikasi dut sare sozialek, eta nik haien bitartez bideratu nuen egoera, oso botere handia dutela, bai eta gauzak hobeto egin daitezkeela ere. Ikasi dut oportunismo handia dagoela, eta jendeak lezio asko ematen dituela, txorakeria asko esaten dituela. Badirudi mundu guztiak dakiela gauzak nola diren eta zer egin behar den. Bahetu, bereizi egin behar dela ikasi dut, eta norberak uste duena egin behar duela.*

***Elkarrizketaren egilea: Jesus Estomba (Gehitu)***

## Nazio-jatorriagatiko diskriminazioaren biktima izan den pertsona bati egindako elkarrizketa

Aurreko martxoaren 21ean, Arrazakeriaren aurkako Nazioarteko Egunean, Iñigo Urkullu lehendakariak diskriminazioaren biktima izandako zenbait migratzaile eta errefuxiaturi lagundu eta entzun zien. Pertsona horiek, zehazki, ekintza diskriminatzaileen biktima izan ziren 2016an, eta Eraberean Sarearen laguntza jaso zuten. Pretty Gutiérrez izan zen haietako bat. Elkarrizketa honetan, diskriminazioaren biktima izan den aldetik, bizi izandakoak kontatzen dizkigu.

# Errefuxiatuek zailtasunak dituzte etxebizitzak alokatzeko

Pretty Gutiérrez emakumezko errefuxiatua da, gaur egun Gasteizen bizi da, eta oso ondo daki zer-nolako bide mingarria egin behar duten etxebizitza bat alokatu nahi duten atzerritarrek.

Bide horretaz galdetuta, Prettyk erantzun du nahiago duela “bizi izandako esperientziaz” ez mintzatzea, “jasandako esperientziaz” baizik. Ezin konta ahala anekdota desatseginetatik, berebiziko tristeziaz gogoratzen du etxe bat ikustera joan zenean atari bereko gizon zahar batek tu egin zionekoa. Gainera, irain egin zion, baina ez bakarrik berari, bai eta bera bezala etxe-agentziak etxebizitza erakusteko zain zeuden gainerakoei ere. “Oso iraingarria izan zen. Zu giza zaborra zarela sentiaraztea. Inoiz ez nuen pentsatu hemen beste nazionalitate bat izatea gorrotatzeko eta nazka izateko arrazoia izan zitekeenik”.

Ia bi hilabete behar izan zituen etxebizitza aurkitzeko. Tarte horretan, Prettyk prentsako eta buletinetako iragarkiak bildu zituen egunero; mesedeak eskatu zizkien berari buruz erreferentzia onak eman zitzaketen kontaktuei; etxebizitza bilatzeko sakelako aplikazioak deskargatu zituen; hiriko etxe-agentzia guzti-guztietara joan zen. Baina erantzuna beti bera zen: EZ. “Etxebizitza bilatze horretan, ohartu nintzen zer-nolako eragina duen gizartean ‘errefuxiatua naiz’ hitzak entzuteak. Adjektibo horrek aurrez jartzen du entzulea beldurra eta mesřdantza izateko moduan. Askotan egokitu zitzaidan, behin eta berriz. Irribarreak aukera guztiak ixten zizkidaten aurpegi bihurtzen ikusi nituen. Sarritan entzun nuen: ‘Sentitzen dugu; ezin dizugu etxebizitza alokatu errefuxiatua zarelako’; edo ‘Jabeak ez die latinoei alokatzen’”.

Pretty tristeziaz mintzatzen da etxebizitza bilatze horretaz. Esaten du errefuxiatuen bidaia ez dela amaitzen herrialde seguru batera iristen direnean. Aitzitik, bidaiak aurrera jarraitzen du. “Nik ez nuen

aukeratu errefuxiatua izatea. Ez nuen erabaki nire herrialdetik joatea dena galduta. Beste batzuek aukeratu zuten nire patua. Baina, hona iristean, beste odisea bat hasi behar izan nuen: bizitzeko leku bat aurkitzeko odisea".

Bidaia horretan etxe-agentzietara eta partikularrengana jo zuen. Etxe-agentzietan, azkenean, amore eman zuen: "Argi eta garbi eskatzen zizkidaten ezin bete nitzakeen baldintza batzuk, horren jakinaren gainean egon arren. Nolatan aurkeztuko nuen nomina bat, diru-sarreren agiri bat, errenta-aitorpen bat, nire AIZarekin (atzerritarraren identiřkazio-zenbakia) banku-kontua irekitzeko inolako aukerarik izan gabe?".

Partikularrei esker, ahoz ahoko jardunari esker, erakunde batzuen lan komunitarioari esker, Euskadira iritsi zenetik ehundutako kontaktu pertsonalen sareari esker aurkitu zuen etxebizitza alokatu nahi izan zioen jabe bat.

Orain, etxean lasai, beste ikuspuntu batetik ikusten du jasandako diskriminazioa, eta diskriminatu dutenen lekuan jartzeko behar bezain argi. "Ulertzen dut gizarte honen beldurra, ezezagunaren beldur baita. Nik neuk ere aitortzen baitut ezin dudala guztiz ulertu nolatan gauetik goizera, nire herrialdean bizitza normala izanda, ihesi joan behar izan nuen bat-batean, eta 'errefuxiatua' den zer 'arraro' hori bihurtu; izan ere, orain, hitz horren alde txarra baino ez dut ezagutzen".

Horregatik, Prettyk honako mezu hau du arabarrentzat: "Ez dute ezeren beldurrik izan behar. Aurrezkiak ditut, babes ekonomikoa, eta arazorik gabe egin diezaieket aurre jabearekin ditudan betebeharrei".

Prettyk, gainera, eskerrak eman nahi dizkie arabarrei, Euskadira iristea lortzen ez duten errefuxiatuei adierazitako elkartasunagatik. Baina, modu berean, eskatzen du dagoeneko hemen daudenak alde batera ez uzteko, bera bezalako gizon eta emakumeak baitira, egunero diskriminazioa jasaten dutenak atzerritarrak izateagatik.

***Elkarrizketaren egilea: Rosabel Argote (CEAR Euskadi)***

# 4

# esperientzia positiboak, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan

# 4. esperientzia positiboak, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan

## Jardunbide Egokiak TBDEren arloan

Esan daiteke zuhaitz batek erortzean zarata handiagoa egiten duela hazten ari diren ehun zuhaitzek baino. Gauza bera gerta dakiguke guri ere, hau da, horien berri dugun diskriminazio-gertakari guzti-guztiei ondo merezi duten arreta eskaintzearen ondorioz, baliteke ez ohartzea gure inguruan zenbaitetan modu ia ohartezinean ematen diren aurrerapausoez.

Izan ere, zenbaitetan, errealitatea nahikoa gertukoak zaizkigun inguruetan mugitzen da, hain gertukoak izan ere, non jarrai daitezkeen hainbat ekintza-lerro iradoki diezazkiekegun eragileei. Baieztapen hori zenbait adibidez argitzeko asmoz, 2016an zenbait maila eta testuingurutan gauzatutako ekimenetako batzuk errepasatuko ditugu, asko sakondu gabe eta horien aniztasuna nabarmenduz.

**Kirolaren** mundua diskriminazio-jokabideetarako esparru aproposa dela esan izan da, estadio handietan izaten diren norgehiagoka jendetsuek ematen duten anonimatuaren babespean. Nolanahi ere, kirolik zabalduenetako batean, futbolean, nabarmentzea merezi duten zenbait ekimen gauzatu dira.

Horren adibide aparta Gehitu elkarteak sustatutako *Ortzadar liga* da, harekin bat egin baitute, beste talde batzuen artean, Real Sociedad fundazioak eta SD Eibar kirol-elkarteak. Bat egite horren helburuak dira futbol profesionalaren munduan homofobia, lesfobia, transfobia eta bifobia ezabatzea; kirol horretan aritzen den pertsona orori armairutik ateratzen animatzea, bere taldeak edo zaletuek, oro har, baztertzearen beldur izan gabe; bizikidetza sustatzea eta kirol-munduan LGTBI herritarrak ezagutzea.

Helburu horiei helduz, zenbait jarduera gauzatu dira zaletuei, oinarri-futbolari eta futbolean dabiltzan gazteei zuzenduta, besteak beste.

Ildo horretatik, nabarmendu beharra dago, baita ere, Cádizen Peña Nenas Cadistas taldearen ekimenez, Cádiz C. F. taldearen laguntzaz eta Arco Iris federazioak babestuta ospatutako I. *LGTBI Kirol Harrotasuna* jardunaldia, arbitro batek jasandako irain homofoboak gaitzesteko.

Nabarmendu beharra dago, baita ere, pertsona ijitoen eta segurtasun-indarretako kideen arteko partiden garrantzia. Era horretako partidak, hasiera batean jostatzeko soilik egiten zirenak, finkatuz joan dira, eta elkartasun-balio erantsia hartu dute hainbat herritan. Horren adibide dira, esaterako, Ponferradan edo Badajozen egiten diren txapelketak. Badajozekoa, esaterako, Atlético de Madrid fundazioak babesten du Badajozeko Down Síndrome elkartearen alde.

Beste testuinguru batean, badira arestian aipatutakoak bezain interesgarriak diren eta **segurtasun-indarrak** protagonista dituzten hainbat ekimen. Adibidez, Castellóko Udaltzaingoaren burutzak gorroto-delituetan eta diskriminaziozko beste gertaera batzuetan polizia-laguntza emateko prozedura onartu du, eta aitzindari da ildo horretan, apustu egin baitu Udaltzaingoaren eta kalte har dezaketen gizarte-taldeen arteko harremana hobetzearen alde, bai eta bizikidetzarekin nahiz herritarren segurtasunarekin lotura duten arazoak hobeto artatzearen alde ere.

Aniztasunaren Polizia Kudeaketarako Plataformako adituen laguntzaz egin da gidaliburu hori. Erakunde horrek, bidenabar, proposamen azpimarragarri bat argitaratu du: *Polizia-zerbitzuetarako aniztasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako polizia-kudeaketari buruzko curriculum-diseinua* izeneko argitalpena. Argitalpen horren bitartez, polizia-zerbitzuen prestakuntza hobetzen lagundu nahi du aipatu erakunde horrek, eta, horretarako, polizia-zerbitzuak aniztasunera hurbiltzeko bide emango duten curriculum-edukiak proposatu ditu, eta eguneroko lanean erabilgarriak zaizkien zenbait tresna eskaini ditu. Esaterako, polizia-lanetik aniztasuna nola kudeatu behar den erakusten duten zenbait kasu praktiko azaldu ditu, egoera errealak oinarri hartuta. Horrela, tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako eskubidea zainduko da polizia-jarduketetan, eta horretan aritzen direnek jakingo dute nola detektatu eta kudeatu gorroto-delituzko kasuak.

Beste testuinguru batean, segurtasun-indar eta -kidegoetako funtzionarioek osatutako LGTBIpol elkartearen jardunak agerian uzten du segurtasun-indar eta kidegoetako hainbat profesionalek konpromisoa hartua dutela aniztasunarekin. Beste helburu batzuen artean, elkarte horrek ikusgai bihurtu nahi du segurtasun-kidegoetako LGTBI komunitatea, eta zubiak sortu nahi ditu segurtasun-kidego horien eta LGTBIfobia-delituen biktima diren herritarren artean. Horretaz gainera, hizpide dugun erakundeak tresna bat izan nahi du bai segurtasun-erakundeentzat bai eta segurtasun-erakundeen funtzionamenduaren gain are ikuspegi profesionalagoa behar duten LGTBI elkarteentzat ere.

Gurera etorriz, nabarmendu beharra dago Biltzen zerbitzuaren prestakuntza-eskaintzaren esparruan Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako (Arkauteko) promozio berriei Aniztasunaren Polizia Kudeaketari buruzko prestakuntza osatu egin dela tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren

aurkako prestakuntza espezifiko batekin, eta Ertzaintzako promozio berri guztien curriculumean izango dela.

Asko eta askotarikoak dira nabarmentzea merezi duten **gizarte ekimenak**. Zenbaitetan elkarteen bitartez antolatuta, eta beste batzuetan ekintza txikietatik abiatuta, baina guztiek ere tokian toki aniztasunarekiko errespetuaren aldeko apustua ikusgarri bihurtzen laguntzen dute. Era horretakoa da *Las fiestas para todxs-Erasotzaileak kanpora* kanpaina, Sestaoko Txosna Batzordeak eta Emari talde feministak sustatutakoa, eraso homo-lesbo-transfoboen, arrazisten eta sexisten aurka.

28J koordinakundeak, LGTBI+ Harrotasunaren Eguneko ospakizunen harira, pertsona errefuxiatuen aldeko eta Europaren eta Turkiaren arteko hitzarmenaren aurkako elkartasun-aldarria sartu zuen bere deialdietan, *Con fronteras no hay orgullo – Harrotasunak ez du mugarik* goiburu hartuta.

Gogoan izan dezagun, baita ere, Zaballa eremuko (Barakaldo) ostalaritza-establezimenduen erantzuna, salatu baitzituzten bertako zenbait lokaletan izandako eraso homofoboen saiakuntzak, eta homofobiaren kontrako jarrera hartu baitzuten publikoki, kartelak jarriz establezimenduetarako sarbideetan. Ohiko tokietan gizartea sentsibilizatzen laguntzen duen zirimiria da hori.

Gizarte-ekimen interesgarrien artean aipa dezakegu, baita ere, Berdin sarea, SOS Arrazakeriak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz Oarsoaldean bultzatutakoa (Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia), elkarteen, pertsonen eta erakundeen ahaleginak koordinatzeko, arrazoi arrazista eta xenofoboengatik gertatzen diren era guztietako erasoak edo diskriminazio-egoerak, “gorroto-delitu” deritzonak, detektatzeko eta salatzeko.

Gizarte-ekimen horiek ez dute arreta jartzen soilik tokian toki gertatzen diren egoeretan. Gora Gasteiz plataformak, esaterako, elkartasuna agertzen duen hiri plural bat lortzeko bere konpromisoa proiektatu du ekimena sortzen ikusi zuen udalerriaz haraindi. Horrela bada, *Gora Gasteiz: Izan kolore* izeneko dokumentala estreinatuz, errefuxiatuen erabilera politikoa salatu du, eta herritar-mugimenduak benetan parte har dezala eskatzen du, fenomeno horri elkartasunezko erantzun bat emateko.

**Tokian toki,** gizarte-ekimenak ez dira protagonista bakarrak, tokian tokiko administrazioek ere egiteko garrantzitsua baitute. Zenbaitetan, jarduera sendo bezain bakunak gauzatzen dituzte, hain bakun izan ere non inor ez den horietaz ohartzen.

Horren adibide da, esaterako, kaleetan agertutako pintada xenofoboen aurrean hainbat udalek emandako erantzuna. Zallako Udalak, esaterako, immigrazioaren kontrako pintadak agertu zirenean, horiek publikoki gaitzetsi zituen eta Ertzaintza jakinaren gainean jarri zuen berehala. Horrez gain, eskerrak eman zizkien horren berri eman zuten pertsonei, eta guztion artean udalerri plural eta tolerante bat eraikitzea eskatu zien herritarrei.

Horren antzeko erantzuna izan zuen Barakaldoko Udalak ere, udalerriko zenbait zonatan pintada xenofoboak eta Islamaren aurkakoak agertu zirenean. Izan ere, Barakaldoko Udalak, pintada horiek berehala

garbitzeaz gain, komunikatu ofizial bat argitaratu zuen bere web-orri instituzionalean, non hiri plural bat eraikitzea eskatu zuen, beste gizarte, kultura eta erlijioekin errespetuzko jarrera duena.

Tokian tokiko zenbait ekimen, alabaina, horiek baino konplexuagoak dira. Madrilgo Udalak, esaterako, Gorroto Delituen aurkako Estrategia Integral bat du. Horren bidez, delitu horien balizko biktimei lehendik ematen zitzaizkien zerbitzuak integratzen eta handitzen ditu Udaltzaingoaren Aniztasuna Kudeatzeko Unitatetik, beste zerbitzu batzuen artean.

Estrategia horren helburuak dira: diskriminaziozko tratuaren biktimei ematen zaien laguntza eta orientazioa hobetzea, bai eta partikularren eta herri-erakundeen zigor- arloko eta arlo administratiboko salaketak hartzea ere; poliziaren jarduketa-protokoloak egitea, desgaitasunaren, erlijio-askatasunaren, LGTBI kolektiboaren, aporobofiaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren arloan; Udaltzaingoko kideei aholkuak eta prestakuntza ematea; eta elkarte, GKE, biktimen kolektibo sozial eta giza eskubideen defentsarako kolektiboekiko elkarlana hobetzea. Era berean, Madril hirian izandako gertakariak erregistratuko dira, zer tokitan gertatu diren zehaztuta. Horrela, prebentzio-operatiboak ezarriko dira era horretako delituak gertatzeko arrisku gehien dauden zonetan. Horretaz gainera, gorroto-delituei buruzko ikerketak egingo dira eta jarraipenak egingo dira gizarte sareetan eta Interneten, diskriminazio- eta gorroto-delituak prebenitzeko, detektatzeko eta salatzeko baita online-eremuetan ere.

**Online-eremuei, ohiko hedabideei** eta hain ohikoak ez direnei dagokienez, *Observatori del Discurs d'odi als mitjans de comunicació* behatokiak egiten duen lana nabarmendu beharra dago. *Grup de Periodistes Ramon Barnils* taldearen proiektu bat da, SOS Racisme Catalunya erakundearekin eta Bartzelonako Udaleko Herritarren Eskubideen eta Dibertsitatearen Zerbitzu Zuzendaritzarekin elkarlanean egindakoa. Haien ikerketetan aztertu nahi dute zer modutan sustatzen duten aztergai dituzten hedabide digitalek arrazakeriak, xenofobiak, islamofobiak, antigitanismoak eta antikatalanismoak kaltetu ditzaketen kolektiboenganako gorrotoaren diskurtsoa. Alde horretatik, aztertzen dute, batez ere, zer diskurtso-estrategiaren bitartez erreproduzitzen dituzten hedabideek jatorri, azalaren kolore, sexu-orientazio, genero, erlijio, kultura, etnia eta abarrengatiko diskriminazioa sustatzen duten argumentuak, jarrerak, estereotipoak eta aurreiritziak; gorrotoaren diskurtsoaren halako kontzeptualizazioa egiten baitute, non legeetan araututakoa gainditu, eta gizarte-erakundeen nahiz diskriminazioaren aurka borrokatzen duten giza eskubideen aldeko erakundeek erabilitako diskurtsoaren ildo beretik doazen.

FAKALI Emakume Ijitoen Elkarteen Federazioak *Antigitanismoaren aurkako Ituna: jarduera-protokoloa* izeneko dokumentua bultzatu du, Andaluziako Juntaren Berdintasun eta Gizarte Politiketako Sailarekin elkarlanean. Antigitanismoaren fenomenoa sakontasunean aztertu nahi da eta, bereziki, zer lotura duen hedabideekin eta sare sozialekin. Horretaz gainera, pertsona ijitoei modu peioratiboan eragiten dieten eta pertsona horiek herritartasun osoa gara dezatela eragozten duten diskriminazio-ideia, -jarrera eta -jokabideak zabaltzearen aurka gizartearen edozer sektoretik gauzatzen den borrokan erabilgarriak izango diren zenbait tresna eman nahi dira.

Itun horrek arlo juridikoko eta komunikazioaren arloko itzal handiko profesional asko eta arlo akademiko, politiko eta sozialeko zenbait erakunde publiko nahiz pribatu biltzen ditu, eta antigitanismoaren

aurkako Andaluziako lehen itun sozial eta politikoa da. Dokumentu horrek gida bat dakar, non adierazten den zer jardunbide diren egokiak ijito-komunitatearekin lotutako edukiak eta informazioa tratatzeko orduan. Dokumentu horrek bultzatzen du, baita ere, domeinu domestikoen, nazionalen edo atzerriko domeinuen, Facebooken, Twitterren eta Youtuberen bitartez arraza-gorrotoa, xenofobia edo intolerantzian oinarritutako beste edozer gorroto mota zabaltzen, bultzatzen, sustatzen edo justifikatzen duten jarreren eta jokabideen salaketa.

Itun horretan aurreikusi da, baita ere, jurisdikzio zibil, penal eta sozialeko legezko tresnak sustatu eta bultzatzea, herritar ijitoei nahiz horiek ordezkatzen dituzten erakunde sozialei zuzendutako jokabide antigitanisten aurrean.

Fundación Secretariado Gitano funazioak, Aire Nuevo Caló gazte ijitoen elkartearekin elkarlanean, *Gazte ijitoen eta ijito ez diren gazteen artean elkartasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako balioak sustatzeko programa* bultzatu dute, ijito-herriaren gazteria ohar dadin gizartean modu aktiboan eta etenik gabe parte hartzearen garrantziaz, baita haien eskubide zibilak aldarrikatzeko zailtasunez, eta sare sozialek diskriminazio-egoerak salatzeko tresna gisa duten garrantziaz ere. *#GipsyFilter* kanpainaren bitartez lan-ildo hori indartu da. Izan ere, kanpaina horren asmoa da sare sozialetako –Facebook, Instagram edo Twitterreko– berezko baliabideak eta teknikak erabiltzea, arreta osoa jarriz ijito-komunitatearen irudiari, sarri inkontzienteki, jartzen zaizkion iragazkiei.

Espero da Europako Batzordeak sustatutako Jokabide Kodeak hori guztia bultzatzen lagun dezala, hura izenpetu baitzuten, joan den 2016. urtean, Interneteko zenbait konpainia handik, hala nola Facebookek, Twitterrek, YouToubek eta Microsoftek, sarean eta sare sozialetan barna gorrotoaren lengoaia zabal dadila galarazteko zenbait neurri ezartzeko. Sektoreko enpresa handi horiek beren gain hartutako erronka handienetako bat izan da, hain zuzen, *24 ordu baino gutxiagotan aztertzea jakinarazitako alerta gehienak eta, egoki baldin bada, edukiak ezabatzea edo blokeatzea.* Horretarako, Jokabide Kodea sinatu dutenek zenbait barne-arau ezarriko dituzte argi uzteko indarkeria eta gorrotoa bultzatzea debekatzen dutela. Horretaz gainera, plataformei eskatzen zaie parte har dezatela propagandaren aurkako kanpainak diseinatzeko eta sustatzeko orduan, eta gauza ditzatela erabiltzaileak mezu bortitzen aurka sentsibilizatzeko ekintzak. Aldi berean, Europar Batasuneko estatuekin eta konpainien artean elkarlan handiagoa izatearen aldeko apustua egiten da. Horren guztiaren bitartez, Batzordeak plataforma horien parte-hartzea handitu nahi du, gaur egun Interneten hedatzen diren gorroto-diskurtso legez kanpokoak modu biralean zabal daitezela saihesteko, “erantzukizun kolektiboko” ekintzen bitartez eta adierazpen askatasunerako eskubideari kalterik egin gabe.

Badaude beste modu batzuk jarrera publiko bat finkatzen laguntzeko modu sinple eta irmo batean. Eldiario.es atariak, esaterako, *Por un periodismo que denuncia las discriminaciones* (diskriminazioak salatzen dituen kazetaritza baten alde) adierazpidea txertatzen du sistematikoki bere argitalpen guztietan, bere jarrera zein den argi uzteko.

Azken atal bat gorde dugu **baliabide espezializatuei,** zerbitzuei eta proposamenei heltzeko, zenbait arlo eta formatutan sustatzen baitute aniztasunarekiko errespetua, tratu-berdintasuna oinarri hartuta betiere, eta aurre egiten baitiete balizko diskriminazio-jokabideei.

Madrilgo Konplutentse Unibertsitateko Sexu Aniztasunaren eta Genero Identitatearen Bulegoa, esaterako, unibertsitate horretako Aniztasuna eta Inklusioa Babesteko Unitatearen barruan dago, Aniztasuna duten Pertsonen Inklusiorako Bulegoarekin eta Pertsona Errefuxiatuei Harrera Egiteko Bulegoarekin batera. Sexu Aniztasunaren eta Genero Identitatearen Bulegoa edukita, Unibertsitate Konplutentseak pertsona lesbiana, gay, bisexual eta transexualen errealitatea aitortzeko politiketan aitzindari izan nahi du, bere burua homofobiarik eta transfobiarik gabekotzat jo duen Espainiako lehen unibertsitate publikoa izan baita. Bulegoak honako helburu hauek ditu: informazioa eta aholkuak ematea horien beharra duten ikasle, irakasle eta langileei; pertsona bakoitzaren sexu-identifikazioan askatasuna ikusaraztea; egoerari buruzko azterlanak egitea, gerorako jarduera-protokoloak sustatzeko bidea emango dutenak; eta sexu-aniztasunari eta genero-identitateari buruzko ikerketa-sareak sortzen laguntzea.

Beste testuinguru batean, 2016an, harrera-etxe bat martxan jarri zuen Eddy-G fundazioak, 18 eta 30 urte bitarteko LGTBI kolektiboko gazteetatik tratu txarren, LGTBIfobiaren, etxeko indarkeriaren eta bullyingaren biktima izandako horiek hartzeko. Harrera-etxe hori era horretako lehena da Espainian eta, oraingoz, bakarra. Kontua ez da gasturik gabeko harrera-pisu bat baino ez eskaintzea gazteei, proiektuak laguntza psikosozialeko programa bat, terapiak eta lanerako mentoretza barne hartzen baititu. Programa hori diseinatuta dago, gehienez ere, urte bateko epean gazteak iragan zail batetik aska daitezen, eskaini nahi baitzaie beren bizitza-plana berriz diseinatzeko eta heldu aske bihurtzeko aukera.

Joan den urtean, hizpide dugun baliabide hori erabili zutenen artean espainiar herritartasuna zuten pertsonak izan ziren, eta horrek erakusten du, LGTBI komunitatearen eskubideei dagokionez aurrerapausoak eman badira ere, oraindik ere badagoela lan asko egiteke.

Lan handia dago egiteke, baita ere, pertsona ijitoen historia eta kultura ezagutzeari dagokionez. Gabezia horri erantzutea du helburu Gaztela eta Leongo Juntaren Hezkuntza Sailak, erabaki baitu prestatu egingo dituela ijito-herriaren historia eta kultura ikastea eta zabaltzea xede duten unitate didaktiko eta curriculum-material berritzaileak (otsailaren 8ko EDU/71/2016 AGINDUA), eta aurreikusita dago derrigorrezkoa izan dadila azken horiek hezkuntza-curriculumean sartzea.

Esparru komunetan eta curriculum-edukietan ez denez, sistematikoki, ijito-herriaren historiari eta kulturari buruzko aipamenik egin, jendeak, orokorrean, ez du herri horren historia eta kultura ezagutzen, eta horrek ijito-komunitatearen gizarte-irudi negatiboa sortzen lagundu du. Ijito-herriaren historia eta kultura zabaltzea lagungarria izango da ijito-komunitatea hobeto ezagutzeko, pertsona ijitoen gizarte-irudi pluralago eta anitzago bat sustatzeko, eta aukera emango du ikasleen artean nahiz gizartean dauden aurreiritzi eta estereotipo negatibo asko gainditzeko. Horretaz gainera, neska eta mutiko ijitoek hezkuntzako materialetan islaturik ikusiko dituzte beren buruak eta, horrela, historia komun baten parte sentituko dira. Horrek lagunduko du, ezbairik gabe, ikasle ijitoak eta horien familiak hezkuntza-sistemara gerturatzera, eta, horrenbestez, gogo handiagoa izango dute ikasten jarraitzeko.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu zenbait abokatu-elkargok hizpide dugun gai honen inguruan urratsak eman izanak erakusten duela badutela interesa harengan eta harekin konpromisoa hartua dutela. Hala egin dute, esaterako, Kordobako eta Madrilgo abokatu-elkargoek.

Hainbat eremutan, sare sozialetan eta Interneteko beste euskarri batzuetan bereziki, gorroto-delitu direlakoak ugaritu direla egiaztatu denez, eta kontuan izanik delitu horiek ikertzeko zailtasun erantsitzat har daitezkeela, alde batetik, biktimak, zenbaitetan erasotzen errazak izatea eta salatzeko beldur izatea eta, bestetik, delitu-egitatea nahiz horren motibazioa frogatu behar izatea, bistan da artatze espezializatu bat behar dela, tartean diren eragile juridiko guztien sentsibilizazioa sustatu beharra dagoela, eta prestakuntza espezializatua eskaini beharra dagoela.

Kordobako Abokatuen Elkargoak lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuen 2016an KAMIRA Emakume Ijitoen Elkarteen Federazioarekin, gorroto- eta diskriminazio-delituen aurkako borroka sustatzeko, eta biktimen aholkularitza juridikoa eta babes espezializatua bultzatzeko. Lankidetza horren harira eta horren ondorioz, zenbait prestakuntza-ekintza gauzatu dira gai honi buruzko ezagutza areagotzeko, lortu nahi baita, alde batetik, abokatu-laguntza espezializatu bat ematea eta, bestetik, Diskriminazioaren eta Gorroto-delituan arloan ofiziozko txanda berezi batean txertatzeko beharrezkoa den gutxieneko prestakuntza bermatzea.

Urte amaieran, Diskriminazioari eta Gorroto Delituei buruzko I. Biltzar Nazionala egin zen, elkargo horrek berak sustatuta. Biltzar hori azterketarako, gogoetarako eta eragile juridikoak (epaileak, fiskalak eta poliziak) sentsibilizatzeko gune bat izan zen, eta haren helburu izan ziren, alde batetik, biktimak detektatzea eta horietara modu eraginkorrean iristea eta, bestetik, gizarte osoa gisa horretako jokabideak salatzeko beharraz kontzientziatzea, biktimak babesteko asmoz betiere.

Elkargo horren antzeko ibilbidea egin du Madrilgo Abokatuen Elkargoak ere, honako hiru helburu hauek betetzeko asmoz: gorroto- eta diskriminazio-delituen biktimei ematen zaien laguntza eta prebentzioa hobetzea; tartean diren alderdi guztien arteko loturak indartzea (Fiskaltza, Segurtasun Indar eta Kidegoak, talde eta elkarte zibilak, adituak eta Madrilgo Abokatuen Elkargoa); eta gizarte osoa sentsibilizatzea era honetako delituak ez salatzearen eta ez zigortzearen aurkako borrokaren inguruan.

Helburu horiek betetzeko bidean aurrera egiteko asmoz, Madrilgo Abokatuen Elkargoak, ofiziozko txandaren eta justizia leheneratzailearen arloan, diskriminazioari eta gorroto-delituei buruzko lan-mahai iraunkor bat eratu du, non, besteak beste, honako hauek hartzen duten parte: Ofiziozko Txanda Saileko arduradunek, Madrilgo delitu informatikoen eta gorroto-delituen fiskal eskuordeak, segurtasun indar eta kidegoetako zenbait ordezkarik, eta LGTBIen, ijitoen eta migratzaileen lotura duten zenbait gizarte-erakundetako bozeramaileek.

Azkenik, testuinguru honetan, aipagarria da Diskriminazioari eta Gorroto Delituei buruzko I. Biltzar Nazionalean (Kordoba, 2016ko irailak 24 eta 25), bi elkargo profesional horien ordezkariak hizlari izan zirela, *Diskriminazioari eta gorroto-delituei buruzko ofiziozko txanda espezifikoaren antolamendu eta funtzionamendua* izeneko lan-mahaian.

Hemen aipatutako esperientzien eta proposamenen bilduma ez da tratu-berdintasunaren alde eta diskriminazioaren aurka egiten diren gauza guztietatik nabarmendu beharreko horien azterketa zorrotz bat. Hasieran adierazi dugun moduan, zenbait eremutan martxan diren ekimenen sorta zabala erakustea beste asmorik ez du.

# Bizipen inklusiboak eraikitzen haurtzaroan eta nerabezaroan

**Rafael Mendía**
Pedagogoa
ZERBIKAS Fundazioa

**XXI. mendearen atarian, XXI. menderako hezkuntzaren gaineko txosten bat argitaratu zuen UNESCO erakundeak. Txosten horren zuzendaria Jacques Delors**[1] izan zen, eta haren izena hartu zuen agiriak. Izenburu honekin zabaldu zen: "Altxor bat gordetzen du hezkuntzak".

Hezkuntzaren oinarrizko zutabeetako bat "elkarrekin bizitzen ikastea" izan behar du, gainerako pertsonekin lankidetzan aritzeko eta giza jarduera guztietan parte hartzeko. Egia da hori dela hezkuntzaren oinarrietako bat, baina, jakintza teorikoarekin tematu ondoren, ez dakigu oraindik zein den hezkuntzaren alderdi funtsezko hori lantzeko modua.

Egokia dirudi, "elkarrekin bizitzen ikasiko" baldin badugu, pertsonen bizitzan bat egiten duten bi noranzko hauetan lan egitea: gainerako pertsonak pixkanaka ezagutzea batetik, eta, bestetik, proiektu komunetan lan egitea, ezkutuko gatazkak ekiditeko edo konpontzeko metodo eraginkorra den aldetik.

Ez da hori izan hezkuntzari norabide hau ezarri nahi izan dion erakunde-ekimen bakarra: bizitzen ikasteko hezkuntza izatea, gainerako pertsonen onarpenean oinarritutako bizikidetzatik abiatuta, eta

[1] *Delors, J. (1996.): "Los cuatro pilares de la educación" in La educación encierra un tesoro. Informe a la UNESCO de la Comisión internacional sobre la educación para el siglo XXI, Madril, Espainia: Santillana/UNESCO. 91.-103. or.*

besteren "nitasunarekin" topo egitea, haien egoerari, kulturari, sexu-joerari, jatorriari erlijioari eta bestelako ezaugarriei erreparatu gabe.

*Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 18an konpetentzia giltzarriei buruz eman zuen gomendioak*[2] adierazten du **konpetentzia sozialen eta zibikoen** artean direla konpetentzia pertsonalak, pertsonen artekoak eta kulturen artekoak, eta horien eduki direla, besteak beste, pertsonak bizitza sozialean eta profesionalean eraginkortasunez eta modu eraikitzailean parte hartzeko prestatzen dituzten portaera modu guztiak.

**Konpetentzia** horren funtsezko osagai dira, besteak beste, hainbat egoeratan modu eraikitzailean komunikatzeko gaitasuna izatea, tolerantzia erakustea, bestelako ikuspuntuak adieraztea eta ulertzea, konfiantza ereinez negoziatzen jakitea eta enpatia sentitzea. Alde horretatik, estresa eta frustrazioa kudeatzeko gai izan behar dute pertsonek, baita horiek modu eraikitzailean adierazteko ere.

Konpententzia horren oinarrian daude lankidetzan jarduteko **jarrera**, norberarengan konfiantza izatea eta osotasuna edo integritatea. Balioen aniztasunari eta gainerako pertsonei izan beharreko errespetuari begiratu behar diote pertsonek, eta aurreiritziak gainditzeko eta konpromisoak hartzeko prest izan behar dute.

Adierazi behar da Osasunaren Munduko Erakundeak[3] (OME) oinarrizko konpetentzien alderdi ugari, alderdi pertsonalak eta sozialak batik bat, argitaratu zituela 1999. urtean. Zehazki, honela definitu zituen **bizitzarako trebetasunak** edo **konpetentzia psikosozialak**: "pertsonak eguneroko bizitzaren eskakizunei eta erronkei ganoraz aurre egiteko duen trebetasuna"[4].

Gure haurren eta gazteen bizitzaren gaineko ikuspegi orokor horren oinarrian, aitortzen da gaur egungo haur eta gazte askok ez dutela, kulturak eta pertsonen bizimoduek izaten dituzten aldaketa sarrien ondorioz, garaiko munduak eragiten dituen presioei eta dakartzan erroka handiei erantzuteko behar diren trebetasunak, eta, horrenbestez, ez da nahikoa eskolan soilik lan egitea. Aitzitik, konpetentziak landu behar dira beste hainbat eremutan ere, hala nola familian, aisialdi edo denbora libre hezigarrian eta hezkuntza ez-formaleko guneetan. Berariaz, eta besteak beste, honako esparru hauek landu daitezke:

- Norberaren autonomiaren eta gizarteratzearen garapena
- Jokabide prosozialen sustapena

---

[2] *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Agindua, 2006ko abenduaren 18koa, etengabeko ikaskuntza-rako konpententzia giltzarriei buruzkoa. Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L394.*

[3] *Osasunaren Munduko Erakundea. Guidelines: Life Skills Education Curricula for Schools. Geneva, Suitza. 1999. Osasunaren Munduko Erakundea. Osasun Mentaleko Atala. Life Skills Education in Schools. Geneva, Suitza. 1993.*

[4] *Mantilla, L. eta Chahin, I.D. Habilidades para la vida: Manual para aprenderlas y enseñarlas. EDEX. Bilbao. 2006.*

- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren indartzea
- Heziketa afektiboa eta sexuala
- Bizikidetza-gatazken konponketa negoziatua
- Drogen abusua
- Indarkeria-egoerei aurre egiteko modua

…

## Herritartasun berria eraikitzeko gakoak

Herritartasun berria eraikitzeko eta haren ezaugarri diren trebetasunak eta balioak garatzeko heziketa-lanaren oinarriak ezarri ondoren, lan edo jarduera sozial eta hezitzailearen gakoak identifikatu behar dira.

Jose Antonio Marina[5] irakasleak adierazi du herritarren gizarte-konpromisoa berrezarri behar dela, eta, bereziki, haurrena eta nerabeena. Nabarmendu du, helburu hori lortuko baldin bada, adimen komunitarioa sustatu behar dela, heziketa zibikoa landu behar dela eta elkarrekin bizitzen ikasteko bideak erakutsi behar direla.

Gizarte-adimena edo adimen soziala garatzeko gakoak lantzea da xedea. Lanketa hori egiteko, hezkuntza emozionala (errukia, errespetua eta bidegabekerien aurreko haserrea) jorratu behar da alde batetik; eta, bestetik, eta aldi berean, balioetan hezi behar da, bizipenetan eta bizipen horien gaineko hausnarketan oinarrituta. Azkenik, gizakien indarguneak garatu eta balioen erabilera praktikoa egiten saiatzeko ohitura psikologikoak eskuratu behar dira.

Hala ere, berariaz azpimarratu behar da ekintzaren bidez eta ekintzaren gaineko hausnarketaren bidez soilik eskuratzen direla giza indarguneak. Gure neska-mutilek balioen erabileraren bidez eskuratu behar dituzte balio etikoak, balio horiek dakarten erantzukizuna sentitu behar dute, eta giza harremanen dentsitatea bizi behar dute. Horrez gainera, arazoei aurre egiteko gaitasuna dutela egiaztatu behar dute.

**Beste pertsonak deskubritzea eta haien lekuan jartzea, ulertzeko, konpartitzeko eta elkarri laguntzeko: enpatia lantzeko[6]**

Gure lanaren hasieran adierazi dugu bi lan-ildo jorratu behar direla. Pixkanaka gainerako pertsonak ezagutzea da horietako bat.

---

[5] *Marina, J.A. (2013) :"Prólogo. Aprendizaje- Servicio"  in Roser Batlle , El Aprendizaje-Servicio en España: el contagio de una revolución pedagógica necesaria. (5-10. or.) Madril. PPC argitaletxea.*

[6] *Gladys Herrera Patiño Iván Darío Chahín Pinzón (2012). Empatía. Guía de entrenamiento. EDEX. Bilbao.*

Trebetasun bat da **enpatia**, eta substantzia berberaz eginak garela gogorarazten digu, hau da, giza materiaz, zuntz emozionalez eta bizitzeko, maitatzeko eta maitatuak izateko gogoz. Bestela esateko, sentitzeko, ulertzeko eta **gainerako izakien bizia zaintzeko** gaitasuna da, aintzat hartu gabe gainerako pertsonek zer arraza, sexu, alderdi, fede, herrialde, gizarte-maila edo sexu-joera duten.

Enpatia garatzearen helburua da gainerako pertsonen adierazpenaren lagun izatea; pertsona horiek beren erara izateko, sentitzeko eta pentsatzeko eskubidea dutela aitortzea; eta ulertzea bizipen desberdinen ondorio direla gizakien sentimenduak eta pentsamenduak, horiek guztiak adierazi behar direla heldutasuna iristeko, eta norberak dituenen antzekoak izan daitezkeela, baina ez duela beti horrela izan beharrik. Lan horri ekiteko, eraitsi egin behar dira norberaren aurreiritziak, gaitzespenik gabe entzuteko besteari. Norberaren eta bestearen ertzen arteko zubiak eraikitzeko gonbita dakar enpatiak, harreman onak ezartzeko.

Enpatiak garapena iristen duenean, ekintza bihurtzen da; batik bat, justiziaren, ekitatearen eta eskubideen balioek lagunduta lantzen baldin bada.

## Komunitateari baliagarri zaizkion lankidetza-proiektuak egitea

Proiektu komunetan parte hartzea sustatu nahi du hasieran adierazi dugun bigarren lan-ildoak, ezkutuan diren gatazkak ekiditeko eta konpontzeko metodo eraginkorra den aldetik.

Gogo eta ilusio betez egiteko ekintzak proposatzen zaizkie haurren eta nerabeen taldeei. Talde horietako kide guztiek berdintasunean egin behar dituzte ekintzak, eta beren aukeren, gaitasunen eta trebetasunen arabera onartu behar dute gainerako guztien lankidetza, komunitatearen onurarako proiektu komun bat eraikitzeko.

Proiektu komunetan, bere izate guztiaren ekarpena egiten du kide bakoitzak, adoste-bidean jartzen dira ikuspegi desberdinak, pertsonen arteko harremanak sakontzen dira, eta ikasten da gainerako pertsonak, egoera guztietan, baliotsu direla, eta, nik bezala, balioak, gaitasunak eta arazoak dituztela.

Prozesua amaitzean, proiektua burutzean, ikusten da pertsonak hurbildu egin direla, gainerako pertsonak aitortu direla, talde-partaidetzako eta kidetasuneko sentipenak sortu direla, eta taldea osatzen duten pertsonak eta taldea bera, kolektibo moduan, ahaldundu egin direla.

Lan egiteko modu horri, proposamen hezitzaile horri, “Ikaskuntza-Zerbitzua”[7] esaten zaio.

---

[7] PUIG, J.M. ETA BESTE BATZUK (2015). *11 Ideas Clave ¿Cómo realizar un proyecto de Aprendizaje-Servicio?* Bartzelona. Graó

*Proposamen hezitzaile bat da IKASKUNTZA-ZERBITZUA, eta antolamendu egokiko proiektu batean uztartzen ditu ikasteko eta zerbitzu-emateko prozesuak. Ingurunearen egiazko beharrizanak lantzen dituzte proiektuan parte hartzen dutenek, ingurune hori hobetzeko helburuarekin.*

*(Centre Promotor d'Aprenentatge Servei. Catalunya)*

Ikastea eta komunitateari zerbitzu ematea uztartuta, proiektu-bidezko metodologiak erabiltzen ditu ikaskuntza-zerbitzuak, eta, horien bidez, ekintza- eta hausnarketa-prozesuak egitea proposatzen du, balioak eraikitzeko eta finkatzeko. Horretarako, jakintzako eta elkartasunezko sareak eratzen dituzte haurrek eta gazteek, bai beraien artean, bai gizarteko hainbat eragilerekin.

Talde-bizitzan giltzarri diren elementu hezigarriak lantzea bultzatzen du Ikaskuntza-Zerbitzuak: jakintzak, trebetasunak, balioak, ahalduntzea eta autoestimuaren garapena.

## Eremu hezitzaile "lagunduak" haurrentzat eta nerabeentzat.

Azken hamarkadetan, nerabeei zuzendutako ekipamendu askotarikoak (gaztetxeak, gaztelekuak, gaztegelak eta antzekoak) sustatu dituzte hainbat administraziok. Sustatu izan dira, halaber, aisialdiko ekimenak aire librean (irteerak, txangoak, kirol-pistak, etab.). Haurrentzat, ordea, ekimen gutxi abiarazi dira, pentsatu delako, ziur asko, eskolan eta eskolaz kanpoko jardueren bidez asetzen direla haien beharrizanak, eta familiek egiten dutela gainerakoa.

Eremu edo espazio horietan jarduera askotarikoak egiten dira, baina, pertsonen eta taldeen heziketan funtsezkoa den arren, ez zaio behar duen garrantzirik eman laguntza hezitzaileari.

Gure haurrek eta nerabeek pertsona helduen laguntza behar dute, proposamen berriak egin diezaieten, haien berezko erabakiguneak inbaditu gabe. Era berean, talde-ekimenen irakurketa kritikoa egitea dagokie helduei, pertsonen garapena laguntzeko hobekuntzak barnera ditzaten.

Beharrezkoa izan daiteke hezitzaileak kalean izatea eta nerabeak dauden lekuetan, kirol-eremuetan eta beste askotan lan egitea.

Ziur asko, premiazkoa izango da berriro jabetzea laguntza hezitzailearen garrantziaz, eta, horren bidez, tentsioak eta oztopoak gainditzea, gatazkak prebenitzea eta harrerak erraztea.

Pertsona helduak behar dira heziketan laguntzeko. Pertsona horiek haurrekin eta nerabeekin izan behar dute, eta hainbat elementu jarri behar dituzte haien eskura, bizipen baliotsuak eraikitzeko prozesuan

laguntzeko: beren gaitasunak, trebetasunak eta jarrerak, beren gertuko presentzia, kritika eraikitzailea, beren ibilbidea eta bizipen pertsonalak, hitz pizgarriak eta enpatia.

Kalitatezko harremanen bidez hezten da prozesu horretan, eta premiazkoa da interesa, grina eta motibazioa transmititzea, bizipenak sortzen parte hartzea, eta elkarrekin bizitzea eta komunikatzea, giro begirunetsu eta aske batean.

## Eremu inklusiboak eraikitzea

Pertsonen arteko harremanetan berdintasuna ahalbidetzen dute eremu inklusiboek, beraz, kidetzaren sentimendua sustatzen dute eta kultura, gaitasun eta sexu-joera ezberdinen arteko komunikazioa errazten dute. Onarpenean, ezagutzan eta komunikazioan oinarritzen dira, bizikidetza-proiektu kolektiboak eraikitzeko.

Eremu inklusibo horien ezaugarrietako bat da pertsonen hurbilketa, elkar-ulermena, komunikazioa eta parte-hartzea eragozten duten oztopoak identifikatzen eta eraisten saiatzen direla, eta pertsonen egoera askotarikoek ez dutela eragozten elkarrekin bizitzea, eraikitzea eta heztea.

Eremu horietan, elkarren balioa onartzea da pertsonen arteko harremanaren oinarria, pertsona guztiek baitute zerbait emateko (balioak, interesak, kultura, sentikortasuna, etab.).

Pertsona askotarikoak ditugu gogoan, hainbat etniatakoak, immigranteak, errefuxiatuak, gaitasun desberdinekoak, sexu-joera desberdinekoak, etab.

Hainbat lekutan eraiki daitezke eremu inklusiboak: ekipamendu kolektiboetan, eremu publikoetan, esparru sozial eta kulturaletan, aisia guneetan, lan-eremuetan eta beste askotan.

Garai eta testuinguru bakoitzean pertsonen eta kolektiboen gainean gailentzen den diskurtso sozialak sortzen ditu pertsonak, etniak eta kulturak elkarrengana gerturatzea eragozten duten gizarte-oztopoak ––zailago dute, gainera, sexu-joera desberdineko pertsonek, ikusezin izaten baitira––, eta larritu egiten ditu hainbat pertsonaren gutxiespena, bakartzea eta baztertzea.

Modu kontzientean edo ez hain kontzientean adierazitako iritzien, balorazioen eta pentsamenduen multzoek osatzen dituzte oztopo ikusezin horiek, eta horietan oinarritzen ditugu gainerako pertsonekiko dugun pertzepzioa eta haiekiko jokabidea. Horrek guztiak aurreiritziak eta estereotipoak sorrarazten ditu, eta horien gainean eraikitzen dugu, datu fidagarririk ez izan arren, geure ideien egitura.

Hurbiltzea, zenbaitetan, ez da erraza izaten, aurreiritzien oztopoek indar handiegia dutelako. Heziketan laguntzen dutenen egitekoa lagungarri izan daiteke, hainbat estrategiaren bidez, pertsonak eta pertsonen taldeak bereizten dituzten oztopoak eraisteko.

Funtsezkoa da ezagutzea, ulertzeko; ulertzea, konpartitzeko; eta konpartitzea, elkarrekin bizitzeko.

Julio Flor kazetariak gogoetagai darabil, metaforikoki eta zuzenean, nola erantzuten dion kazetaritzak gertatzen diren diskriminazio-kasuei buruz informazioa emateko erronkari, ahotsa emanez diskriminazioa jasaten dutenei. Era berean, artikulu honetan aipagai ditu kazetaritza konprometituari eta giza eskubideen ikuspegia erabiliz komunikatzeko betebehar etikoari buruzko funtsezko hainbat gai. Azkenik, bere buruari galdetzen dio zer eginkizun betetzen duen informazioaren arloko profesional bakoitzak migratzaile, iheslari, ijito edo LGTBI kolektiboetako kide izateagatik diskriminazioaren biktima direnengan eragindako giza orbainaren marka ezabaezina ikusteaz eta ikusarazteaz den bezainbatean.

# Ilargiaren bestaldea

**Julio Flor**
Kazetaria

**Kazetaria izatea bestearen lekuan jartzea da**. Bizitza leku ezkutuetan irakurtzera hurbiltzea. Ezezagunak ematen duen motibazioa da. Eguneroko Historiari buruzko liburuak irakurtzea da. Poesia deklamatzea. Ezarritakotik harago joatea. Munduaren antzokira jotzea. Biziki nahi izatea munduak hobera egin dezan, mundu honek, zeinean bestea diskriminatzea eguneroko errealitate hori den, hobera aldatu behar baitu. Hurkoa ezagutzea da, bai eta zeure burua ezagutzea ere. Gerra –behar izatera– eta bakea kontatzea. Zer zergatik gertatzen den azaltzea.

Hori guztia eta askoz gehiago egitea da. Eta mundua hobetzen ez bada ere, kazetaritzak horretan ahalegindu behar du, bere lana eginez, giza bizitza hurbilagoa, biziagoa izan dadin. Heldutasunez, begirunez eta zintzotasunez ekiteko. Informazioa ematea eta giza eskubideetan heztea.

Kazetaria izatea da gizakiari gertatzen zaion oro –bere horretan, den bezala, konplexutasuna eta kontraesanak gorabehera– egunkarietara, aldizkarietara, irratira, telebistara, liburuetara, argazkietara... aldatzea, baina benetan GERTATUA, askotan, ezkutuan, kontatu nahi ez den horretan geratzen da. Hedabideek ez dute adierazten sarritan asko eta askoren bizitzaren muina.

Poza badago eta uzta banatzen bada, bikain. Eta zauriak badaude, agerian utzi behar dira horiek ere, oso itsu egon behar delako giza orbainen marka ezabaezinak ez ikusteko. Ikusten al ditugu marka horiek? Ikusten al ditugu diskriminazioaren zauriak migratzaileengan, iheslariengan, ijitoengan edo LGTBI kolektiboetako kideengan? Bai tristea urradura begien aurrean izatea eta ezin idatzi edo kontatu ahal izatea. Hain gutxi fotografiatu ahal izatea.

Kazetaritza azken hiru hamarkadetako unerik txarrenetako batean dago. Kazetaritzaren beraren bertsiorik txarrenari aurre egingo balio bezala. Alde batetik, nolatan ez, masa-merkatua dago, den-dena hutsalduz. Bestetik, idatzizko prentsaren hondabidea, irakurleak galtzen baititu hiletik hilera, prentsa

digitalaren mesedetan. Zer esan profesionalen egoeraz, sektorean milaka lanpostu galdu baitira azken urteetan.

Kazetaritzak, gainera, hainbatetan gutxiengoekiko babesik eza eta axolagabekeria jariatzen ditu. Gizonen eta Gizonezko Herritarren Eskubideen Adierazpena ezagutu arren. Emakumeen eta Emakumezko Herritarren Adierazpena ezagutu arren, Olympe de Gouges-ek azpimarratu zuen bezala, zeina, soil-soilik horregatik, gillotinan hil baitzuten 1793ko Paris hartan.

Aldapa arriskutsua da lanbide zoragarri honen degradazioa, lanbideak testuinguruak azaldu nahi baititu, arrazoiak bilatu argitzeko zer gertatzen den herrialde batean, eskualde batean. Munduan. Gizartean zer gertatzen zaigun kontatu nahi baitu. Gizakiei zer gertatzen zaien.

Eginkizun handia da kazetariena. Balio izatea bestea hobeto ezagutzeko, bestea gehiago errespetatzeko. Lanbideak balio du ikusarazteko batzuen bizitza guztien bizitza dela irakurtzen dugunean. Lanak gure bizitza osoa betetzen du. Gure bokaziozko zeregina dela eta, etengabe gaude erne, adi zer gertatzen zaion gizakiari, garaiak irakurtzeko, aztertzeko eta ikasteko moduan. Eta, ahal balitz, batzuetan, etorkizuna aurreikusteko moduan.

Ez dugu erraz. Balirudike giza eskubideek ez dutela saltzen egunkarietako azaletan.

Geure buruari galde diezaiokegu zergatik kendu zuen 2016an kazetari saharar batek “etorkinak” hitza eta “bidaiariak” jarri, gure gizarteak “etorkinak” hitza iraingarria den zerbait bihurtu duela iritzita. “Ez zaigu aterperik falta –esan du, bidaiaria denez, Fatma Galiak–; babesik eza dugu sobera”.

Estigmaren aurka. Baina jakinik gutxiengoek ahotsa dutela –Eduardo Galeanok ondo esan bezala–. Beren ahotsa. Aurre egiten diegun zailtasunak seinalatu behar ditugu. Hedabideen bidean daudenak. Baina ez hori bakarrik. Oztopo horiek benetako kazetaritza baliatuta kentzeko modua bilatu behar dugu. Jatorria giza eskubideetan duena.

Beti dago beste ikuspegi bat. Erresistentziarako gaitasuna ematen diguna. Aurrean ez jartzekoa. Besteen aldamenean baizik. Besteak gizonezko eta emakumezko guztiak izanik.

Zein da gure etsai nagusia? Aurreiritzia, beharbada? Inguruan dugun mundu grisa? Hil nahi ez duen zaharraren giltzapea? Teknologia, bakartzen gaituenean? Pentsatzeko eta birpentsatzeko eta berriz pentsatzeko zailtasuna? Edo beldurra?

Gaur, hemen, orain dela urte batzuk Madrilen egin nion elkarrizketa batean **Eduardo Galeanok** irakurri zidan testu bat gogorarazi nahi dut; nik hau galdetu nion: **Zein da kazetariei eman dakiekeen aholkurik onena?**

“Nire lehen aholkua hau litzateke beti: ez baduzu mutua izan nahi, lehenik eta behin ez duzu gorra izan behar. Edo gauza bera dena: besteei zuzendu ahal izateko, haiei entzuteko gauza izan behar duzu. Askapenaren Teologiako nire lagun maiteek huts egiten dute “... ahotsik ez dutenen ahotsa izan nahi dugu” diotenean. Denok dugu ahotsa, eta denok dugu besteei esateko zerbait. Besteek entzun dezaten merezi duen zerbait. Are goratu ere, edo, behintzat, barkatu”.

Europa osoan, esamesa eta gezurra bozak irabazteko diskurtso populistaren mailara igo dira. Besteak beste, etorkinek lana kentzen digutelako gezurra. Eta, hori gutxi balitz bezala, “gizarte-babeserako sistemez neurriz kanpo baliatzen dira”, edo “haien presentzia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da gure hirietako kriminaltasun-indizea”, eta abar. Faktore subjektiboak, aurreiritziak, estereotipoak dira, eta informazio onaren bidez egiten zaie aurre. Tokian tokiko agintariak inplikatuz, arduraz joka dezatela eskatuz, bai eta herritarrei ere, egunez egun esperientzia onak izaten baitituzte etorkinekin. Hitz batean, ahotsa dutenei entzuten jakinik.

Zeinen desberdina den kazetaritza –jardunbide onak darabiltzana– egokitzen zaigun gaiari profesionaltasunez eta konpromiso sozialez heltzen zaionean. “Konpromisoa”, niri, erredundantzia iruditzen zait. Kazetaritza, izan, konpromisoa delako, edo, bestela, ez da kazetaritza. Kazetaritza hurbila, kontaktukoa, bestearen begiei so egitekoa, zer kezka, amets dituen, zer sormenek gidatzen duen, gizaki moduan zer inspirazio duen jakitekoa. Bai eta diskriminazioari buruzko informazioa ematen duenean ere.

# 5
# ondorioak eta erronkak

# 5. ondorioak eta erronkak

Txostena aurkezteko eta testuinguruan jartzeko atalean aurreratu dugun moduan, 2015an ateratako ondorioetatik eta identifikatutako erronketatik abiatuko gara, horiek berrikusiko eta eguneratuko baititugu. Izan ere, bata zein bestea ibilbide luzeko prozesu etengabeei buruz ari dira, eta prozesu horien jarraipen bat egin daiteke, edo, hobe esanda, komeni da horien jarraipen bat egitea.

Azpimarratu nahi dugu, besterik gabe, txosten osoa eta, bereziki atal hau, positiboak direla. Izan ere, txostenean deskribatzen diren erronkak mundu mailan garrantzi handia duten aldaketei edo joerei buruzkoak dira, eta Eraberean sarearen beraren gaitasuna gainditzen dute. Nolanahi ere, Eraberean sareak aldaketa edo joera horietara zer ekarpen egin dezakeen adierazten saiatu gara.

2015eko txostenean agertzen ziren hiru analisi atalei beste bat gehitu zaie, barne-jardunari lotutakoa. Atal horretan, 2016an abiarazitako ebaluazio-prozesuaren zenbait ondorio aurreratu dira.

## DISKRIMINAZIOAREN ERREALITATEA

| Ondorioak | Erronkak |
|---|---|
| I. Zenbait zerbitzuk aurkeztutako datuek eta azterlanek berresten dute gora egin dutela diskriminazio-bizipenek.<br><br>Baina horrek ez du eragin salaketen kopuruak gora egitea, azken horrek berdin mantentzeko joera hartu baitu (edo, are, behera egitekoa, zenbait iturriren arabera), ez eta diskriminaziozko edo gorroto-delitu gisa izapidetutako prozesu judizialen kopuruak gora egitea ere. | I. Diskriminazioaren aurkako borrokari eutsi behar zaio, eta leku handiagoa hartu behar du agenda instituzionalean zein sozialean, dimentsio guztietan hartu ere: herritarren kontzientziazioa eta sentsibilizazioa, arau-ekoizpenaren sustapena, planen diseinua, baliabideen sormena eta erakundearteko nahiz erakunde barruko koordinazioa. |

| Ondorioak | Erronkak |
|---|---|
| I. Aurrera egiten ari da, nabarmen, diskriminazioari eta gorroto-delituei buruzko datu estatistikoak biltzeari, lantzeari eta hedatzeari dagokionez.<br><br>Aurrerakuntza horren sorburu dira, besteak beste, erakundeek sentsibilizazio handiagoa agertzea; 2015aren erdialdera zigor-kodea aldatu izana, gorroto-delituak argituz eta tipifikatuz; polizia-eragileen nahiz eragile judizialen prestatze-ahaleginak, eta abar. | I. Alderdi kuantitatiboan izandako aurrerakuntza lauso horrek indartu egiten du datuak sistematizatzeko eta pertsonak artatzen dituzten instantzien artean elkar trukatzeko eta gurutzatzeko erronka, ekintza-ibilbideak kualitatiboki aztertu ahal izateko, hau da: zenbat kontsulta edo kexa iristen diren salaketa izatera, zenbat salaketa iristen diren diskriminazio- edo gorroto-delitu bezala epaitzera, zenbatek ez duten erantzunik jasotzen, eta abar. |
| II. Diskriminazio anizkoitza ikusgarritasun gutxi duen fenomenoa da oraindik ere, eta emakumezkoek kexa eta salaketa gutxiago jartzeak uste hori indartzen du. | II. Datuak biltzeko eta elkarri emateko sistemak hobetu behar dira, bai eta fenomeno konplexu honen gain sentsibilizatzea eta prestakuntza ematea diskriminazio-biktimak artatzeko prozesuetan esku hartzen duten erakundeei.<br><br>Era berean, beharrezkotzat jotzen da koordinazioa indartzea gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren eta sexu-diskriminazioaren arloan lan egiten duten erakunde eta mailekin. |
| III. Diskriminazio eta gorroto-delituen forma berriak zabaltzen eta hedatzen ari dira KITBen, sare sozialen, hedabide birtualen eta beste batzuen bidez. Gehienetan, kolektibo osoen gaineko diskurtsoak direnez, normalean ez dira salatzen, ez bada kolektibo horien ordezkariek ofizioz sustatzen dituztela. | III. Diskriminazioaren eta gorroto-delituaren arloaren gain jartzen den arreta zabaltzea, bitarteko eta diskurtso horiek aztertzeko bide emango duten ofizioz jarduteko formula proaktiboak baliatuz. |

Eraberean sareak hiru lerro hauetan indartu behar du bere lana:

- Are erreferente nabarmenagoa izatea eskubide-urraketari buruzko kontzientzia eta alerta sortzeko prozesuetan, eta, hori egitean, hobeto jakitea zer den diskriminazioa, zein diren haren ondorioak, eta abar. Horrela, gutxika-gutxika, konfiantzazko dinamika bat sortzen laguntzen duten lorpen zehatzen adibide praktiko bihurtuko da haren jarduna.

- Eraberean sareak laguntza emateko hainbat bide izan beharko ditu kontuan, bai eta hartutako kaltea murrizten eta osatzen laguntzen duten baliabideak sakonago aztertu ere. Salaketaz gain, eta baldin eta hala badagokio, lehentasunezkoak izan beharko lirateke laguntza psikologikoa eta erreparazio-formula ez-judizialak, eta horrez gain, ahalegin handiagoa egin behar da horretarako baliabideak jar ditzaketen hirugarrenekin koordinatzeko.

- Eta salaketa- eta tratamendu-judizialeko prozesuak hobetzeko, Eraberean sareak segurtasun-indar eta -kidegoak eta operadore juridikoak prestatzen laguntzeko ahaleginak egiten jarraituko du, bai eta pertsonei are laguntza seguruagoa emateko formulak sendotzeko ere. Alde horretatik, estrategikotzat jotzen da EAEko lurralde historikoetako batean ofiziozko txanda espezializatu bat sortzeko aukerak aztertzea.

## ARAUDIA

| Ondorioak | Erronkak |
|---|---|
| I. Oraindik ere, ez dago araudi integral bat TBDEren arloan, baina lehen baino araudi partzial gehiago daude zenbait diskriminazio-arrazoietarako, eta gorroto-delituak gero eta gehiago agertzen dira araudietan eta plan sektorialetan.<br><br>Nabari da, baita ere, gero eta jurisprudentzia handiagoa dagoela, bai oro har, bai gai jakin batzuen inguruan ere. | I. Lehen bezala, orain ere beharrezkotzat jotzen da TBDEren arloko araudi integral batean aurrera egitea, diskriminazioaren kontrako araudia aplikatzeko eta sentsibilizazio- eta prestakuntza-plan iraunkorrak inplementatzeko bide emango duena. Beharrezkoa da, baita ere, diskriminazio-biktimei laguntzeko baliabideak eta sistemak zehaztea, datuak biltzeko sistemak hobetzea, eta abar.<br><br>Ikuspegi praktiko batetik begiratuta, era horretako araudi batek hauek guztiak argitzen lagunduko luke: Eraberean sarearen kokapen formala, prestazio motak eta horien irismena, zer lan egin behar den ikuspegi eta diskriminazio-arrazoi bakoitzaren arabera, eta hirugarrenekin koordinatzeko eta artikulatzeko prozesuak. |

Eraberean sareak, bere jarduera-esparruen barruan, EAE osorako TBDEren arloko berezko arau-esparru baten beharrari buruzko hausnarketa sustatzen jarraituko du.

## BARNE FUNTZIONAMENDUA

| Ondorioak | Erronkak |
|---|---|
| I. Lege edo arauzko beste euskarri bati heltzerik ez dionez, Eraberean sareak erabakiak hartzeko prozesuak, barne-harremanak eta lan-prozesuak bizkortzeko beharrezkoak diren tresnez hornitu behar du. | I. Barne-arautegi bat edo antzeko beste arautegi bat egitea.<br><br>Lan egiteko eta pertsonak artatzeko barne-protokoloak berrikustea eta eguneratzea. |
| II. Eraberean sareak kanpo-komunikaziorako estrategia definitu eta argitu behar du, eta erakundearen barne- nahiz kanpo-koordinaziorako eginkizunak formalki ezarri. | II. Kanpo-komunikazioko estrategia bat diseinatzea, lehentasunak zehaztuz; eta bozeramaleak, eskudantziak, eta beste batzuk formalki ezartzea. |
| III. Eraberean sareak titulartasun publikoko era askotako erakundeak biltzen dituenez, erakunde horiek era askotako ekintzak gauzatzen dituztenez, era askotako esparrutan aritzen direnez, eta abar, guztiek partekatuko dituzten plangintza-sistemetan aurrera egin beharra dago, etenik gabe jakin eta ebaluatu ahal izateko nola gauzatzen ari diren saretik egindako ekintzak. | III. Baterako plangintzako tresnaren bat definitzea, epe ertainean Eraberean sarearen jarduera orientatzeko bide emango duena. |
| IV. Hasiera batean, Eraberean sareak judizioz kanpoko esparruan eragiteko asmoa zuen, eta beste operadore polizial eta juridiko batzuei laguntza emateko. Baina erakunde publiko izan den bi urte hauetan artatu dituen kasu gehienak judizializatuak iristen zaizkio. Hortaz, nahikoa operadore espezializatu ez dagoenez, bere esku dauden baliabide juridiko urriak eskaini behar ditu. | IV. Adieraztea zer irizpideren arabera joko den kasu bat auzi estrategikoa dela. Horretarako, arreta berezia jarriko du zenbait prozesuren balio juridikoan, pedagogikoan, eta abarretan, eta, horretaz gainera, esparru normalizatuetan baliabide juridikoak aktibatzeko eta prestatzeko formulak garatuko ditu. |

# 6

# eranskinak

## eraberean *Gehitu Magazine* aldizkarian



## eraberean Nevipen elkarteak antolatutako zineforumean *La Bicicleta Verde* filma



## komunikazio ez-bortitzari buruzko prestakuntza-programa 2016.06.15

eraberean
TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA

**ERABEREAN PRESTAKUTZA**

**KOMUNIKAZIO-TRESNAK**
**KOMUNIKAZIO EZ BORTITZA (KEB)**

**0. Parte-hartzaileak aurkeztea .**

**1. Prestakuntza-proposamena aurkeztea**
**Laguntza-harremana, non Zu Ni zaren.**

**2. Bestea den pertsona hori desberdin ikusten ikastea. Gizatiar bihurtzeko ispilua.**
**2.1. Estereotipoak, aurreiritziak eta diskriminazioa. Etiketari buruzko teoria.**
**2.2. Baldintzarik gabeko harrera ona. Aurreiritzirik eza. Enpatia.**
**2.3. Ikuspegi positiboa.**

**3. Komunikazio-trebetasunak.**
**3.1. Entzute aktiboa.**
**3.2. Entzutean egiten diren akatsak.**
**3.3. Komunikazioaren trabak.**

**4. Komunikazio Ez Bortitza (KEB)**
**4.1. Behatzea ebaluaziorik gabe.**
**4.2. Harrerako trebetasunak. Bestearekin elkartzea.**
**4.3. Parafrasia, ezagutzea.**
**4.4. Sentimenduen adierazpena.**
**4.5. Beharren identifikazioa.**
**4.6. Eskaerak argi adieraztea.**
**4.7. Harrera enpatikoa.**

**EGUNA:** 2016KO EKAINAK 15, ASTEAZKENA

**LEKUA:** BILTZEN, BASURTO-KASTREXANA ERREPIDEA 70. BILBAO

**ORDUTEGIA:** 10:00-14:00 15:00-17:30

**IRAKASLEA:** BITTOR ARGUIÑARIZ, Prestatzaileen Nafarroako Eskola

## prestatzaile izateko prestakuntza-programa
## 2016.10.27 eta 2016.11.03

### ERABEREAN: PRESTATZAILE IZATEKO PRESTAKUNTZA

**Urriak 27 eta azaroak 3, Eusko Jaurlaritza, Kale Nagusia 85, Bilbo**

**Areto nagusian eta B1 aretoan**

**Plaza-kopuru mugatua (3-4 antena bakoitzeko)**
**stitnd@biltzen.org**

#### OSTEGUNA, URRIAK 27

**10:00-11:00. OINARRIZKO KONTZEPTUALIZAZIOA ETA HIZTEGI JURIDIKO LABURRA.**
Miguel Angel Viñas. Cear

**11:15-13:15. DISKRIMINAZIOA ERABEREAN SAREAN: KONTZEPTUA, IBILBIDEA, SAREKO KASUEN ZAILTASUNEI ARRETA BEREZIA JARTZEA.**
Elena Olaortua. Aldarte

#### OSTEGUNA, AZAROAK 3

**10:00-11:30. ARAU-ESPARRUA: NAZIOARTEKO ETA NAZIOKO ARAUDIA. FROGA NABARMENTZEA, FUNTSEZKO ELEMENTUA DEN ALDETIK.**
Mikel Mazkiarán.
Sos Arrazakeria

**12:00-14:00. HIRU IKUSPEGIAK (MAHAI-INGURUA).**
Pascual Borja. Gao Lacho Drom
Xabi Lozano. Errespetuz
Mayra Colado. CITE-CCOO

## eraberean Arartekoak Legebiltzarrean aurkeztutako 2016ko txostenean
### III atala: Arartekoaren jarduerak arreta publikoa behar duten taldeak babesteko.
### ijitoak eta beste gutxiengo kultural batzuk



## 5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

**5.1.** Ijitoak desberdintasun eta gizarte bereizkeria egoeran daude, eta kontuan hartu beharrekoa da hori, baita sustapenerako politika publikoen xede izan ere, ijitoek sozialki, politikoki eta ekonomikoki aurrera egin ahal izateko. Ijitoek geuk denok osatzen dugun gizartearen bizitza laborala eta ekonomikoa garatzen laguntzeko betebeharra eta eskubidea daukate. Oraindik pairatzen dituzten oztopoak desagerrarazi egin behar dira bereizketaren aurkako neurriekin, eta prestakuntza, erantzukizuna eta parte hartzean lagunduko duten politika publikoekin.

Erronka garrantzitsuak daude oraindik ere, esaterako prestakuntza profesional eta hezkuntza prestakuntza hobetzea, etxebizitza egoki eta seguru bat izateko sarbidea izatea, parte hartze ekonomiko, sozial eta politiko handiagoa, eta bereizkeriaren aurkako borroka.

**5.2.** Bereizkeriaren aurkako borrokan aurrera egiteko politika publikoen diseinuan kultura arteko gakoak eta aniztasuna kudeatzeko gakoak gogoan izatea garrantzitsua da, baita eragile publikoen prestakuntza ere. Biltzen Integraziorako eta Kulturen Arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua ari da prestakuntza programak egiten, eta Era Berean sarea ari da neurriak martxan jartzen, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak bultzatuta, zenbait gizarte elkarteren kolaborazioarekin, arraza, etnia edo nazio jatorriko bereizkeriaren aurka borroka egiteko (baita genero nortasun edo nortasun sexual edo orientazioko bereizkeriaren aurka ere); positibotzat jo dira.

**5.3.** Ijitoen komunitatearekin esku hartzearen bereizgarriak aintzat hartuko dituen gizarteratze eta laneratze ibilbideetan aurrera egitea posible izateko neurri zehatzak hartu behar dira. Ijitoak gizarte talde zaurgarria osatzen dute, eta komunitate horren iritzi eta premiak aintzat hartu behar dira erabaki publikoak hartzerakoan.

Horren haritik, lan arloko orientazioan, Lanbidek aintzat hartu beharko luke ijitoen bereizitasuna, gizarteratze aktiboko hitzarmenetan komunitate horren egoerara egokitutako konpromisoak txertatzeko. Bidenabar, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioen kudeaketan aintzat hartu beharko lirateke informazio nahikoa izateko dauzkaten zailtasunak; bete behar dituzten betebeharrei eta betebeharrak ez betetzearen ondorioei buruzko informazio egoki eta osatua izatearen garrantzia ere gogoan izan beharko litzateke. Bidenabar, bete beharreko betekizunei eta, diru-sarrera txikiak dauden kasuetan, Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errenta eskatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko komunikazioa hobetu beharko litzateke, laneko diru-sarrerak osatzeko prestazioa eskatu ahal bada, baita betekizunak galtzeak eragiten dituen ondorioei dagokienez ere.

Enplegua eta gizarteratzea sustatzeko edo bereizkeriaren aurka borroka egiteko neurriak, eraginkorrak izan ahal izateko, ijitoen zehaztasunak eta kulturen arteko gakoak aintzat hartu behar dira. Horregatik, Arartekoak emakume ijitoen egoera zehatzari buruzko arreta deitu zuen, politika publikoen diseinuan arretaz erreparatu behar zaielako, bereziki gizarteratzea eta sustapen ekonomikorako politiken kasuan. Azkenik, haur ijitoak eta ijito nagusiak artatzeko neurri zehatzak behar dira, arretaz landu beharreko bereizgarriak dituzten beharrizanak eta egoerak baitituzte.

**5.4.** Ijitoen eskubideak defendatzen lan egiten duten elkarteen laguntza bereziki baloratzen da. Gizarte elkarte horiei esker, ijitoek gizartean eta politikan parte har dezakete, eta horiekin hitz egiteak erraztu egiten du komunitate horretara bideratutako politika publikoak eraginkorrak izatea. Horren haritik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluak egindako lana oso garrantzitsua da ijitoen egoera hobetzeko eta herri horren kultura aintzatesteko beharrezko neurriak hartze aldera. Adostutako tresnetan onetsitako konpromisoak (planak, estrategiak, etab.) onartu egin beharko dira, salbu eta neurri aproposak ez direla justifikatzen duten arrazoiak baldin badaude.

III

**5.5.** Antzemandako arazoen artean dago, oraindik ere, etxebizitza egoki eta seguru batera sarbidea izateko zailtasuna, besteak beste, etxebizitza ijitoei alokatzea erabaki duen jabeari jabeen erkidegoak igorritako aurreiritziengatik edo etxebizitzen titularrak etxebizitza ijitoei alokatzeko erreparoak dituelako. Horri gehitu behar zaio merkatu pribatuan etxebizitzek prezio altuak dituztela, etxebizitza bezalako funtsezko eskubide bati sarbidea izatea zailduz. Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza eskubide subjektibo gisa aitortzeak zailtasun hori konpontzen lagun dezake. 2017. urtean zehar komunitate honetan izan duen eraginaren jarraipena egingo da.

**5.6.** Bizilagunen arteko harremanek eragin garrantzitsua daukate bizikidetzan eta bereizkeriaren aurkako borrokan. Bizikidetza arazoak larriagoak izatea saihesteko aurretiaz azkartasunez jokatzea eta prebentzioa faktore erabakigarriak dira. Administrazioen arteko kolaborazioa eta koordinazioa, komunitatea garatzeko eta komunitate bitartekaritzarako neurriak artikulatzea eta gizartearen parte hartzea ezinbesteko elementuak dira horretarako, baita gizarte bereizkeriaren aurkako neurriak ere; den-denak beharrezko jarduketak dira.

**5.7.** Ijitoen sustapen sozialak Europar Batasuneko Batzordearen lehentasuna izaten jarraitzen du, eta gizarteratzeko eta laneratzeko neurriek berariazko garrantzia daukate EBko funtsetan.

Euskal herri-administrazioek ijitoen aukera berdintasunerako eta gizarteratze eta laneratzerako neurri zehatzak garatzen jarraitu beharko lukete, Ijitoak gizarteratzeko estrategia nazionala betearaziz.

**5.8.** Eskola uztearen eta eskola porrotaren aurkako borroka eta prestakuntza akademiko eta profesionala hobetzea ezinbesteko gakoak dira ijitoen etorkizunerako. Hausnarketa egitea eta helburu hori lortzeko beharrezko hezkuntza neurriak etengabe ebaluatzea lehentasunezkoa izan beharko lirateke.

**5.9.** EAEn oraindik ere ijitoen egonlekuak daude, eta erakundeen arteko beharrezko koordinazioa beharrezkoa da,


Aurrekoa ikusi

## eraberean Arartekoak Legebiltzarrean aurkeztutako 2016ko txostenean
### III atala: Arartekoaren jarduerak arreta publikoa behar duten taldeak babesteko. Etorkinak eta kultura aniztasuna





Erabaki hori aplikatuz, Turkiatik Greziako uharteetara modu irregularrean heltzen diren migratzaileak eta asilo-eskatzaileak Turkiara itzul daitezke. 2016an, Europara sartu diren pertsonen kopurua murriztu da eta itzulerak areagotu dira.

Abiarazi diren neurriek zalantzan jartzen dute Europar Batasunaren gaitasuna arazo komun bati aurre egiteko, baita estatu kideen solidaritatea eta horien borondatea eta konpromisoa ere asilorako eskubidea betearazteko. Hala, eskubide hori aitortuta dago estatu kideen antolamendu juridikoetan eta Europar Batasunaren Funtsezko Eskubideen Gutunean.

**5.3.** Dauden erronken artean dago babesa eskatzen duten pertsonen harrera eta, gainerako immigranteekin bezalaxe, horien integrazioa eta diskriminazioaren aurkako borroka.

**5.4.** Aipatu behar da, oraindik zehaztu gabe dagoen kontu bezala, Osasun Ministerioak duen konpromisoa lehen mailako arretan osasun-arretarako eskubidearen aitorpenarekiko, atzerriko pertsonen administrazio-egoera gorabehera. Hori autonomia erkidegoek lehen mailako arreta jasotzeko sarbidea argitzea eragozten ari da, Euskadiko Autonomia Erkidegoak bezalaxe. Izan ere, horrek adierazi du talde horri osasun-estaldura ematen jarraitzeko asmoa duela.

**5.5.** Nabarmentzeko moduko elementu positibo bat da Euskadin dagoen diru-sarrerak bermatzeko sistema; sistema horren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria edo gizarte-larrialdiko laguntzak jaso daitezke. Horrez gain, baztertze larriko prozesuak saihesten ditu, berreskuratzeko zailak direnak. Gainera, azpimarratu behar da immigrazioko langile teknikoen toki-sarea eta euskal herri-administrazioek duten inplikazioa eskola inklusiboarekin. Izan ere, integrazioa eta sentsibilizazioa eta diskriminazioaren aurkako borroka errazten dituzten zenbait programa babesten ditu (Aholku Sarea, Era Berean eta erkidego-integrazioko beste programa batzuk).

**5.6.** Hirigintza-antolamenduko politikak sustatzeko beharra baloratzen jarraitzen da, hiri-eremu batzuetan kultu-espazioen bereizketa saihesteko, “hirirako eskubidea” deritzona aplikatuz. Izan ere, pertsona guztiek dute eskubide hori hiri-ingurura sartu ahal izateko baldintza-berdintasunean eta **beste eskubide batzuk gauzatzeko** beharrezkoak diren ekipamenduak eta zuzkidurak baliatzeko, besteak beste, **askatasun erlijiosoko eskubidea gauzatzeko**.

**5.7.** Horrez gain, beharrezkotzat jotzen da atzerriko gazteei zuzendutako prestakuntza-eskaintza eratzea, horien egoera akademikoak eta dokumentazioa erregularizatzeak dakartzan zailtasunak kontuan hartzen dituena.

**5.8.** Urtero adierazten dugun kezkatzeko arrazoi bat da pertsona batzuek eta, bereziki, gazteek duten zailtasuna laneko eta egoitzako baimen bat eskuratzeko lan-eskaintza bat ez izateagatik. Euskal herri-administrazioak hezkuntza bezalako zerbitzu publikoak kudeatzen ari dira, baita laneko orientazioko eta prestakuntza okupazionaleko zerbitzuak ere. Halaber, gure hirietan bizi diren atzerriko familiei laguntzak eta prestazioak ematen dizkiete orain dela urte asko, horiek euren oinarrizko beharrak ase ahal izateko eta horien gizarteratze eta laneratze prozesuak babesteko. Hala ere, pertsona horietako askok ez dute lan egiteko baimenik, edo zaila da lana lortzea; beraz, agerian jartzen da euskal herri-administrazioek egiten dituzten ahaleginen eta lan-munduan sartzeko oztopoen arteko inkoherentzia, lan egiteko baimen administratiboa izan behar baita, eta hori Estatuko Administrazio Orokorrak ematen du. Hala, euskal herri-administrazioen jarduketa horiek ez dute merezi duten pisua.

**5.9.** Aurten, aurrerapausoak eman dira gorrotoaren hitzaldiari emandako erantzunean. Hala, interesgarria izango litzateke gorrotoaren hitzaldiaren aurkako borrokaren inguruko 15. Gomendio Orokorra hedatzea, baita Europako batzordearen Arrazismoaren eta Intolerantziaren aurkako azalpen-memoranduma ere bai, Europako Kontseilua. Talde desberdin eta ahulen inguruko iritzi estereotipatu eta iraingarriak sortzea pertsonen duintasuna izateko eskubidearen aurka doa eta diskriminazioaren aurkako borroka ahultzen du, baita integrazio-politikak ere.

## eraberean gorroto delituen jarraipenari buruzko estatuko txostenean (Europako *Together* proiektuaren markoa, 2014-2016)

cias de Girona, Lleida y Tarragona.[5] Asimismo, en las formaciones organizadas con miembros de la sociedad civil en Barcelona participaron también representantes de la Comisaría General de Información del cuerpo de Mossos de Esquadra, con el objetivo facilitar la interacción entre estos actores.

En el País Vasco se realizaron tres formaciones a cuerpos policiales. La primera en la Academia Vasca de Policía y Emergencias, impartida por el Fiscal del Servicio de Delitos de Odio y Discriminación de la Fiscalía de Barcelona y Biltzen, el Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, donde participaron 33 agentes de la Ertzaintza. Se han formado también a 49 agentes de policía municipal de San Sebastián y 22 de Rentería, ambos municipios de Guipúzcoa, en dos sesiones que contaron con el apoyo de J.F. Cano, Jefe de la Policía Municipal de Fuenlabrada, pionera en España en la implementación de una unidad específica de gestión policial de la diversidad. Así mismo, se han realizado dos formaciones con agentes de las organizaciones de la sociedad civil, con un total de 32 participantes.




project Together!

8

La implementación del programa, juntamente con el análisis de las evaluaciones cuantitativas y cualitativas sobre las sesiones de formación de las personas participantes, permitieron identificar los elementos de mayor interés y utilidad para el personal de policía, de cara a la incorporación de formaciones específicas sobre la identificación e investigación de los delitos de odio en el curricula formativo obligatorio de los cuerpos policiales. En particular, se destaca la necesidad, identificada por las y los agentes, de disponer y analizar ejemplos de delitos de odio de manera integral (es decir, desde una perspectiva legal, de investigación, de atención a las personas victimizadas etc.); así como de disponer de protocolos y metodologías de investigación, indicadores de polarización para la identificación de dichos crímenes e indicaciones prácticas para la realización del atestado policial en casos de posibles delitos de odio, entre otros aspectos. Además, hay que destacar la importancia de que participen en ese tipo de formaciones el personal de patrulla, de las oficinas de atención a la ciudadanía, asistencia a la víctima y relación con la comunidad, así como las y los jefes de turno de servicio,[6] para que los contenidos y las metodologías aprendidas se puedan implementar de manera homogénea y transversal en la actividad policial.

De la misma manera, en relación con la sociedad civil se evidenció la necesidad de apoyar las organizaciones que trabajan a contacto con grupos y comunidad potencialmente vulnerables a los delitos de odio, proporcionándoles conocimientos y metodologías estandarizadas para el registro de la información sobre este tipo de crímenes. Lo anterior representa un paso indispensable para facilitar la identificación y registro de manifestaciones y crímenes de odio por parte de esos actores, incrementando de tal manera el número de denuncias y la información disponible sobre estos delitos. Por otro lado, se detectó la importancia de impulsar espacios de interacción, formación y comunicación entre los cuerpos de policía (en particular, las unidades especializadas en la investigación de dichos delitos) y las organizaciones de la sociedad civil, para favorecer su reconocimiento mutuo como actores centrales en este tema, el intercambio de información y una comprensión más profunda de los contextos específicos en los que cuerpos policiales y la ONGs operan, así como de los diferentes problemas y necesidades que enfrentan en el desarrollo de sus funciones.

5 Al respecto, un agradecimiento particular va a los fiscales Miguel Ángel Aguilar, Víctor Pillado Quintas, Jorge Lucia Morlans, a la fiscal Ana Belén Farrero Rúa y la Teniente Fiscal María José Osuna.

6 Además de las unidades especializadas en delitos de odio, en el caso de los cuerpos policiales que dispongan de dichas unidades.

Al respecto, vale la pena mencionar que, en el marco del proyecto Together!, en Cataluña se intensificó la colaboración con las fiscalías provinciales especializadas en tema de delitos de odio, y, más específicamente, se realizaron reuniones de coordinación con los Fiscales Delegados para la Tutela Penal de la Igualdad y la No Discriminación de las provincias de Girona y Tarragona, con el objetivo de establecer mecanismos de comunicación con la sociedad civil local y entidades especializadas,[7] sobre posibles casos de delitos de odio detectados y/o denunciados.[8]

Por otro lado, se llevaron a cabo reuniones de trabajo con la oficina del Comisionado por la Seguridad del Ayuntamiento de Barcelona, re-sponsable de la Guardia Urbana del municipio, para impulsar la incorporación del programa de formación sobre delitos de odio en el plan formativo obligatorio del personal policial, así como mejorar el intercambio de información entre SOS Racisme Catalunya y la Guardia Urbana.

9

En el País Vasco se han realizado diversas reuniones tanto con la Academia Vasca de Policía y Emergencias, a fin de coordinar los contenidos curriculares relativos a delitos de odio que se imparten en los módulos formativos necesarios para las promociones en el ámbito de la Ertzaintza y las Policías locales. Gracias a los encuentros mantenidos con la de la Secretaría General de la Ertzaintza, el jefe de su Sección de Derechos Ciudadanos y Seguridad Ciudadana, Aitor Larrea, junto con el Subdirector Técnico de BILTZEN, Diógenes Sabana, participaron en la conferencia internacional final del proyecto Together!,[9] que tuvo lugar en junio de 2016 en Milán, presentando como buena práctica el triple abordaje frente a los delitos de odio que se realiza en el País Vasco, entre Policía, Gobierno Vasco y organizaciones de la sociedad civil, en el marco de la Red Eraberean.[10]

7 Es el caso de SOS Racisme Catalunya, que a pesar no disponer de oficinas de atención a las víctimas de racismo y xenofobia en las provincias mencionada, proporciona atención integral a nivel de toda Cataluña.

8 El objetivo es poder replicar el mecanismo de reuniones periódicas con las organizaciones de la sociedad civil, impulsado en la provincia de Barcelona por el Fiscal titular del Servicio de Servicio de Delitos de Odio y Discriminación, que tiene como objetivo facilitar el seguimiento y el trabajo judicial de los procedimientos penales por delitos de odio.

9 Véase: http://www.togetherproject.eu/hate-crimes-europe-challenge-institutions-society-international-conference-milan

10 Red impulsada por el Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco para luchar contra la discriminación por origen racial, étnico o nacional, y por orientación e identidad sexual e identidad de género. http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/eraberean/r45-contpfc/es/



project Together!

## eraberean Gernika-Lumoko Udalaren web orrian

*http://www.gernika-lumo.net/es-ES/Noticias/Paginas/20160218_eraberean.aspx*



## eraberean Ermuko Udalaren web orrian

*http://immigration.ermua.es/gestion.asp?codges=21&i=es*

